

Politiko sindikala
Ponentzia

ERAIKI orain da garaia
DEZAGUN **LANGILEON**
EUSKAL HERRIA

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

zòrtzi.
biltzar nagusia



Politiko Sindikala
P o n e n t z i a

› Ponentzia 5

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

Ponentzia hauen jatorrizko bertsioa euskarazkoa da. Erdarazkoa itzulpena da. Horrelaxe hartu behar da kontuan biltzarraren prozesu osotik zehar.

Aurkibidea

1. KAPITALISMOAK ZUZENTZEN DU GURE BIZITZA.....	7
1.1. Lehenagotik datorren krisia	
1.2. Krisi sistemikoaren dimentsioa ulertzeko hainbat gako	
1.3. Azken hiru urteei gainbegirada	
1.3.1. Burbuila finantziero-immobiliarioaz hasi zen erasoaldi bortitz eta orokorra	
1.3.2. Defizit handiena: defizit demokratikoa	
1.4. Frantses Estatua. Hain argia ez den lidergoa	
1.5. Espainiar Estatua. Bere gaitz endemikoetan sakontzen	
1.6. Euskal Herriaren etorkizun ekonomiko eta politikoa arriskuan	
1.6.1. Hego Euskal Herria. Ezaugarri propioak gorabehera, krisiak bete-betean jota	
1.6.2. Ipar Euskal Herria. Menpekotasuna nagusi	
1.6.3. Euskal langileriaren egoera larriagoturik	
1.6.3.1. Pobretze orokorra eta bazterketa sozial arriskua	
1.6.3.2. Langile klaseak berrosatu eta subjektu izaera berreskuratu behar du	
2. SINDIKALISMOA KRISIAREN AURREAN.....	21
2.1. Euskal sindikalismoa bidegurutze estrategikoaren aurrean	
3. ALDAKETARAKO AUKERAK ZABALIK DITU EUSKAL HERRIAK.....	23
3.1. Egiturazko arazo berdina duen krisi bikoitza	
3.2. Egoera berriaren ondorio nagusiak. Lurrikara ekonomiko eta politikoa	
4. EUSKAL ESTATU SOZIALISTARANTZ URRATSAK AZKARTZEKO SASOIA.....	27
5. ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALERAKO PROZESUA. EREDU BERRI BAT ERAIKITZERA GOAZ.....	29
5.1. Eredu ekonomiko eta sozial berriaren oinarriak	
5.1.1. Euskal Herriaren burujabetza politiko eta ekonomikoa	
5.1.2. Herritarren bizi kalitatea hobetuko duen garapen eredu berria	
5.1.3. Eredu demokratikoa eta herritar guztien parte hartzea bermatuko duena	
5.2. Eredu berria eraikitze bidea	
5.2.1. Borroka eta mobilizazioa, bide bakarra aldaketa politiko eta soziala behartzeko	
5.2.2. Akordioak, aurrera egiteko aukerak eta aldaketak sortzeko tresna	
5.3. LAB, aldaketa prozesuaren partaide eta eragile	
6. BORROKA ERAGINKORRETARAKO ESKAINTZA ARGIA.....	35
6.1. Borroka ardatz nagusiak aldaketarako	

6.2. LABen egitasmo sozioekonomikoa, lantokietan eta lantokietatik kanpo gure borroka zuzentzeko

7. BORROKA EREMU ETA ESPARRU EZBERDIN ETA OSAGARRIAK HELBURU..... 39

7.1. Negoziazio kolektiboaren estrategia berritzeko premia

7.1.1. Negoziazio kolektiborako marko eta eredu propioaren defentsa erreforma gaitzeko

7.1.2. Patronalak lapurtutako eskubideen aldeko negoziazio estrategia

7.1.3. Borrokatu beharreko aldarrikapen nagusiak

7.2. Aktibazio eta mobilizazioa herritarren eta langileen protagonismoa sustatzeko

7.2.1. Lan munduko mobilizazio eta borroka ereduetan sakondu beharra

7.2.2. Lantokietatik kanpo ere sindikalismoa mobilizazio eta aktibazio sozialaren erreferente

7.3. Instituzioak, politika publikoak eta eredu politikoa aldatzeko borroka esparrua

7.4. Nazio eraikuntzaren bidean, herri autogestioa

8. ANTOLAKUNTZAN ERE IREKI BEHAR DUGU ZIKLO BERRI BAT 49

8.1. Klase estrategiarako sortu ditugun baldintza berrietan dago antolakuntza ziklo berriaren arrazoia

8.1.1. Langileriaren antolakuntzari buruzko gogoeta estrategikoa

8.1.2. Krisi ekonomikoaren harira, sindikalismoa eragiteko baliabiderik gabe utzi nahi dute

8.1.3. Gure strategiak eskatzen duen eredia

8.2. Ziklo berri honetan gure antolakuntza ereduak izan behar dituen oinarriak

8.2.1. Gure izaera eta nortasuna

8.2.2. Gure eredia eta estrategia

8.2.3. Ereduren bilakaeran plan estrategikoen bidez egin ditugu urratsak

8.2.4. Helburua LAB indartzea eta hedatzea da

8.3. LABek sustatu behar duen militantzia eredia

9. ERANSKINAK.....53

Nazioarteko egoera

1. Kapitalismoak zuzentzen du gure bizitza



1.1. Lehenagotik datorren krisia

(1) 70 hamarkadari begiratu behar diogu orain hiru urte gertatu zena ulertzeko. Orduan ere sistemaren berezko kontraesanek lan gatazkak eta tentsio sozialak eragotitu zituen. Bigarren mundu gerra ondoren finkatutako hazkunde ereduak bereak emanak zituela agerian geratzen hasi zen produktibitatea eta errentagarritasun tasa erortzen ari zirelako berriro.

(2) Krisiari aurre egiteko sistema kapitalista birfundatzea helburu zuen eraso orokorra (ideologikoa, politikoa eta ekonomikoa) prestatu zuten. Kapitalaren interesak gartzeko baldintza hobek ezartzea zen helburua, errentagarritasun mailak berreskuratzeko eta handitzeko. Programa oso bat jarri zuen martxan, ondoren neoliberalismo bezala ezagutu dugun eredu finkaturik. Programa neoliberalaren ardatz nagusiak hiru dira: desregularizazioa, pribatizazioa eta merkatuak liberalizatzea. Muga guztiak kentzea kapitalaren joan etorriei, beraz.

(3) Politika hauek langilerian izan dituen ondorio kaltegarriak ezagunak ditugu, aberastasunaren banaketan gure parte hartzea gogor murriztu dute eta eskubideak kendu dizkigute erreformaz erreforma. Prekarietatea herritarrentzat, aberastasuna barra barra sortzen bazen ere.

(4) Garai honen beste ezaugarri bat finantza kapitalaren internazionalizazioa izan da. Finantza kapitala kapital produktiboari gailendu zaio eta sistema bera transformatu du. Honela, inolako kontrolik gabeko eta herrien garapenari ezer ekartzen ez dion espekulazioa nagusitu da eta ereduaren ardatz bihurtu da. "Produktzioak dirua sortzen du" eredutik, "diruak dirua sortzen du" eredurak pasa gaituzte, eta bere gaitibu egin gaituzte.

(5) Aberastasunaren banaketa desorekatu eta bidegabekoa dago mugimendu espekulazioaren atzetan. Neoliberalismoak diru kopuru itzelak uzten ditu korporazio transnazional-finantzieroen eskuetan, eta diru horrek guztiak arazoak ditu bere balioa biderkatzeko inbertsio produktiboan. Espekulazioaren bidea hautatzen dute arazo hau konpontzeko. Produktio eredu kapitalista ez da desagertzen noski, baina sistema finantziero eta sistema produktiboaren arteko oreka apurtu egiten da. Desoreka honek beti krisiak sortu dituela jakin arren.

(6) Aberastasunaren banaketa ankerraren beste ondorio bat zorpetze pribatu masiboa izan da. Zorpetze familiarra bultzatu eta bultzatzen den bitartean (kreditu hipotekario edota kreditu pertsonalen bidez) zorpetze publikoa mugatu eta zigortzen da, nahiz eta zorpetze pribatu hau publikoa baino askoz handiagoa izan (Espainiar estatuaren kasuan, esaterako, zor orokorraren %89 pribatua den bitartean, %11 besterik ez da zor publikoa). Dirua merke eta herritarren esku utzi behar zen guztiaren kontsumoaren bidez barne eskaria handitzeko eta horrela hazkunde garaia luzatzeko. Esan barik doa dirua merketzea beharrezko baldintza zela lurraren eta etxebizitzaren gaineko espekulazio finantzieroa elikatzeko, gerora izan dituen ondorio katastrofikoekin.

(7) Azken garaiko hazkunde ekonomiko ikargariaren oinarri hutsalak izan dira hauek. Guztiak eztanda egin eta hankaz gora jarri den arte. Zabor finantzieroak sistema osoa kutsatu duenean eta burbuila espekulatibok eztanda egin duenean nazioarteko sisteman kolapsoa nagusitu da eta 2007tik geroztik krisia da sistemaren bilakaera zuzentzen duena.

1.2. Krisi sistemikoaren dimentsioa ulertzeko hainbat gako

(8) Akumulaziorako eredu kapitalistak krisi eta transformazio asko bizi izan ditu bere historian zehar. Ezin ditu krisiak ekidin eta guztiek ekarri dituzte aldaketak. Hazkunde ekonomiko garai berri guztiak kapitalismoan sakonduz ireki dira eta inposatutako eredu sozio-ekonomiko berriek krisi berri eta okerragoak ekarri ditu luzera.

(9) Sistemak bere bidea egin du horrela, baina baita bere baitan biltzen dituen krisi eta kontraesanak ere. Kapitalak neurririk gabe garatu du kapitalismoa, baita kapitalismoak berezkoak dituen arazoak ere. Krisi hau berria da arazo horiek guztiak bere gordintasun osoan agertu direlako, momentu berean agertu direlako, eta kapitalak ez duelako hau guztia bideratzea lortzen.

(10) **Krisi ideologiko eta politikoa.** Sistema kapitalista, eredu ekonomikoa aldatzearekin batera, oinarri duen eredu politiko-instituzionala ere aldatu beharrean dago. Honek demokrazia formala birmoldatu eta instituzio politikoaren funtzioak berregokitzera darama.

(11) Gobernu, parlamentu eta bestelako instituzioen funtzioak, estatu mailakoak zein estatu gaindikoak, helburu oso zehatzetara bideratzen ari dira: lege marko probetxugarriak eskaini kapitalari, merkatuen mugimendu askeetara bideratuta; errekurso publikoen kudeaketa (diru publikoaren desbideraketa arlo pribatarra eta herritarren premia gero eta oinarrizko eta murriztagoak asetzea); jendartearen kontrola, ideologiko zein errepresiboa.

(12) Honekin batera, bipartidismoan sakontzen ari da, beti ere ideologia bakarraren mugetan, merkatuaren ideologiaren mugetan, alegia. Erabaki guneak gero eta urrunago kokatzen dira eta hauek praktikara eramateko modua inposaketa hutsa izaten da. Azken honen erakusgarria izan zen, esaterako, Europako konstituzio prozesua, Lisboako Itunaren ezarpenean amaitu zuena.

(13) Hau guztia ez da ezer berria. Aldaketa nagusia da sakontzen eta areagotzen ari dela. Honela, demokrazia formalaren diskurtsoak gero eta jasotzaile gutxiago izaten ditu jendartean. Modua topatu behar dute burutzen ari diren guztia jendartearentzat irensgarria izan dadin, zeren eta gaur ez baitago oreka posiblerik kapitalaren eskaeren eta herritarren eskubideen artean. Bateriaezinak dira. Botere osoa kapitalaren esku utzi duten gobernuen eginkizuna herritarrei kapitalismorik bortitzena inposatzea da, ongizate estatua bezala ezagutu duguna deuseztatzen duten bitartean.

(14) **Jasangarritasun krisia.** Sistema kapitalista ez da jasangarria, kapitalaren diru goseak ez duelako neurririk baina bai ordea munduak. Petrolio eta ikatzaren agorpen zantzuak eta kutsadura erradiaktiboaren arazoak ez dute konponbiderik eta epe laburrean areagotu egingo dira. Sistemari bere osotasunean eragiten diote, egungo energia iturriak ordezkaturiko dituen beste energia merkerik ez baita egongo epe laburrean sistemak dituen energia premia neurrigabe koetarako.

(15) Era berean, ur eta airearen kutsadurak, luraren beroketa globalak, biosferaren murrizketak, eta gainerakoek kapitalismoa "defizit ekologikoan" sartu dute. Errealitate honek izugarriko ondorio kaltegarriak dakartza: goseteak, natur desastreak eta gaisotasun mota berriak. Egoera hauek mundu txirotuan ez ezik, mundu aberastuan ere suertatzen ari dira. Hor ditugu, adibide gisara, Fukushimako istripua Japonian, edota gero eta gehiago gertatzen ari diren gosete kasuak mundu aberastuan.

(16) Honek guztiak baliabide naturalen jabegoaren gaia mahaiganeratzten du, kapitalaren edo herrien eskuan egon, garapen ezberdina izango dutelako.

(17) **Hegemonia krisia.** Nork agintzen duen munduan dago jokoan. Nork zuzentzen duen eremu kapitalista osoaren bilakaera, eta horren arabera, mundu osoarena. Bere momentuan genion AEB, EU eta Japonen osatzen duten hirukotearen hegemonia arriskuan jartzen zuten joerak indartzen ari zirela. Hego Ameriketara bere buruaren jabe izateko erabaki irmoa duten herrialdeek AEBren nagusitasuna zalantzan jarri dute eremu horretan. Eta BRIC deritzoten herrialdeak (Brasil, Errusia, India eta Txina) munduko produktore nagusiak bilakatzen ari dira, bere boterea eta eragin eremua handitzen ari delarik.

(18) Latinoamerikan eta Asian batik bat, baina baita Afrikan ere, sortzen ari diren nazioarteko erakunde eta harreman bilateral berriek (Txina, India, Hegoafrika, Iran eta Latinamerikako hainbat Estaturen artean, adibidez), ez dute kapitalismoa bere oinarrian zalantzan jartzen, baina AEB eta Europar Batasunaren nagusigoa kolokan jartzen dute. Nazioarteko erakundeetan (Nazio Batuen Erakundeetatik hasita) oinarritzko aldaketa demokratikoak planteatzen ari dira eta harreman ekonomikoetan ere aldaketak eragin nahi dituzte. Mundu mailan nagusi izan diren Estatuak (AEB, EB, Japonia) urduri jartzen ditu honek.

(19) Gaur arteko hegemonia kolokan dago eta bakoitzak bere lekua eta nagusitasuna ziurtatu behar du. Nagusitasun horren atzean dago erregiak kontrolatzea, sistemak pobrezia kondenatu dituen herrialdeak bere horretan jarraitzea... Lehi handia da eta botere guda bat den heinean, lehentasunezkoa da potentzia guztientzat.

(20) Honen aurrean munduko erreketsoen gaineko agintea mantentzeko sistema kapitalistaren nagusiek (AEB eta EB batik bat) hiru bide nagusi dituzte: 1. beraiek jaun eta jabe diren nazioarteko erakundeen gaineko kontrola areagotzea (NBE, FMI, Banku Mundiala, e.a.). 2. gainontzeko estatu eta herriak estutzea eta txantapean edukitzea. Eta 3. eraso inperialista berriak burutzea (hor ditugu Afganistan, Irak, edota Libiako kasuak eta aurki etor daitezkeen Siria eta Iranen aurkako eraso inperialistak).

(21) **Legitimitate krisia.** Hau guztia kapitalismoaren legitimitatea auzitan jartzen ari da. Munduko gainontzeko estatu eta herriak planteatzen ari diren bide alternatiboetatik gain (hor ditugu Latinoamerikan ALBA, CELAC, esaterako), mendebaldeko estatu kapitalista hauek ere barne mailan gero eta legitimitate arazo gehiago dituzte.

(22) Horren erakusgarri dira Europar Batasunean azken urteetan izan diren hamarnaka greba orokorrak (Euskal Herrian ez ezik, Grezian, Italian, Frantziar Estatuan, Portugalen, Belgikan...), AEBetako eta Europako kale eta plazan okupazio mugimenduak, sionismoaren aurkako mundu mailako kanpaina eta abar luzea. Oraindino behar besteko indarra hartu ez duten errealitateak badira ere, hedatuz doaz. Sistema kolokan jartzea lortzen ez badute ere –Europa mailan ezkerreko proiektu baten falta-, ezinezkoa handitzen ari dela erakusten dute.

(23) **Patriarkatuaren krisia.** Sistema kapitalista patriarkatua oinarritzen da. Honen ondorioz, sexuen arabera rolen banaketa eta erlazio hierarkikoak ezartzen ditu pertsonen artean.

(24) Halere, azken urteotan, emakumeek egindako borrokari esker, eskubide indibidualetan aurrera urratsak egin dira (soldatapeko lan merkaturatzea, familia eredu tradizionalaren haustura, zaintzaren arazoa azalaraztea...). Krisialdi ekonomikoaren aitzakiaz emakumeen prekaritatea areagotzea eta babes sozialaren alde anitz emaku-



meen bizkarrera bueltatzea ez da emakumeek erantzun barik onartzeko prest dauden formulazioa. Honek, nahita, kapitalismoaren balizko "birfundazioa" oztopatzen du eta kontra egiteko indar bihurtzen da.

(25) Emakumeok orain arte inposaturiko errekonozimendu ekonomiko eta sozialik gabeko lanei uko egin nahi izateak arazoa azalari eta lanaren banaketa justuago baten aldeko aldarrikapena mahaigaineratu du. Honekin batera, zaintzaren arazoari erantzuteko garaian, egungo sistema bere ezintasuna erakusten ari da eta honek zaintzaren gaineko krisialdi oso bat mahaigaineratu du.

(26) Honek guztiak argi uzten digu ez gaudela krisi ekonomiko baten aurrean. Askoz sakonagoa da. Krisi sistemikoa bizitzen ari gara. Eta luzera doa, sistema osoaren birformulazio ekonomiko, sozial eta politikoa eskatzen baitu.

1.3. Azken hiru urteei gainbegiraturia

1.3.1. Burbuila finantziero-immobiliarioaz hasi zen erasoaldi bortitz eta orokorra

(27) Denok gogoratzen dugu 2007an Estatu Batuetan burbuila finantziero-immobiliarioaren eztanda. Hau hurrengo urteetako gertakarien detonantea izan bazen ere, azaldu bezala, krisiaren arrazoiak are globalagoak eta estrukturalagoak dira.

(28) Aurreko zikloan espantsio ekonomikoa burbuilaren ekonomian oinarritu zen. Eskema piramidal guztiekin gertatzen den bezala, espantsio modu honek bere muga aurkitzen du ekonomia errealearen diru sarrerak jadanik nahiko ez direnean zorraren gastuak ordaintzeko edo, bestela esateko, bermatzeko. Etxebizitzarekin gertatutakoa adierazgarria da oso: etxebizitzak erosteko hipotekak hazi bitartean, prezioek gora egiten zuten, hipoteken prezioa etxebizitzaren prezio erreala baino askoz altuago bihurtu arte.

(29) Hasiera batean aktibo finantzieroetan zentratu zen krisi hau ekonomia errealerara pasatu zela esan ohi da. Hala ere, arrazoia ez da beren-beregi mahaigaineratu izan dena, bankuek, likidezia faltan, enpresetara prestamori bideratzen ez dutenik, alegia. Izan ere, finantziarizazioa jaun eta jabe egin den kapitalismoaren fase honen adierazgarria da aberastasunaren metaketan eremu produktiboa bigarren maila nabarmenean gelditu dela. Hau da, eskema finantziero hutsetan mugitzen da gehienbat sistema, diruak dirua sortzen omen duelakoan.

(30) Krisialdi hasieratik, hortaz, banka "erreskatatzea" izan zen helburu nagusia. Bankuek euren prestamo erreserbak berrosatzeko aldarrikatzen dute eta, honela, gobernuek diru publiko kantitate itzelak bideratu dituzte bankara, zuzenean zein prestamoen interesen ordaintzetaz.

(31) Hau aukera paregabea izan da planifikatzaile neoliberalentzat. Europar Batasunak hau honela izan dadin Estatuak bankuen interesen ordaintzeta beste edozeren gainetik kokatzea lortu du, agindu kostituzional bihurtuta. Estatuak euren defizita BPGaren %3tik behera eta zor orokorra %60tik behera eustera behartu dituzte.

(32) Esan beharra dago agindu hauen kontra ez dela erresistentziarik egon gobernuen partetik. Honela, ordaintzeta hauetarako eszedentea sortzeko bide bera jorratu dute: Estatuaren gastuak murriztu. Honetarako, alde batetik, sektore publikoa deuseztatzea jo dute, soldaten jaitsieraz, kaleratzeaz eta pribatizazioez, eta, bestetik, pentsioen eta bestelako gastu publiko eta soziala murrizteari ekin diote.

(33) Honekin batera, "enpresen lehiakortasuna" sustatzeko neurriak abiatu dituzte: sistema fiskala lanaren gaineko zergetan oinarritu, kapitalari tratatu askoz mesedegarriagoa ezartzen zaion bitartean eta, bestetik, produktu eta zerbitzuen kosteak murriztu, sektore pribatuko soldaten jaitsieran eta jardunaldien luzapenean oinarriturik.

1.3.2. Defizit handiena: defizit demokratikoa

(34) Plan honen ondorio nagusia bizitzen ari garen eskubide sozialen, eskubide laboralen eta eskubide sindikalen kontrako eraso bortitza da. Eskubide sozial eta laboralak de facto deuseztatzen ari dira krisialdiaren hasieratik hartutako neurri guztien ondorioz. Baina eskubide sindikalen deuseztapena ere premiazkoa daukate kapitalan gatazkan aurre egiteko eta eskubide hauek boterea borrokatzeko tresna diren heinean. Honen erakusgarri daukagu negoziazio kolektiboaren deuseztapena, greba eskubidearen kontrako erasoak edota liberatu sindikalen aurkakoak.

(35) Gure eskubideen kontrako erasoak burutzeaz gain, eskubide hauek babesteko langileriak daukan bitartekoen kontrako erasoak izaten ari da, balizko erresistentzia oro ezabatzeko asmoz.

(36) Aplikatzen ari diren politikak aspalditik pentsatuak dira. Orain, krisialdiaren kudeaketak zabaltzeko eta azkartzeko aukera eman die. Kapital handiak agintzen du zelan kudeatu behar den ekonomia eta balioen merkatuak bihurtu dira kudeaketa honetarako funtsezko instituzio.

(37) Kudeaketa guztiz antidemokratikoa da, beraz. Antidemokratikoa erabaki guneak urrunak izateaz gain, parlamentu eta bestelako instituzioetatik aparte hartzen direlako; antidemokratikoa erabakiak elite ekonomiko txiki batek hartzen dituelako; antidemokratikoa erabaki guztien helburu bakarra elite txiki horren interesak bermatzea delako, eta antidemokratikoa erabaki horiek praktikara eramateko modua inposaketa eta ezarpena direlako. Esan gabe doa hau guztia gobernuen konnibentziarekin eta laguntzarekin burutzen ari dela.

1.4. Frantses Estatuak. Hain argia ez den lidergoa

(38) Frantses Estatuak ezaugarritu duen eredu sozial eta politikoa eraldatze prozesu baten baitan murgildua dago. Eraldatze prozesu hau, 80. hamarkadan hasitakoa, eragin argia izaten ari da frantses jendartearen, Estatuaren menpe diren aitortzarik gabeko nazioetan eta klaseen arteko harremanetan.

(39) **Mundu Gerra ondoko ereduaren gainbehera.** Frantses "intelligentsia"-k eta klase politikoak "modelo frantsesa" deitutakoa goraiatu eta eredu ekonomiko zein politiko anglosaxoiaren alternatiba gisa aurkeztu dute denbora luzez. Frantses Estatu eredu zentralista eta kulturalki protekzionista, frantses kultura bera, globalizazio ekonomiko eta kulturalaren alternatibatzat hartu izan da. Frantziaren Estatu Sozial ereduak, zeinean zerbitzu publikoek nagusitasuna duten eta babes politika zabala den, Estatu neoliberalen alternatibatzat jo izan da.

(40) Frantziaren politika zentralista eta jakobinoak estrategia protekzionista eta berdintzailea aldarrikatu du. Frantses Hizkuntza eta berezkozkat hartu diren ezaugarri kulturalak babesteko estrategia protekzionista honek Frantziaren menpe dauden nazioak ez aitortzera eta desagerrarazi nahi izatera eramatu du. Adibidez, errepublika ezaugarritzen duten *Liberté, Egalité, Fraternité* helburu/definizioetan, errealitatean *Egalité = Uniformité* aplikatzen da. Alta, integrazioaren aldeko politika eta eredu hau ez da eraginkorra izan. Egun argiki esan dezakegu herritarren artean berdintasunik ez dagoela, Frantziar jendarteak kohesio sozial arazo larria duela eta aitortzarik gabeko nazioek beren eskubide politiko eta kulturalen alde daramaten borrokan bizirik dardela eta aukera berrien aurrean aurkitzen direla.



(41) **Zerbitzu publikoen eraispena.** Eredu ekonomiko eta sozialari dagokionez, 80. hamarkadatik aurrera politika neoliberalak nagusitzen eta ongizate jendartea eraisten joan dira. Zerbitzu publikoen pribatizazio partzialak hasi ziren (EDF/GDF, La Poste, SNCF, France Télécom, Air France...), lehiakortasuna ahalbidetzeko eta lan merkatua desarautzeko politikak ezartzen hasi ziren. Honek, barnealdean, zerbitzu murrizketa eta desertifikazio prozesua areagotu zituen. Gainontzeko Estatu kapitalistak politika neoliberalak ezarriz, prekaritate eta desarautzeak zabaldu dituzte eta Frantzia gobernuak logika berdinean sartu direla esan genezake, enpleguaren kalitatea eta lan eskubideak murrizteko politikak areagotu baitira. Honen adibideak CNE eta CPE bezalako erreformak pasarazteko saiakera dira (2008an, kontrako mobilizazioei esker, bertan behe-rra utzi behar izan zuten azken hau) lan baldintzak malgutu, langileak nagusien menpe jarri eta langabeziari lotutako asistentziak murrizteko.

(42) **Ongizate jendartearen eraispena.** Hau horrela, Estatu sozialaren ezaugarriak zalantzan ezarri dira eta horretan sakontzen den heinean Frantses Estatuaren nortasunaren krisia sakonduko dela ere esan genezakeen, azken hamarkadako oldarraldi sozialak eta greba mugimenduak horren froga direlarik. Eskuratutako abantaila sozialak zalantzan ezartzen ari dira modu ez demokratikoan, frantses jendartearen sektore zabalak posizio argia hartu baitu behin baino gehiagotan politika hauen kontra. Horren lekuko ere, 2010ean indarrez inposatu duten erretretaren erreforma legea da. Kasu honetan, herritar frantsesen gehiengoaren kontra eta 2003 urtearen geroztik ezagutzen ez ziren mobilizazio, blokeo eta greba orokorrei uko eginez Sarkozy, erretretara joateko adina atzeratu eta kotizatu beharreko urteen emendatzea indarrez ezarri zuen. Era berean, sektore publikoren eraispena bultzatu du, erretretara doazen bi funtzionarioetatik bat baizik ez ordezkatzuz, lansariak 3 urtetarako blokatuz eta hezkuntza, osasungintza eta lurralde funtzionario lanetan prekarioak sartzeko aukeretan sakonduz, honek dakartzan ondorio guzietan.

(43) Kapitalismoak Europan pairatzen duen krisi ekonomiko eta politikoaren aurreko ateraldian Frantziak lidergoa zuela adierazi nahi izan zuen. Krisiak, hala ere, barnean eragin du, eta hastapeneko aitzin ikuspenak larriak baziren ere, momentuz ez da nazioarteko egitura ekonomiko eta politikoaren eskusartze nabarmenik behar izan. Frantzia zorpetua da eta Estatuaren defizita apaltzea buru, kapitalak eta haren manuetara den gobernuak neurri zorrotzak hartu dituzte eta oraindik hartzekotan dira.

(44) **Orain arteko zentralismo eredia zalantzan.** Esan dugun bezala, apustu ekonomiko berriek helduleku politiko eta ideologiko berriak erakartzen dituzte. Bide honetan, Estatu Frantsesaren antolaketa eredia egonkorra eta eztabaidea zuzenaren irudia izan badu ere, deszentralizazio prozesu ezberdinak bizi izan ditu. Estatu zentralizatzailea izanik ere, estatus juridiko berezituak (les collectivités territoriales à statut particulier) onartu behar izan ditu. Deszentralizazio prozesu hauen dimentsio ekonomikoa aztertu eta lurralde hauek (territoires d'Outre mer eta Korsika), berrikuntza instituzional batzuk dituzten arren, arlo ekonomikoan Estatu Frantsesaren menpeko direla esan dezakegu.

(45) Ipar Euskal Herriaren azken 15 urteetan burutu diren gogoeta aldiek (Euskal Herria 2010, Euskal Herria 2020...) edo sortu diren egiturek (Garapen Kontseilua, Hautetsien Kontseilua, EEP...) egiatzko ezagupen instituzionalik ahalbidetzen ez dutela esan dezakegu. Esperientzia berezi horiek bi faktoreen ondorio zuzenak dira: alde batetik Ipar Euskal Herriaren geroaz axolatzen diren eragile sozio-politiko batzuen lana eta aldarrikapena eta bestalde, hain zuzen, ezagupen instituzional osoa saihesteko Estatuko ordezkarien jukutria.

(46) Egun, lurralde kolektibitateen erreforma prozesuan ere bagaude. Erreforma honen karira Estatu Frantsesak IEHa entitate gisa are gehiago desitxuratzeko nahia agertzen du eta orain arteko kontsentsuzko tresnak kontsideratu daitezkeenak (Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua) kolokan daude (baita, kontsentsuzkoa ez izan arren, sekulako borrokaren ondorioz eskuratu genuen Laborantza Ganbara ere), martxan den erreformarekin "Pays" egituren desagertzea aurreikusten baita. Honek indar politiko eta ekonomiko guztien alarmak piztu ditu eta testuinguru honetan korrante politiko ezberdinen hautetsien adierazpenak eta posizioak birkokatzen ari dira.

(47) **Eragile sozio-politikoaren birkokatzea.** Bitartean, sindikatuen errepresentazioa neurtzeko eta negoziazio kolektiborako arauak eta markoak ere birdefinitzen ari dira. Negoziazio kolektiborako esparrua Estatu mailan zentralizatu dago eta erreforma orokorrak interprofesionalak izan dira. Elkarrizketa soziala sektoreetan eta lantegieta-ramateko tentaldia baldin badago, langileen aldeko indar harremana ahultzeko asmoz izango da. Aldaketa politiko eta sozioekonomiko egoera honetan, aitortzarik gabeko sindikalismoak posizio politikoa hartu beharko du ere.

(48) Frantses Estatuaren indar politiko gehienek, eskuinekoak ala ezkerrekoak izan, ikuspegi zentralista eta jakobinoa partekatzen dute. Ez dira prest Frantziaren menpe dauden nazioen aitortza politikoa onartzeko. Frantziako ezker politikoa eta sindikala Frantses Estatuaren batasuna defendatzeaz gain, ez da gai agertzen egungo eskuin politikari alternatiba eskaintzeko. Honek guztiak langileriak kapitalarekin duen nor-gehiagokan eragiten du. Alta, Euskal Herriak estatuarekin pairatzen duen gatazka politikaren konponbiderako prozesuak aukera berriak ireki ditu. Zenbait eragile politiko eta sindikalek Estatu Frantsesa konponbidean inplikatu behar dela aldarrikatu dute eta honek konponbidearen izaera politikoa aldarrikatzeko eta Frantziaren menpe dauden nazioen eskubide kolektiboaren aldeko iritzirik korronea zabaltzeko baldintzak sortu ditu.

1.5. Espainiar Estatuaren bere gaitz endemikoetan sakontzen

(49) Burbuila lehertzeak berehalako ondorioak izan zituen Estatu Espainiarrean eta bereziki larriak gainera. 5 milioi langabetu baino gehiago daude gaur eta arrasto bat bera ere ez gautzak hobetuko direla esateko. Horrelakoa izan da azken hamarkadetakozko hazkundea, espekulazio finantzario eta immobiliariora besterik ez. Horrek kale egin duenean Estatuaren orain 15 urteko datuetara bueltatu da, baina baldintza askoz ere txarragoetan herritarrek guztiz zorpetuak daudelako. Dena dela, ez gaitzezen okertu, tartean sortu den aberastasuna ez da desagertu, eta krisia ez da guztientzat: luxuzko merkatua handitu eta indartu egin da krisi urte hauetan.

(50) Arazoak ez dira azken hamarkadan sortu, ordea. Espainiar Estatuaren diktadura luze batetik etorrira, tradizio sozial eskasekoa da eta honen adierazlea da, besteak beste, ongizate estatuaren garapen murrizta. Bestetik, bere ekonomiaren bilakaera egiturazko lau arazoren gainean izan da: atzerapena teknologian eta produktibitatean; industria kapitalaren dependentzia finantza kapitalarekiko; ustelkeria eta ekonomia ezkutua; presio fiskal oso eskasa eta ondorioz, inbertsio publiko oso txikia. Gutxi batzuen berehalako irabaziak lehenetsi dira beti, gehiengoaren kaltetan.

(51) **Desregularizazioa eta sektore publikoaren desmantelamendua.** PSOEk bere eskutan izan du krisi honen aurrean bide berri bat hartzeko aukera. Baina Estatuak egiturazkoak dituen arazoei benetan erreparatzea eta hauen aurrean bide propio bat egiten hastea baztertu zuen 2010ean. Ausardia falta batzuentzat, sozialdemokraziaren porrotaren beste adierazpen bat gehienontzat. Azkenean, PPri bidea prestatu dio.

(52) Erreforma esanguratsuak onartu dira Zapateroren agintaldian. 2010ean lan erreforma onartu zen eta ekainean Euskal Herrian eta irailean estatuan greba orokorrak deitu ziren. 2010eko amaieran pentsioen erreforma, honetarako CCOO eta UGTren laguntza paregabea izan zutelarik. Orduan ere Euskal Herriak greba orokor batez erantzun zion. 2011ko ekainean negoziazio kolektiboaren erreforma burutu zen, azken lan erreformak bere azken muturrera eramane duena eta berriro ere Euskal Herriak greba orokor arrakastatsuz erantzun duena.



(53) PPren gobernuak kudeatuko du beraz krisi hau eta bere hasierako neurriek ez dute eztabairako tarterik uzten. Adierazgarria da benetan aurreneko erabakia ikerkuntzarako eta garapenerako inbertsioak murriztea eta hezkuntza erasotzea izatea. Estatuaren gaitza nagusia atzerapena denean, modernizatorako eta eredu propio bat indartzeko ezinbestekoak diren elementuak baztertzea konponbidetik urruntzea da, baita langilariaren egoera larria guztiz okertzea ere. Har daitekeen biderik txarrena da produktibitatearen arazoa lan kostuak gutxituz zuzentzen saiatzea, inbertsioaren bidez eta garapen eredu berri baten alde eginez gainditu beharrean. Esku lan merkearen lehiak langileak pobretzea ekartzen du, ez ordea garapen eta hazkunde ekonomikoa. Desregularizazioak eta sektore publikoaren desmantelamenduak zuzenduko du PPren politika, beraz.

(54) 2012an onartutako erreformarekin, lan merkatuaren desregularizazioan aurrera urrats nabarmen bat eman du. Erreforma ezagutu bezain azkar Euskal Herriko gehiengo sindikalak grebarako deialdia egin zuen eta ondoren CCOO eta UGT gehitu dira estatuan ere greba egun berdina deituz.

(55) Legeaz aparte, negoziazio kolektiboa ere prozesu horren mesedetan jarri dutelako. Orain arte, lan erreformek inposatu dute desregularizazioa. Eta negoziazio kolektiboa izan da lan harremanak guztiz ez desregularizatzeko eta enpresarien boterea langilariaren borrokaz mugatzeko bitarteko bakarra. Azken lan erreformak paper hori deuseztatu du eta langileoi aukera hori kendu digu tresna bera lapurtu diguten heinean. Gure borrokaren bidez erregulatu ahal izan duguna negoziazio kolektiboaren bidez desregularizatzeko da helburua. Abantaila berriak ematen zaizkio enpresariei, baina batez ere, erreformaren benetako funtsa sindikalismoak eta langileok jarri ditzakegun muga eta oztopoak gainditzea ziurtatuko dien baliabideak ematea da.

(56) Sektore publikoari dagokionez, esan dugu jada Estatu Espainiarreko gaitz endemikoa dela bere garapen eskasa, inbertsio eta gastu publikoaren gabezi nabarmena. Ez ditu sekula zerbitzu publikoak benetan garatu eta ez du sekulan garapen eredu sendorik bultzatu. Aurrena da langabezia Europako beste herrialdeei begiratuz gero, azken postuetan gastu sozialean. Ez da krisiaren ondorioa, ezta gutxiago ere, bere bilakaera historikoak markatu duen errealitatea baizik.

(57) 80. hamarkadan lehenbiziko pribatizazio prozesu bortitz bat burutu zen industrian, energian, telekomunikazioetan eta, oro har, kudeaketa publikoa zeukaten sektore produktiboetan. Honela, sektore publikoa jendartearen oinarrizko premiak asetzerantz murrizturik gelditu zen eta herritarren begietara sektore publikoa funtzio bakar hau edukitzera pasatu zen. Krisi honetan egiten ari den pribatizazio prozesu bortitz eta ezkutua herritarren bizi baldintzetan oinarrizkoak diren eremu hauek ditu jo puntuan, hain zuzen: osasuna, hezkuntza, zaintza eta prestazioak.

(58) Pentsio sistemaren erreforma greba orokor batekin salatu genuen. Baina erasoak ez da hor geratu: osasun sistemak aurrerantzean eskaini eta ziurtatuko dituen zerbitzuen zerrenda murriztuko dute eta kopagoaren arriskua begi bistan daukagu. Hezkuntza sistema publikoaren kalitatea nabarmen okertzen ari diren murrizketak inposatzen ari dira eta zaintzaren eremuan kokatzen den guztia bermatzeari utzi diote. Ez da hori bukatzen zerrenda, justiziara ere zabaltzen da erasoak. Lanpostuak suntsitzen eta lan baldintzak okertzen ari dira. Horrek guztiak zerbitzuen kalitatean dituen ondorioekin. Baina are eta gehiago, zerbitzu publikoen garapena debekatu egin dute lege bidez.

(59) Erreforma konstituzionalak eta estabilitate legeek politika hauek derrigorrezkoak egin dituzte. Agindu konstituzionala da zor publikoa ordaintzea eskubideen eta herritarren ongizatearen gainera. Sistema finantzarioak bermeak exijitzen ditu finantziarioaren iturria berriro irekitzeko eta ez da nahikoa gaurko klase politikoak bere eskakizun guztiak betetzea. Markoak berak ziurtatu behar ditu badaezpada noizbait bestelako bide bat hartzeko prest dagoen alternatiba politikoa indartzen eta nagusitzen bada edota presio sozialaren aurrean amore ematen duen arduradun instituzionalik badago. Sistemari buruz egin dugun gogoetan esan dugu legitimitate krisia sakontzen ari dela eta horrek etorkizunean zein bilakaera izango duen benetan kezkatzen duela.

(60) **Estatuaren birzentralizazio prozesua.** Autonomien estatuaren gaineko eztabaida zabalik dago. Ekonomikoki bideragarria ez delakoan eta instituzio ezberdinen funtzionamendua hobetu eta duplizitateekin amaitu behar delakoan, Estatu zentralizatzen ari da PP. Inboluzio prozesu argi bat ematen ari da krisiaz baliatuz eta "neurri ekonomiko mozorratu", marko kompetentzialen gainetik eta lurralde ereduari buruzko inolako eztabaida demokratikorik gabe. Krisialdia aprobetxatzen ari da, beraz, erabaki propioak hartzea galaraziko digun LOAPA moduko prozesu antzeko bat egiteko, gure etorkizun politiko eta ekonomikoa ezinbestean Estatuari loturik gelditu dadin. Kapitalaren interesa ez ezik, Estatuaren interes politikoa ere badago atzean, prozesu independentista oro ekiditeko xedez.

(61) Lurralde eredu guztiz lotua dago eredu ekonomikoarekin. Marko juridiko politikoaren funtsa eredu ekonomikoak garatzeko bitartekoak ziurtatzea da sistema honetan. Hortaz krisi honek ezinbestez ekartzen du markoa berrikustea, marko juridikoa krisiaren aurrean egin nahi den bidearen mesedetan jartzea.

(62) Estatu espainoleko krisi ekonomiko eta instituzionalaren testuinguru honek are argiago uzten du Euskal Herriko lurraldearen zatiketan eta eskuduntza menpekotasunean oinarritzen den marko juridiko-instituzionalaren baliorik eza.

(63) Bukatzeko, ezinbestez begiratu behar diogu Europari PPren gobernuaren politikak izango direnak ulertzeko. Europa berrantolatzen ari da eta Estatu espainiarra botere guneetatik zeharo kanpoan geratzeko arriskua benetakoa da. Bi abiadurako Europaz hitz egiten dute eta Estatu espainiarrak behar den guztia egingo du erdigunetik ez erortzeko. Horretarako Alemaniara begiratu behar da eta Merkelen aginduak bete behar dira.

1.6. Euskal Herriaren etorkizun ekonomiko eta politikoa arriskuan

(64) Gai soziolaboretan dugun eskuduntza faltak eta bi Estatu erabakien menpe egoteak eragin kaltegarriak ditu gurean. Estatuak finkatzen dute lan harremanen eredu eta horretaz baliatu dira bertako enpresariak prekarietatean oinarritutako lan merkatua ezartzeko.

(65) Euskal Herria elkartuta potentzial eta etorkizun ekonomiko izan dezakeen Herria da. Egungo egiturek eta politika sozioekonomikoek berriz (ordenamendu juridiko administratiboa, jarduera sozioekonomikoa, mugikortasun politiko eta formatzaila...) elkarrengandik urrundu eta berezitu egiten gaituzte. Erronkaz beteriko testuinguru honetan, LABi eta Euskal Herriaren alde egiten dugun eragile politiko eta ekonomikoei, dinamika hau aldatzea eta borrokatzea dagokigu.

1.6.1. Hego Euskal Herria. Ezaugarri propioak gorabehera, krisiak betebetean jota

(66) Krisiaren ondorioak eta bere abiadura ez dira berdinak izan Hego Euskal Herrian Estatu egoerarekin alderatuz gero. Baina krisiak bere bidea egiten jarraitzen du eta errealitatea gailentzen ari da.

(67) Bertoko garapen ereduak ezaugarri propioak izan ditu eta horrek baldintza hobekak eskaini ditu krisi finantzarioaren berehalako ondorioen aurrean. Egia da bertoko ekoizpen ehuna orekatuagoa dela, industriak pisu handiagoa duela tradizio industrial



luzea dagoelako eta 80. hamarkadako birmoldaketa bortitzek espezializazio teknologiko handia ekarri zutelako. Hala ere, Euskal Herriko lurralde guztietan neoliberalismoak zuzendu ditu azken hamarkadan egindako politikak eta azken urteetako garapen ereduak, burbuila lehertzeak eta aurrekontuak murrizteak bere ondorioak izan ditu hemen ere, emaitza berdinekin.

(68) Merkatuen mundualizazioak, lanaren nazioarteko banaketak eta jarduera ekonomikoa mundu mailan berrantolatzeak kapital transnazionalaren interesei eta internazionalizazioa helburu duten enpresa estratēgiei erantzuten diote. Ondorioa industriak pisu asko galtzea ekarri duen deslokalizazio-berlokalizazio prozesu sakon bat izan da.

(69) Eta botere publikoa hemen ere jarri da kapitalaren esanetara. Merkatuaren esku utzi dute jarduera ekonomikoa antolatzeako eginkizuna. Lehenengo urratsa sektore publiko industrialara suntsitzea izan zen eta hurrengoia industria politika aktiboak egiteari uztea. Iniziatiba pribatuaren eskutan utzi dute instituzioek jardueraren planifikazio estratēgikoa, multinazionalen esku beraz. Gobernuen esku hartze bakarra inbertsioak ekartzeko baldintzak sortzea izan da beraz: enpresei zergak kentzea, lan merkatua malgutzea, soldatak lo-tzea, nahi hainbesteko dirulaguntza publikoak ematea eta garraio azpiegitura sare erraldoi bat eraikitzea. Enpresek eskatzen zituzten baldintzak betetzea beti langileen eta herritarren kaltetan.

(70) Erainkuntzaren pisua asko indartu duen hazkunde ekonomikoren atzean dauden bestelako arrazoi-zen artean bi azpimarratu ditzakegu. Batetik kredituak eskuratzeko erraztasun ikaragarriak egon direla. Honek, egon diren aldaketa demografikoekin batera, asko handitu du etxebizitzaren eskaera. Eta bestetik, obra publikoa handia egon dela azpiegitura erraldoiak egiteko politika ankerrari esker.

(71) Desarrollismoaren aldeko apustua, ekonomiaren tertziarizazioarekin gertatu bezala, ez da Madrileko inposaketa. Horren aldeko apustu politikoa egin dute Hego Euskal Herriko patronalek eta instituzioek. Garapen eredu hau ezarri da, horrela egin nahi izan delako.

(72) Teknologia, berrikuntza eta formazioa dira garapen eredu sano eta indartsu baten ardatz nagusiak, behar beharrezkoak nazioarteko merkatuan lehiatzeko. Baina ikusten dugu ez dela hori azken urteetan bultzatutakoa.

(73) Lan kostuak murriztea nagusitu da benetako inbertsioaren kontra. Hobetuzekin gertatu zena guztiz adierazgarria eta erabakigarria da. Langileen formakuntza ezinbestekoa dela errepikatzen dute krisiaren aurrean baina benetako formakuntza eredu bat eraikitze bidea indargabetu zuten ez dagoelako inolako interes errealik horretan.

(74) Estatuak finkatzen du lan harremanen eredu eta horretaz baliatu dira bertako enpresariak prekarietatean oinarritutako lan merkatua ezartzeko. Hego Euskal Herriko patronalak joko bikoitzera jokatzeari utzi behar dio. Ezin da aprobe txatu Madriletik datozen erreformatz eta, aldi berean, Hego Euskal Herrian bake soziala nahi izatea; ezin du bilatu interes partikular eta berehalakorik eta, aldi berean, euskal ehundura produktibo eta sozialaren garapenean inplikatzeko dela esan. Arazoa berdina da. Lehiatzeko gaitasuna prezioetan kokatuz eta horretara mugatuz ez dago lan kostuak murriztea beste biderik. Beraz langileria eta herritar-rrak pobretzen ari dira hemen ere. Baina gainera guztiz agortua dagoen bidea da hori, guk baino gehiago eta merkeago produzitzen duten herrialde boteretsuak daudelako.

(75) Ez dugu industria eremura mugatzen den azterketa egin nahi gainera. Hamarkadetan luzatzen ari den eredu desarrollistak bide bazterrean utzi ditu garapen zuzen eta egoki baterako ezinbestekoak diren nekazaritza, arrantza eta abelzaintza. Landa eremua arriskuan jartzen duten azpiegitura, garraio eta etxebizitza politikak garatzeak egoera guztiz okertu du gainera. Honetaz gain, lehen sektorea ekonomikoki zein sozialki garatzeko politika eraginkorrik ez da burutzen instituzioen aldetik.

(76) Gure etorkizun ekonomikoa arriskuan jartzen duten egiturazko arazoak sortu dituen garapen eredu bat dugu beraz. Eta ondorio ekonomikoa larriak izanik, are eta larriagoak dira eredu honen kostu eta ondorio sozialak ondoren aztertuko dugun bezala.

(77) Euskal Herrian krisia ez da eratorria beraz. Bertoko eredu ekonomiko eta sozialaren gaitz estrukturala da. Gure etorkizun ekonomiko eta politikoa arriskuan jartzen du eta nola ez, langileriaren eskubide guztiak auzitan.

1.6.2. Ipar Euskal Herria. Menpekotasuna nagusi

(78) Ezagutza eta burujabetza falta dira Ipar Euskal Herriko egoera sozio ekonomikoan eragina duten bi elementu nagusi adierazgarrienak. Eta Ipar Euskal Herria subjektu gisa ezagutua izanen ez den bitartean, ondorio larriak jasanen ditu.

(79) Ezagutza faltak ez dio molde koherentean antolatzeke gaitasunik ematen, desorekak eta menpekotasunak sortuz, barnealdearen eta kostaldearen artean besteak beste. Halaber, bere osotasuna mehatxatua da, Euskal Herriko barnealdeko Xiberoga gero eta gehiago Biarnoari ari zaiolako lotzen, Landetako hegoaldea kostaldeari lotzen zaion gisa berean.

(80) Burujabetza ezaren ondorioz, kanpoko interesei erantzuten dieten politika ekonomikoak aplikatzen zaizkio Euskal Herriari, lurraldetik kanpo erabakiak. Erabaki gune hurbilena Akitania eskualdean kokatzen da. Bide beretik, mugaz bi aldeetako harremanak ez dira bi lurralde hunkituetakoko biztanleen interesen arabera, baizik eta bi Estatuaren interes politiko eta ekonomikoen arabera (AHT kasu). Ondorioz, Ipar Euskal Herria estatistikoki, administratiboki eta ekonomikoki izaerarik gabeko ekoizkin turistikoa izatera kondenatu nahi dute.

(81) Frantses Estatuak krisia borrokatzeke eraman duen estrategia, kapitalaren eta finantza arloaren eskakizunei erantzutea izan da. Batetik, zerbitzu publikoen eraspen politika jarri da martxan, merkatuaren logika eta pribatizazio progresiboa sorraraziz. Bestetik, zerbitzuen birkokapen politika daramate, beti ere errentagarritasun gehiago lortze bidean.

(82) Ipar Euskal Herriko sare sozio-ekonomikoa menpekotasunean bizi da beraz. Ez badira Euskal Herri mailako hausnarketa perspektibak eta politikak bertan obratzen, sare ekonomiko endogenoa hedatzea biziki zaila edo ezinezkoa izanen da. Industria sektorean ez da lantegi proiektuen inolako planifikaziorik burutzen. Ondorioz, ezarpena neurrigabea da, ingurumen, demografian eta bizitegien arloetan arazoak sortaraziz. Lurraldearen oreka sozio-ekonomikorako garrantzitsua den laborantza sektorean, etxaldeen transmisioaren eta lurren jabetzen arazoak dira erronka nagusiak. Euskal langileek (ELB, EHLG, BLE...) PAC politika suntsitzaileari aurre egiten diote, laborantza arrazoinagarria garatuz eta kalitatearen zein banaketa zirkuitu laburrak bultzatuz, etxaldeak iraunaraziz. Azkenik, zerbitzuen eta merkataritzaren sektorea, sektore garatuena da gaur egun. Sektore hau, gehienbat turismoari lotutako sektorea da, eta osasunean zein pertsonen zainketan sektore indartsuak ditu.

(83) Elementu ezkor guzi hauei, formakuntza baitan masiboki kanpora doazen gazteen fenomenoak gaineratu behar zaie. Alde batetik, ez dagoelako formakuntza osorik eskaintzen duen unibertsitatearik, eta bestetik, trebakuntza erdietsirik ere, ez dagoelako lanpostu kalifikaturik.

(84) Ipar Euskal Herria egitura politiko gisa ezagutua ez izateak klase sozialen arteko harremanetan ere eragiten du. Negoziazio kolektibo gune guztiak Euskal Herriko kanpo daude eta Ipar Euskal Herria ez da hauteskunde barruti gisa aitortua, beraz, ezinezkoa da jakitea zein den ordezkariak sindikalak. Erreforma orokorrak interprofesionalak dira, Estatu mailakoak, eta ez diete ez lurraldearen ez eta euskal langileen beharrei erantzuten.



(85) Hau guztia kontutan hartuta, Ipar Euskal Herriko eremu Sozioekonomikoa eta Negoziazio Kolektiborako Gunea lortzea ezinbestekoa dugu.

1.6.3. Euskal langileriaren egoera larriagoturik

1.6.3.1. Pobretze orokorra eta bazterketa sozial arriskua

(86) Krisi ekonomikoaren testuinguruan kapitalismoak garabidean zuen ildoaz azkartu du. Mozkinak handitu eta aberastasuna pilatzeko dinamikak sakoneko egoera eraldatzen ari da, orain arte ezagutzen genituen arazoak handituz eta gordinduz.

(87) Aberastasuna gutxi batzuen eskuetan neurrigabe pilatzeko joera aspaldikoa bada ere, orain, aldiz, joera hori biderkatu egin da, nolabaiteko orekari eusteko irizpideak baztertu direla. Soldatak murrizteko lasterketari ekin diote eta eros ahalmena modu orokor eta ikusgarrian jaisten ari da. Halaber, soldata altuen eta baxuen arteko aldea handitzen ari da. Esaterako, 2002-2008 artean errenta altuenak %114an hazi ziren (Bizkaia aberastasun gehien kontzentratzen duen herrialdea da, %126rekin), soldata eta pentsioen eros ahalmena gutxitu den bitartean. Halaber, EAEko populazioaren %1,67k, aberastasunaren %44,78 kontrolatzen du. Aldiz, populazioaren %8ak hileko 500 euro baino gutxiagoko diru sarrerekin bizirautean du. Eta %36,33 pobrezia mugatik behera dago.

(88) Honekin batera, langabezia tasen hazkunde historikoa ezagutzen ari gara, aspaldian ez bezalako pertsona kopurua lan gabe dagoelarik. Hau, gainera, babes sozialerako baliabideek ere murrizketa erraldoia jasan duten garaian gertatzen da. Inolako prestaziorik jasotzen ez duen langabetuen kopurua ikusgarri handitu da.

(89) Kolektibo batzuk, gainera, egiturazko langabeziara kondenatu ditu sistemak. Langabezia ez da horientzat trantsizio egoera bat, baizik eta egoera iraunkorra, egiturazkoa. Kolektibo hauen artean daude, esaterako, 50 urtetik gorako emakumeak eta kualifikaziorik gabeko langileak (horien artean asko, urteetako lana galdu duten gizonak). Egiturazko langabezia hau lehen mailako arazo soziala da egun Euskal Herrian.

(90) Enplegu suntsiketak eta langabeziaren igoerak ez dio, errealki, ekonomiaren beharrei erantzun, enpresarien mozkinak handitzeko joerari eta zerbitzu publikoetan ezarritako murrizketei baizik. Kapitala egungo egoerari, egungo etekinari baino ez dago begira. Langabezi tasa handiak eragin dira berehalako mozkinen eusteko edo handitzeko.

(91) Ez da neurririk hartzen ari langabeziari aurre egiteko. Langabezia erabiltzen ari da, instrumentalizatzen ari da, paktu publiko-pribatu baten bitartez. Alde batetik, langabetuak bizi osorako langile prekario kolektibo izatera kondenatzeko eta, bestetik, langabetuek "lan komunitarioak" esklabutza erregimenean burutzeko.

(92) Bereziki larria da gazteen egoera: langabezia tasak eta lan duina eta finkoa izateko baldintzen kaskartzek belaunaldi oso bat, gazte garaian ez ezik, bizi osoan ere, prekaritatean bizitzera zigortzen du. Prestatutako euskal langile gazte asko atzerirako, emigrazioarako bidea hartzen ari da.

(93) Langileen pobretzearen beste irudi batzuk ere azpimarratu behar ditugu: Gutxieneko Soldata Interprofesionala pobreziaren mugaren azpitik kokatua dago, langabezia prestazioak ere ildo berean kokatzen dira eta pentsionista gehienek bizirauteko arazoak dituzte. Era berean, osasun eta irakaskuntza zerbitzuen pribatizazioa, garraio publikoaren garestitzea eta oro har zerbitzu publikoen murrizketa, pobrezia sendotzen duten elementuak eta aberastasunaren banaketa desorekatuaren adibide dira.

(94) Euskal jendartearen egiturazko pobrezia deitu dezakeguna etengabe hazten ari da. Egiturazko pobreziaren ezaugarri bezala azpimarratuko genituzke lan egonkorraren, etxebizitzaren eta modu duinean bizirauteko diru iturrien falta, zorpetze maila altuagoarekin batera. Harrigarria gerta badaiteke ere, egun euskal jendartearen heren bat dago egoera horretan.

(95) Emakumeek egoera honen guztiaren eragina bortitzago pairatzen dute. Oraindik ere emakumeen langabezia tasa handiagoa da eta aktibitate tasa txikiagoa. Azken urteetan emakumeak lan mundura sartu dira, baina gauza jakina da ez dela aukera berdintasunean izan. Diskriminazioa egoten da lan mundura sartzekoan eta behin lan mundura sartuta ere: soldata baxuagoak, prekariedade handiagoa eta promoziorako aukera gutxiago. Desberdintasun egoera honetan iritsi da krisia eta honen aitziarekin langileen aurkako eraso berriak. Langile klase osoaren aurkako erasoak dira; hala ere, ondorio larriagoak izango dituzte lan munduan aukera berdintasunean ari ez diren kolektiboen artean.

(96) Beraz, lan prekariedade jasaten dute, lanaldi bikoitzen ondorioak pairatzen dituzte, pobrezia tasa handienak bizi dituzte, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagokak dituzte, soldata diskriminazioa... Azken finean ekonomikoki eta sozialki baztertuta izateko aukera gehiago izaten dute emakumeek.

(97) Egoera honetan, bazterketa soziala jendarte esparru gero eta zabalagoetara hedatzen ari da. Adierazgarriena fenomeno honen berkonfigurazioa dela aipatu genezake. Orain arte bazterketa sozialaren arriskua batez ere lan mundutik kanpo gelditzeak ekartzen bazuen ere, joera aldaketa suertatzen ari da. Gaur egun enplegua izateak ez du bermatzen pobrezian ez egotea, hori dela eta, gero eta langile gehiago, aktiboan egon arren, pobrezia mugaren azpitik daude.

1.6.3.2. Langile klaseak berrosatu eta subjektu izaera berreskuratu behar du

(98) **Prekariedadearen ondorioak langile klasearen desegituraketan.** Prekariedadea zapalkuntza baliabidea da kapitalarentzat. Egonkortasun irizpide oro ezabatzeak langileengan sortzen duen ziurgabetasun egoerak eta ahuleziak bere intereserako probesten du klase borrokan: lana dutenei, lanaldiaren zabalpena, soldaten murrizketa eta malgutasuna ezartzen zaizkie, azpikontratazioa orokortu egiten da, behin-behinekotasuna erabat zabaldua dago eta aldi berean oso ohikoak dira jada iraupen laburreko kontratuak (ordu gutxitakoak ere bai). Bestalde, kaleratzeen merkatzea bideratzen ari da, enpresariei kostu hori gutxitze aldera.

(99) Prekariedade laboral eta sozialaren beste ondorio bat familia tradizionala deitu dezakegun horretara berriro jotzeko arriskua daukagu. Izan ere, esplotazio laboralean eta zerbitzu publiko eta sozialaren suntsiketaren oinarritzen den ereduaren funtzionamendurako, ezinbestekoa egiten zaie berriro ere emakumeek guztiz eustea ereduak suposatzen duen kostu sozial osoa. Hau da, zerbitzu publikoek bermatu behar dutena emakumeen bizkar utzi. Honetarako, aldi berean, lan merkatu barruan posizio are menpekoago bat gordetzen ari da espreski emakumeentzat: jardunaldi partzialak, lana etxetik burutzea eta soldata are eskasagoak, emakumeen enplegua etxera sartzeko soldataren laguntzara murriztu dadin. Langile klasearen erdia lan mundutik aldentzen ari dira praktikan.

(100) Lan egiteko baldintzetan presio mekanismoak areagotzen ari dira, langileen kaltetan. Indibidualizazioa indartzen ari dira lan harremanetan lan eredu berriak ezarztearen bidetik, langilearen isolatzea bultzatuz kolektiboarekiko, lan erritmo oso intentsuak behartuz. Honek guztiak klase harremanen desitxuratzea eragiten du. Desitxuratze honetan indar ideologiko handia egiten ari dira kontraesanak eraginez langile klasean. Gainera, kapitalak langileak esplotatzeaz gain, hau guztia ahalik eta erraztasun gehiagorekin egitea bilatzen du eta langile klasearen zatiketa langile kontzientziaren ahultzea xede estrategikotzat du.



(101) Lan egiteko eredu hauek ondorio zuzena dute langileen osasunean. Kapitalismoak arestian aipatu ditugun lan eredu eta lan erritmo berrituekin, lan gaixotasun berrien sorrera eragin du, bereziki estres eta antsietatea oinarri dutenak. Ez dugu erlatibizatu nahi beste garai batzuetan lanak eragin duen gaixotasun eta sufrimendu maila, baina azpimarratu nahi dugu egun geroz eta pertsona gehiagok sufrimenduz bizi dutela euren lana, eta hau dimentsio handiko arazo sozial gisa ikusi behar dugu.

(102) Gainera azken lan erreformak bajak hartzeagatik kaleratzeak errazten ditu. Honek jendea, kaleratzeko mehatxua gainean duela, gaixorik lan egitera joatea suposatuko du. Jada gertatzen den eta komunikabideek estaltzen duten arazo hau areagotuko da.

(103) **Klase kontzientzia indartzeko premia.** Oso hedatua dago langileriaren artean “erdiko klasekoaren” pertenezien ideia. Eta hau bereziki kezagarria da gazteen artean. Izan ere belaunaldi bakar batean Euskal Herriaren sare sozio-ekonomikoan aldaketa sakona gertatu da: estrategikotzat jotzen zen sektore industrial sendoa baztertu eta zerbitzuen sektorea oinarri izatera igaro da. Zerbitzu sektorearen baldintza prekarioek eta lan zentroen sakabanaketak klase fragmentazioa eta indibidualizazioa bultzatu dute; era berean, industria sektorean enpresa laguntzaile zein azpikontraten ugaltzeak honetan lagundu du.

(104) Abiadura bizian gertatu diren aldaketa horietan, langileek beren klase izaera osoan euren burua eza-gutzeko arazoak dituzte. Norabide horretan ari da kapitalismoa, klase kontzientzia ahuldu eta desitxuratzeko asmoz. Paper garrantzitsua betetzen dute honetan bai masa komunikabide nagusienek, bai eta hezkuntza sistemak, egiten duten lan ideologikoaren bidez.

(105) Langileriaren zatiketaren ondorio perbertso bat langile konfrontazioa da, krisialdian areagotzen ari dena. Patronalaren kontrako borrokari ekin ordez, beste langile multzo batzuk kokatzen dira askotan jo puntuan. Horrela gertatzen da, esaterako, etorkinekin edota desgaitasunak dauzkaten langileekin; era berean, langabetuak/enplegu duten langileak, gizon/emakume langileak edota funtzionarioak/sektore pribatuko langileak elkarri mokoka jartzea lortzen du kapitalak.

(106) Objektiboki esan dezakegu Euskal Herrian langile klasea egon badagoela, populazioaren gehiengoa langileak garelarik. Objektiboki esan dezakegu era berean, klase borroka emateaz gain, indartsu ematen ari dela Euskal Herrian, aurretik esan bezala modu bortitzean ematen delarik gainera. Baina, halaber, objektiboki esan dezakegu klase kontzientziarekiko identifikazio falta kapitalismoaren kontrako borroka iraunkorra garatzeko oztopoa dela.

(107) Ofentsiba orokor baten erdian gaudela, premiazkoa dugu langile klase kontzeptua bere osotasunean berreskuratu eta indartzea. Hau da, Euskal Herrian bizi den eta lan egiten duen orok osatzen duela euskal herri langilea, kapital errentetatik eta langileriaren esplotaziotik bizi den klaseari kontrajarririk: enplegua daukaten edo langabezian dauden langileak, etxeko lanetan aritzen diren langileak –soldatapean izan ala ez-, autonomo moduan aritzen direnak, kooperatibistak e.a.

(108) Kapitalak langile klasearen zatiketa eta asimilazio prozesuaz objektu huts bihurtzeko helburua dauka, beraz, langileria berrosatzeaz gain, ezinbestekoa da subjektu izaera ere berreskuratzea eta indartzea. Langile klasea subjektu gisa indartzeko bi oztopo azpimarragarriak lan harremanak kudeatzeko eredu berriak eta prekaritateak sortzen duen beldur eta asimilazioa dira. Hemendik aurrera, gainera, lan harreman eredu errotatorioak (hilabete batzuk lanean, beste batzuk langabezian) eragin handia izango du klase kontzientzian.

(109) Klaseen arteko harremana ekonomiaren ikuspuntu hutsetik ezin dugu ikusi. Egitura politikoa, mende-baldeko estatu burgesak klase desoreka ezartzen du eta egun, hori areagotzen ari dira: botere guneen urruntasuna, negoziaketa kolektiboaren ezintasuna, lan merkatuaren desarautzea eta estatuaren lege eta arauen moldaketa kapitalaren interesen babeserako, besteak beste.

2. Sindikalismoa krisiaren aurrean



(110) Sindikalismo osoa astindu du krisiak: are eta nabarmenagoa egin du guztiz agortua zegoen eredu sindikal paktuzalearen porrota; argi utzi du klase konfrontazioa antolatzea eta bideratzea helburu duen eredu sindikaletan dagoela krisi honi aurre egiteko aukera bakarra; eta inoiz ez bezala agertu da egoera ekonomiko eta sozial honen atzean dagoen krisi politikoak dituen ondorioak klase interesak defendatzeko eta kapitalari boterea borrokatzeko orduan.

(111) Gauzak honela, nabaria da Europako eremuan bi eredu sindikalen arteko talka suertatzen dela. Eredu sindikal hauek lehenago ere existitu dira, baina kapitalismoaren egungo krisiak euren ezberdintasunak gordinago azaleratu ditu.

(112) Alde batetik, sistema kapitalistari "itxura humanoago" a ematea helburu duen eredu sindikala dago, berau errotik kritikatu gabe. Eredu sindikal hau nagusi izan da Europar Batasunaren eraikuntza ereduarekin bat egin du eta aldeko bozka eskatu du galdeketa ezberdinetan, era berean zenbait eraso inperialistari babes politikoa eman dio. Beronen ezaugarri nagusia gaizki izendatutako "elkarrizketa soziala" izan denaren defentsa izan da, lantegi eta kale mailako mobilizazioa azken hamarkadetan bazterturik. Honekin batera, borroka sindikala zer edo zer isolatutzat hartu du, gainontzeko borroka sozialetatik aparte, eta gobernuen finantziatutako bizi izan da hein handi batean.

(113) Baina, honekin aurrez aurre, klase sindikalismo borrokalariaren oinarrituriko beste eredu bat ere badago. Sindikalismo mota honek, egungo egoerara ekarri gaituen sistema kapitalista errotik kritikatzeko duenak, Europar Batasuneko egitasmoaren garrantzi antisoziala eta langilearen interesen kontrakoa kritikatu izan du historikoki, eta bere ezaugarri nagusiak ondorengoak dira: borroka eta ekintza sindikalaren aldeko apustua egiten du, benetako elkarrizketa soziala borroka sindikalik gabe ezinezkoa dela azpimarraturik, mugimendu sozialekin harreman iraunkorra eta esperientzien elkartrukatzea sustatzen du, eta gobernuekiko autonomia eta independentzia osoa, ekonomikoa barne, aldarrikatzen ditu.

(114) Bigarren eredu honen erakusgarri nabarmena Europar Munduko Federazio Sindikala da (MFS-WTUF), eta, halaber, Europako hainbat sindikatu ezkertiar, federazio honetan ez egon arren. Esan beharra dago MFSko kidea den Euskal Herriko sindikatu bakarra LAB dela.

(115) LABetik uste dugu Europar etorkizun hurbilean klase sindikalismoa berregituratu behar dela kontinente mailan, aldaketa politiko eta soziala helburu izango duen Europa mailako erreferentzia sindikal ahalik eta eraginkorrena egituraturik. Premiazkoa da langileentzako benetako alternatiba eta sindikalismoari berrikuntzarako benetako ekarpena egingo dion erreferentzia sindikal internazionala. Horretarako beharrezkoa zaigu egungo Europar Batasuneko eredu kapitalistarekin kritiko garen sindikatu guztiek, izan ditzakegun ezberdintasun puntualak gainditu eta ekintza sindikalean eta irakurketa politikoan bat egitea.

2.1. Euskal sindikalismoa bidegurutze estrategikoaren aurrean

(116) Behin eta berriz aipatu ditugun eta egungo egoera markatzen duten ardatz nagusien (krisi ekonomiko eta prozesu politiko demokratikoa) arabera bidegurutze estrategikoan dago Euskal Herriko sindikalismoa. Egoerak sakoneko aldaketa bizi du eta, sindikatu bakoitzak hartzen duen posizio eta jarreraren arabera, agerian geratzen da bakoitzaren eskaintza estrategikoaren eta eredu sindikalaren baliagarritasuna.

(117) Hego Euskal Herrian txertatuta dagoen sindikalismo espainiarra eskaintza estrategikorik gabe ageri da euskal langileen interesak defendatzeko garaian. Langileen defentsaren gainetik Espainiar Estatuaren babesle gisa agertzen du bere burua, lurralde zatiketaren eta euskal langileriaren zatiketaren ardura ere hartzen duelarik. Halaber, bere eredu sindikal paktista eta menpekoak, krisiak sortu dituen egoera lazgarrienen aurrean erantzuteko ahalmenik ez duela eta agortuta dagoela erakutsi du. Kapitalismoak klaseen arteko harremanen erabateko aldaketa ezarri nahi du eta eredu sindikal horri aitortzen zitzaion funtzio sozial eta politiko txikiari ere bere espazioa agortu zaio, "bake soziala" negoziatzeko funtzio hutsa aitortuz.

(118) Ipar Euskal Herrian txertatuta dagoen sindikalismo frantsesak, espainiarraren aldean bestelako borroka jarrera bat erakutsi du, bi kultura sindikal desberdin direlako. 2010eko erretretaren legearen erreformaren inguruko 8 greba orokor izan dira 2 hilabetetan. Hala ere, frantses sindikatuek ez dute lortu borroka zabalak eta iraunkorrak behar ziren bezala antolatu frantses gobernua atzera egitera behartzeko. Baina, ikuspegi zentralista jakobinoa hainbeste nagusitzen da haien ildoa, ezen oztopo bihurtzen den euskal sindikalismoarentzat eta euskal langileriaren subjektua eratzeko. Oztopotzat jotzen dugu, Ipar Euskal Herriaren egitura-tzea baztertzen duelako eta estatu zentralaren negoziazio kolektiboaren arabera funtzionatzen duelako soilik. Halaber, erakutsi borroka jarrerak ezin du ezkutatu bestelako eredu alternatibo bat formulatzeko edota bultzatzeko ezintasun estrategikoa dutela (afiliazio tasak Europako baxuenetakoak dira, eta arrazoi ekonomikoen ondorioz izandako azken oldartze sozialak sindikatu gabeko sektoreek edo gehiengo sindikalarekin ezadostasuna agertu duten sindikalistek protagonizatu dituzte, sindikatuen gabeziak agerian utzita).

(119) Testuinguru honetan, eredugarria izan da euskal gehiengo sindikaletik krisiari eman diogun erantzuna eta hiru urtetan zehar egindako ibilbidea. Umiltasunez baina harrotasunez esan dezakegu Euskal Herria izan dela krisiari agenda sindikal propio batez erantzuna eman dion Europako estaturik gabeko nazio bakarra.

(120) Langileriaren gehiengoak bat egin du emandako erantzunarekin, euskal langileriaren gehiengoak bat egiten duelako bai konfrontazio eredu sindikalarekin bai eta aldarrikatzen dugun aldaketa premiarekin ere. Horrelaxe utzi du agerian greba orokorretan eta bestelako borroketan. Baina, era berean, erresistentzia fase batean borroka egin dugularik, langileriak erantzunetik harago, alternatiba eraikitzen hastea aldarrikatzen digu euskal sindikalismoari honezkerok, are gehiago Euskal Herrian alternatibarako baldintza sozio-politikoak badaudela jabeturik.

(121) Euskal sindikalismoa hautu estrategiko baten aurrean dago, bidegurutze estrategiko baten aurrean. Kapitalismoari erantzun eta borrokatu nahi izan dion eredu sindikal batez, kapitalismoaren esanei jarraituz estatuetatik datozen erreforma, murrizketa eta erasoei erantzuteko dinamika soilean murgiltzea, euskal markoaren aukera erreala suntsitzera datorren bidea dela kontuan izanik; edo, eman beharreko erantzuna bestelako eredu sozio-ekonomikoa eraikitzeke aukera eman behar digun prozesuan kokatzea eta, hortaz, prozesu horren garapenean lehen mailako eragile bezala parte hartuz.

(122) Esan gabe doa, edozein kasutan ere euskal sindikalismoak ere bere eredu sindikalak dituen hutsu-neeie edo egoera berri hauek agerian utzi dituzten gabeziei erantzuna ere eman behar diela, gure ereduak ere aukera estrategiko berriak eraikitzeke eta egungo eraso erraldoiei aurre egiteko bere burua eraldatu beharrean baitago. Onar dezagun sindikatuok langileengana iristeko, langileak antolatzeko, langile klasearen interesak modu eraginkorrean defendatzeko ditugun arazo eta gabeziak hor daudela eta egungo egoeran zorroztu egiten direla eta gure erantzukizunari hel diezaiozun euskal langileak subjektu moduan egituratzeko.

3. Euskal Herria aldaketa fasean



3.1. Egiturazko arazo berdina duen krisi bikoitza

(123) 2008an egoera politikoa zeharo blokeatuta ikusten genuen eta, aldi berean, gerora erabat bortitza eta sistemikoa agertuko zen krisi ekonomikoaren lehen enbata bizitzen ari baginen ere, egoera ekonomikoak gaurkoaren oso bestelako aurpegia zuen.

(124) Ordutik hona mugitu dena sakonekoa dela azpimarratu behar dugu, eta gertatzen ari den lurrikarak zer-nolako egoera utziko duen ikuskizun dago. Bistan da aipatu bi prozesuok (aldaketa politikoa Euskal Herrian eta eredu sozio-ekonomikoaren eraldaketarena) ez direla arrazoi berberengatik sortu eta egun osagai ezberdinak dituztela. Baina ukazina da egiturazko arazo berdina duen krisi bikoitzaz ari garela, biak Estatuak inposatutako eredu politiko eta ekonomikoaren kudeaketa hutsa egin izanagatik sortu direlako. Halaber, Euskal Herriak etorkizuna izango badu herri gisa eta langile eta herri sektoreok geure etorkizun politiko eta ekonomikoaren jabe izan behar badugu, Euskal Herrian burujabetza ardatz duen alternatiba politiko eta ekonomikoa nagusitu behar dugu.

(125) Euskal Herriari ezarri zaion eredu politikoa agorturik azaltzen da. Agortuta, bereziki Ezker Abertzaleak hamarkadetan egindako lan eta borrokarengatik. Esan dezakegu Euskal Herriaren kontrako asimilazio estrategia gainditu dugula eta aldaketarako baldintza sozial berriak sortu ditugula eta, halaber, aldaketarako nahia errotzen ari garela Euskal Herri osoan.

(126) Euskal Herriari ezarri zitzaion marko politikoak ez du gehiagorako ematen. Autonomismoan oinarritutako estrategia agortua dago, eta egoera horren aurrean eskaintza estrategikorik ezean, estatuak hartutako blokatze eta ilegalizazio neurriak gainditzea lortu dugu. Kontuan izan behar dugu Estatu Espainolak egiturazko krisia bizi duela, autonomien estatua bideraezina delako politikoki zein ekonomikoki, eta bere burua berrantolatzeko eztabaida termino ekonomiko hutsetan mantendu nahi dute kostu politikorik ez izateko.

(127) Aldaketa orokorreko testuingurua bizi dugula azpimarratu behar dugu. Izan ere, krisi ekonomikoak ezagutzen dugun ereduaren erabateko aldaketa behartzen du. Estatuak zentralizazio eta ukazio politikoaren bidean sakatu du. Eta, honek guztiak ezinegon eta haserre sozialaren hazkundera bultzatu du. Azpimarratu behar dugu, krisi politikoaren eremuan Ezker Abertzaleak ekimena lortzen asmatu badu ere (hamarkadetako borrokaren kapitalizazioari esker), eremu ekonomikoan kapitalak duela ekimena. Aldaketa sozialerako baldintzak sortu ditugu, ordea, eta aldaketa hori proiektu independentistarekin ere lotzen ari da, baina kapitalaren alienazio estrategiaren sakonari indar osoz aurre egin gabe.

(128) Zalantzarik gabe, gatazka politikoaren konponbidearen prozesuan lurralde egituratzearen eta herriaren hitza eta erabakiaren gaiek zentraltasuna hartuko badute ere, Euskal Herriaren bideragarritasun ekonomikoaren eta Euskal Herrian ezarriko den

eredu sozio-ekonomiko berriaren auziak lehentasunezko gaia bereganatu behar du, aldaketa prozesuak berak arrakasta izango badu.

(129) Gatazka eremu erabat politiko eta demokratikoan kokatu eta irabazteko testuingurua sortu du Ezker Abertzaleak. Aitzitik, Euskal Herrian estatuekin ematen ari den konfrontazioa (maila sozial eta ekonomikoan, eta ondorioz esparru horiei lotzen zaion maila politikoan ere) oraindik modu orokorrean egituratu gabe dago.

3.2. Egoera berriaren ondorio nagusiak. Lurrikara ekonomiko eta politikoa

(130) Euskal Herrian prozesu demokratikoa zabalik da. Euskal Herriak nazio bezala bizi duen ukazioa eta zati-keta era demokratikoan gainditzeko ibilbidea da guretzat prozesu demokratikoa. Alegia, Euskal Herriaren onarpena eta bere hitza eta erabakiarekiko begirunea. Euskal Herrian aldaketa politikoa gertatuko da, egungo marko zatikatzaile eta ukatzailearen iraupena ezinezkoa delako. Alabaina, prozesuaren norabide eta emaitza guk nahi duguna izateko gako estrategia egokiaren baitan izanen da.

(131) Prozesu demokratikoa hainbeste borrokatu eta aldarrikatu ditugun aldaketak burutzeko bidea izango da, beraz. Aldaketa politikoak burutzea izango da bere emaitza. Eta bestelako eredu sozioekonomiko bat ezartzeko aukerari ateak zabaldu behar dizkion prozesua izan behar duelarik, ezinbestez erantzun beharko dio aldaketa sozialak burutzeko euskal jendartean dagoen borondateari.

(132) Aldaketa horrek arrazoi ezberdinengatik gertatutako lurrikara politiko eta ekonomikoaren aurrean emaitza bakarra ekarriko du. Prozesua bakarra izango da. Eredutik krisian da, baita eredu sozioekonomikoa ere. Jatorri ezberdineko krisiak izanagatik, soluzioa eredu bakarrean gorpuztuko da. Eredutik politikoen oinarri ekonomikoa izaten dute, eta eredu horiek apustu ekonomiko baten sostengu izaten dira. Beraz, krisi ekonomikoaren kudeaketa edota irteera, eta egituratzen den eredu sozio-ekonomiko berriaren izaerak Euskal Herriko marko juridiko politikoaren ahalmena eta izaera erabat ezaugarrituko dute.

(133) Aldaketa politikoa gauzatzeko aukera hau Ezker Abertzaleak bere osotasunean abiatutako ekimen eta estrategia politiko berriaren duen abiapuntua. Aurreko hamarkadetakoa lan eta borroka ahalbidetu duen ekimena. Bereziki, ETaren alde bakarreko konpromiso eta ekimenak erabakigarriak izan dira gatazka armatua gainditzeko bidean jarri eta estatuen itxikeria auzitan jartzeko. Urrats horiek, blokeatze politikoa gainditu eta bestelako mugimenduak eta konpromisoak eraikitzea ekarri dute esparru guztietan.

(134) Egin ditugun urratsak ez dira txikiak izan. Aieteko Konferentzia mugari izan duen bidea egin dugu nazioartean zuzenean parte hartu dezan euskal gatazkari konponbide demokratikoa emateko ahaleginetan. Konponbide prozesua bideratzeko ibilbide orria finkatua dago orduz geroztik, eta martxan dira zailtasunez jositakoa izango den bidea egiten lagunduko duten nazioarteko bitartekoak.

(135) Baina Euskal Herrian eta euskal eragileon ekimenez egin ditugu aldaketaren bidea egiteko ezinbestekoa dugun konponbidea eraikitzeke urrats garrantzitsuenak. Gernikako Akordioa da nagusia, konponbiderako prozesuan ez ezik, konponbidearen oinarri eta ardatzetan bat egin dugulako eragile gehienok. Gatazka politiko eta armatua gainditzeko bitarteko indartsu bat eraiki dugu akordio bidez, konponbidearen aldeko konpromiso erabakigarriak hartuta konponbide definitibo bat eraikitzeke aukera historiko honen aurrean.

(136) Panorama politiko berriaren indar politiko, sindikal eta sozialen birkokatze estrategikoa gertatu da eta gertatzen ari da oraindik ere. Indar politiko independentista eta soberanisten eremua egituratze bidean dago. Lankidetzaren horrek Euskal Herrian maila instituzional eta politikoan kontraboterea eraikitzeke alternatiba gorpuztu behar du.

(137) Halaber, alderdi espainolisten birkokatzea ere ikusi ahal izan dugu. Gasteizen eta Iruñean, PSE-PP eta UPN-PSN akordio eta gobernuek, estatu arazoaren eta strategiaren beharri erantzun diote. Herri boron-

dateari harresia ezarri eta proiektu espainolista Euskal Herrian ezartzeari lehentasun eta larritasun osoa eman diote. Era berean, Estatu frantsesaren berrantolatzearen inguruko eztabaida eta neurriak ere Euskal Herriaren ezagutza estatuaren izaeran diluitzera zuzenduta doaz.



(138) Bidegurutze honetan, PNVk zuzendu eta elikatzen duen erregionalismoa (GeroaBai marka ia bereganatu duelarik ere) betiko parametroetan kokatu da. Eskaintza estrategikorik gabe, Ezker Abertzalearen onarpen formala egiten du, Estatuaren aurrean bere beharra justifikatzeko, jarraian estrategikoki bere aldean lerrokatzeko.

(139) Konfrontazioaren parametroak argitzen ari dira, Euskal Herriaren aldekoen eta estatuaren aldekoen artean eta argitze horretan sakonduko dugu. Alabaina, krisi ekonomikoak dakarren ereduaren berrantolatzearen eremuan, klase eta kapitalaren araberaren egin beharreko argitzea ez dago erabat definitua.

(140) Krisi ekonomikoari aurre eginez langileriaren gehiengoak gako abertzaleetan planteatutako erantzunarekin bat egin du, azken ziklo honetan egondako 4 greba orokorretan eta dinamika mobilizatzailean ikusi ahal izan dugun bezala. Euskal Herrian bestelako eredu sozioekonomiko bat, burujabetza oinarri izango duen alternatiba batean gorpuzteko masa kritikoa nahikorik dagoela ondorioztatu behar dugu. Euskal Herriko langileriak eta sindikalismoak Euskal Herrian eredu sozioekonomikoari herri gisa aurre egin beharra mahai gainean jarri dute.

(141) Ardatz honetan eragiteari begira gehiengo sozialak eraikitzea egiteke dugu. Horretarako ezinbestekoa da, batetik estrategia eraginkorra definitzea eta bateratzea bestelako sektore sozialekin eta, bestetik proiektu politikoaren lanketan estrategia integrala gauzatzeko bidean aurrera egitea.

4. Euskal estatu sozialistarantz urratsak azkartzeko sasoia



(142) Euskal Estatu Sozialista eraikitzea da gure proiektu estrategikoa Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesionatzeko. Euskal ekonomiaren kontrol politiko eta soziala eskuratzea ahalbidetu behar duen proiektua da, euskal ekonomia Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztien interes kolektiboen zerbitzura jartzeko proiektua, hain zuzen ere.

(143) Prozesu baten bidez eraiki beharreko proiektua da. Egungo estatu ereduaren aurrean bestelako alternatibak eskaini behar ditu jendarte antolatze, instituzio politiko eta sozialak ezaugarritzeko, gizon eta emakumeen benetako parte hartzea bideratzeko. Kultura eta hizkuntza eredu euskaldun bat eraikitzea ekarri behar du. Eta erabakiak hartzeko eredu demokratiko bat ziurtatzea izan behar da bere balio nagusia hor dagoelako benetako aldaketa gaurko Estatu ereduarekin alderatuz gero.

(144) Oinarri eta eduki sozial argiz jorratu behar dugun nazio eraikuntza prozesu baten emaitza izango da. Badakigu sozialismoa ulertzeko modu ezberdinak daudela eta korapilo asko askatu beharko ditugula eraikuntza prozesuan aurrera egiteko, baita aurrera egin ahala ere. Ez diegu proposamen teoriko edo abstraktu bat eskaini nahi euskal langileei. Gure Herriak dituen baliabide, aktibo eta zailtasunak aintzat harturik eraiki behar dugu gure proiektua, eta horien guztien gainean egin behar dugu eraikuntza prozesua.

(145) Horrela izanik, printzipio batzuk berretsi nahi ditugu, horiek izango baitira LABen erreferentzia nagusiak Euskal Estatu Sozialistara eraman behar gaituen eraikuntza prozesuan. Sozialismoak estatua langile klasearen zerbitzura egotea esan nahi du, ekonomiaren kontrol politiko eta soziala egon behar du horretarako, lehen adierazi dugun bezala. Azken honek, eremu ekonomiko eta soziorabolean erabaki ahalmena eta egikaritzeko tresna efektiboen jabe izatea eskatzen du ezinbestean.

(146) Prozesu horretan, ekologia, naziotasuna, feminismoa eta internazionalismoa ardatz nagusi bezala kokatu behar ditugun kohesio elementu berritzaileak dira, egungo estatu eredu eraldatzeko eta euskal estatu sozialista eraikitze ezinbestekoak dira LABen iritziz. Ekologia, lurarekin eta ingurumenarekin herriak eraiki behar duen oreka da. Naziotasuna, lurralde batasuna eta euskal identitatea egungo errealitatek eraikitzea da. Feminismoa, sexuen arteko lan banaketa eta botere harremana eraldatuko duen jendarte eredu eraikitze gure iparra izango da. Internazionalismoa, egungo krisi kapitalista globalizatuan Euskal Herriko langile klaseak inoiz baino beharrezkoago duelako munduko gainontzeko langile eta herri zapalduekin esperientzia eta borrorak elkarlotzea.

(147) Bide luze baten emaitza izango da Euskal Estatu Sozialista eraikitzea, eta prozesu hori azkartzeko aukerak ematen dituen testuinguru bizi dugu. Bide horretan aurrera urratsak egiteko garaia da. Hori da LABen ondorio nagusia bizi dugun tes-

tinguru politiko eta ekonomikoaren aurrean. Estatuak ez dute zer eskaini Euskal Herrian badagoen alternatiba goseari, oztopoa dira herritarrok eskatzen ditugun aldaketak burutu ahal izateko eta benetako zama bilakatu dira gure interes ekonomiko eta sozialak garatzeko orduan.

(148) Estatutismoak ez digu aukerarik eman gure Herri eskubideak ziurtatzeko, ez digu bitartekorik ziurtatu klase interesak defendatzeko eta krisiaren gainean hartzen ari diren erabakiek uniformizazioa eta zentralizazioa besterik ez du ekartzen. Estatu frantsesak behin eta berriro alboratu du Ipar Euskal Herriko lurraldeak aitortzeko aukera instituzionalizazio prozesua ekiditeko, baina aldarria indartu besterik ez da egin, are eta gehiago krisiari aurre egiteko beharrak bitarteko politiko eta instituzionalen premia nabarmenago egin duenean.

(149) Testuinguru honetan Euskal Herrian klase borroka euskal langileen interesetatik borrokatzeko bidea da Euskal Estatuaren eraikitze proposamena. Euskal jendarte osoari egiten diogun eskaintza da politika ekonomikoak Euskal Herriaren garapenari begira jartzea eta euskal langileen mesedetan egitea eskatzen duen bidea delako. Bi elementu hauek behar beharrezkoak dira independentziaren bidea benetan egingo badugu. Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun guztion interesak barne biltzen dituen proiektua da beraz, gaurko egoerari aurre egiteko alternatiba bakarra LABen iritziz.

(150) Euskal Estatuaren eratzea bideragarria izateko oinarritzeko baldintza euskal herritarren borondatea da. Independentziaren aldeko hautua geroz eta zabalagoa izatea da gure helburua, beraz. Baina atxikimendu eta babes soziala ez da nahikoa. Behar beharrezkoa dugu independentziaren bidea jorrazteko gaur ditugun mugak eta oztopoak gainditzeko aukerak emango dizkigun estrategiarekin jardutea, eta ezinbestekoa da gaurko egoera iraultzeko helburua duen estrategia izatea. Hor dago bidea urratsez urrats egiteko aukera, eta hori izango da, zalantzarik gabe, langileria independentziarekin lerrokatzeko biderik emankorra.

(151) LABek anbizio osoz heldu nahi dio independentziaren bidea egiteko hautuari eta Biltzar Nagusi hau mugarria izango da gure proiektua eraberritzeko. Estatuaren eratzearen Euskal Herriaren indarrak, ahuleziak, aukerak eta zailtasunak zeintzuk diren identifikatzeko ikerketa bat burutzen ari gara gure estrategian sakondu ahal izateko. Estrategia eraginkor eta erreala definitzea da gure helburua, gauko egoeretatik abiatzen dena eta ditugun arazoaren aurrean egiturazko konponbideak eraikiz egin behar dena.

5. Aldaketa politiko eta sozialerako prozesua



(152) Eredu sozial berri bat eraikitzeko urrats erabakigarriak egitea izango da LABen helburua datozen urteetan. Eredu soziala aldatzeko ezinbestekoak diren aldaketa politikoak bultzatuko ditugu eta eredu berriaren ardatzak izan behar diren aldaketa sozialetan oinarrituko dugu gure borroka estrategia, hor dagoelako krisi honen gainean langile klaseak behar beharrezkoak dituen konponbideak eraikitzeko aukera.

(153) Erabakiak nork hartzen dituen eta nola hartzen diren da klabea. Hori da gaur lehia nagusia. Eredu berri bat eraikiko badugu, Euskal Herriak hartu behar ditu erabakiak eta langilearen parte hartzea ziurtaturik hartu behar dira gainera. Euskal sindikatuok ezinbestez borrokatu behar dugu erabakitzeke eskubideen alde eredu soziala aldatuko badugu.

(154) Krisi honetan gertatzen ari den guztiaren atzean dagoen botere harremana aldatzeko borroka egitea izango da LABen ibilbidea zuzenduko duen ipar orratza, beraz. Boterea borrokatzea bai gure etorkizunari buruz erabakitzeke aukera ukatzen diguten bi Estatuei, baita erabaki politiko eta ekonomiko guztietan euren interesak nagusitzea lortu duen kapitalari ere. Konfrontazioa Euskal Herrian oso parametro argietan ematen ari da eta guk borroka horietan emango dugu, ez datorrenari erantzuteko asmo hutsez, baizik eta boterea eskuratzeko anbizioarekin. Boterea, estatu bezala ulertua, langileon gidaritzapean egongo den boterea.

(155) Erresistentzia jarrera hutsa gaindituko duen lidergoa behar dugu. Ez da nahikoa, kapitalak gidatzen duen politika aplikatzen duten gobernuen aurka arituko den sindikalismoa. Boterea hartzeko estrategian eta borrokan inplikatu den sindikalismoa behar dugu euskal langileok. Euskal Herrian zabaldu den garai politiko berrian baldintzak daude aldaketa hori gauzatzeko, erantzukizun nazionalaz jokatzeke unea da, interes partikularrak alboratu eta Euskal Herriko langileen interesei lehentasuna emateko.

5.1. Eredu ekonomiko eta sozial berriaren oinarriak

5.1.1. Euskal Herriaren burujabetza politiko eta ekonomikoa

(156) Burujabetza eskakizun guztiz demokratikoa da. Eta demokraziaren alde borrokatzeke dugun bidea da herritarren etorkizunaz erabakitzeke ahalmena botere ekonomikoaren esku utzi dutenean eta estatuen papera merkatuaren diktadura ziurtatzea besterik ez denean.

(157) Gure eredu politiko, ekonomiko eta sozialari buruz erabakitzeke eskubidea ziurtatzea da burujabetzak ekarri behar diguna. Bai eta erabakitzen duguna aurrera ateratzeko bitarteko nahikoak edukitzea ere. Ezinbestekoa da ekonomiaren gaineko kontrol politiko eta soziala berreskuratzeko eta herritarrek erabakietan parte hartzeke.

(158) Estatuarekin eta gainontzeke Herriekin izan nahi ditugun harreman eta loturak definitzea, estatuen gaineko erakundeetan hitz propioz parte hartzea eta, oro har,

nazioartean eskubide osoko eragile izatea ziurtatu behar digu burujabetzak. Eta gure Herriari begiratzuz, eredu politiko instituzionalaz eta garatuko ditugun politika ekonomiko eta sozialaz erabakitzeke aukera ziurtatu behar digu.

(159) Egiturazko aldaketak egin ahal izateko ezinbestekoa dugun erabakitzeke ahalmena eskuratzea da LABen borroka nagusia aldaketa politikoak burutuko den fase honetan. Burujabetzaren aldeko borrokari dimentsio eta zentralitate osoa eman behar diogu beraz. Norabide bakarreko dimentsio bikoitza du borroka honek guretzat, eredu ekonomikoak aldatzea eskatzen duelako markoari bakarrik begiratu gabe.

(160) Sistema finantzierokoak eta kapital trasnazionelek zuzentzen duten eredu ekonomikoan ez dago inolako burujabetzarik. Burujabetzaren aldeko bideak halaberrez jaso behar du eta erantzun behar dio garapen ereduak aldatzeko beharrari. Bere baitan jaso behar du Herri eta langile bezala ditugun behar eta interesak bertoko baliabide eta aukeren gainean eraikitako eredu sozioekonomikoarekin asetzeko helburua.

(161) Lan harremanetarako eta babes sozialerako ereduak berton erabakitzea eta garapen eredu berri bat ezartzeko erabaki politikoak hartzeko gaitasuna eskuratzea izango dira gure aldarrikapenak. Marko politiko berriari begira egiten ditugun eskakizunak dira biak eta azken 30 urteetako eskarmentuan oinarriturik egiten ditugu. Euskal langileriaren eskubideak eta interesak defendatzeko bitarteko politikoak ekarri eta ziurtatu behar dizkigu marko berriak, 78an ez bezala.

(162) Marko berriari egiten diogun eskakizunak ez ezik, gure ekinbide sindikala zuzenduko duen ardatza izango da burujabetza eskuratzea. Ez dugu onartzen gaurko markoaren mugak aitzakia izatea krisiari eman behar zaion irtenbidea eraikitzeke orduan. Ez gara, beraz, muga horien salaketan geratuko gure alternatibak borrokatzeke garaian.

(163) Euskal Esparrua gure ekinbide sindikalarekin defendatzea eta urratsez urrats eraikitzeke bitartekoak eta aukerak eskuratzea da bidea egitea ekarriko duena. Ukatzen diguten erabakitzeke eskubidea gure ekimenez egikaritzea da LABen ustez guztiok hartu dugun bidea.

(164) Euskal Herri osorako alternatiba eraiki nahi dugu. Gure sorreratik ekin dugu horrela. Estatuak ezarritako markoen arabera egin dugu borroka langileen eskubideen defentsan, alternatiba nazional hori gorpuztu nahian. Aipatu bezala, ordea, aldaketarako baldintzak ditugun honetan, lurraldetasunaren irizpidea gorde ez ezik, lurralde batasunaren eraikuntzan Euskal Herria entitate ekonomiko eta politiko bakartzat ulertuz jokatu behar dugu gero eta gehiago. Herri ikuspegiak gidatu behar gaitu.

5.1.2. Herritarren bizi kalitatea hobetuko duen garapen eredu berria

(165) Euskal lurraldeak bere osotasunean hartuko dituen eta herritarren zerbitzura egongo den garapen ereduak behar dugu Euskal Herrian. Bi oinarri hauen arabera definitzen den ereduak halaber izango da berria, eta ezinbestez izango da eraldaketa prozesu baten ondorioa.

(166) Euskal Herriak indarrean duen eredu ekonomikoak langileon bizkarrean jartzen du zama guztia. Eredu produktiboak langileon lan baldintzen arabera lortzen du lehiakorra izatea eta sektore publikoa langileon ekarpenekin mantentzen da batez ere, gerora langileok pairatzen ditugularik egiten ari diren murrizketa guztiak. Honen atzean lanaren balio politikoaren falta dago. Kapitala da balioztatzen den bakarra eta, hortaz, bere interesak dira zaintzen, babesten eta aintzat hartzen diren bakarrak. Ezinbestekoa da lanaren balio politikoak aitortzea, lehentasuna eta helburu ekonomikoak horren arabera lerrokatu daitezkeen. Lana, bere osotasunean: emakumeen bizkar jausten den lan erreproduktiboa eta lan produktiboa. Lan erreproduktiboa balioztatzen faltaren adibide argia da, jendarte osoaren biziraupenerako premia izan arren, ez da kontuan hartzen ez sozialki, ez ekonomikoki. Lan produktiboaren kasuan ere sektore feminizatueta burutzen dena da gutxien baloratua eta, hortaz, ez da kasualitatea sektorerik eta prekarioenak izatea. Hau aldatzen ez den bitartean, hau da, lana kapitalaren gainetik jartzen ez dugun bitartean eta langileon eskubideak enpresariaren interesen aurretik jartzen ez ditugun bitartean, ez da eredu berririk eraikitzerik izango.

(167) Honekin batera, gaur nagusi diren politikak zatiketaren gainean daude eginak eta zatiketa betikotzeko beharrari begiratzen diote, lurraldeen arteko kohesioak eta elkarloturak eskaintzen dituen aukera ekonomiko logikoak albo batean utzita. Eta ondorioak guztiz kaltegarriak izan dira lurralde antolamenduaren eta baliabideen kudeaketa zuzenaren ikuspegitik aztertuz gero; argi dago Euskal Herriko zonalde batzuen bideragarritasun ekonomiko eta soziala zuzenean herri proiektu bati lotuta dagoela, interes politikoak alboraturik.

(168) Ekonomia herritarren zerbitzura jartzeak garapen eredia goitik behera aldatuko duela esatea soberan dago. Lehentasun, printzipio eta helburu ekonomikoak aldatzea da gaurko krisiari buelta emateko modu bakarra eta hor dago borrokatu behar dugun aldaketa nagusia. Ez dugu orain urte gutxitako egoera ekonomikoa berreskuratzeko borrokatzen, herritarren bizi baldintzak benetan hobera aldatuko dituen garapen eredia finkatzea aldarrikatzen dugu.

(169) Eskubide sozial eta laboralak ziurtatuko dituen garapen eredia izan behar da. Lanaren eta aberastasunaren banaketa justu eta demokratiko batean oinarritu behar da eta sexu bereizkeria gainditzeko helburua bere egingo duena. Kalitateko enplegua sortzeko aukerak eman behar ditu, eredu bera delako enpleguaren sorrera ahalbideratzen edota oztopatzen duena. Baina areago egin nahi dugu, bizi eredu berri bati bide emango dion eredia behar dugulako. Ez dugu gehiago kontsumitzeko aukerak emango dizkigun garapen eredurik aldarrikatzen, herritarren bizi kalitatea hobetzeko gai izango den eredu berri bat baizik.

(170) Esan gabe doa, Euskal Herriko garapen ereduak ezberdintasun bortitzak sortu dituela eskualde ezberdinetan. Eta, ondorioz, garapen eredu berri batek eskualde ezberdinen ekarpena jaso baina, halaber, garapen eredu orekatua eskaini behar du. Lurraldeka hartzen ari garen inizatibek proiektu nazionala indartzera zuzenduta dau den heinean, balio politiko handia dute.

5.1.3. Eredu demokratikoa eta herritar guztien parte hartzea bermatuko duena

(171) Eredu ekonomiko eta sozial demokratikoa aldarrikatzen dugu. Eskubideak aitortzea eta errespetatzea da eredia demokratikoa izateko funtsezko oinarria, baina ezinbestekoa da, era berean, erabakiak hartzeko moduaren kudeaketa ere demokratikoa izatea. Behar beharrezkoa da beraz eredu instituzionala berritzea, elite ekonomiko bati guztion gaitetik erabakitzeke aukerak ematen dizkion eredu politiko hau aldatzea.

(172) Kudeaketa demokratikoa izango dela ziurtatuko digun eredia behar dugu, momentuko arduradun instituzionalen borondatearen eta asmoen gaitetik egongo dena. Baina benetan demokratikoa izateko, herritar guztien parte hartze efektiboa bermatu behar du. Horretarako ezinbestekoa da emakumeek ere parte hartzea bermatuko duten bide eta bitartekoak ezartzea, eskubide eta aukera berdintasun faltatik abiatzen garen heinean. Beraz, emakumeen eskakizunak plazaratzeko, bideratzeke eta erabakietan presente egoteko bitartekoak dira beharrezkoak.

(173) Parte hartze instituzionalerako bitartekoak berrituko dituen eta herritarren parte hartze zuzena arautuko duen eredu estrukturala aldarrikatzen dugu, beraz, jendarte-an sustatu beharreko irizpide edo balio bezala, alegia. Gaurko krisi politikoari eman behar zaion irtenbidea da eta bizi dugun aldaketa prozesuak eskaintzen dizkigun aukeraz baliatuz eskuratu behar dugun lorpena da gainera.



5.2. Eredu berria eraikitzeko bidea

(174) Euskal eragileen ekimenez eta euskal herritarren borroka lortuko ditugu benetako aldaketak. Martxan da aldaketa politiko eta sozialak ekarriko dituen prozesua, baina hauek ez daude ziurtatuak, are eta gutxiago guk aldarrikatzen ditugunak. Bide oso baten emaitza izango da eredu berri bat eraikitzea eta bide hori hartu behar dugu Euskal Herrian krisi honi buelta eman nahi badiogu.

(175) Egoera eta agertoki berriak sortzeko borroka egitea, eredu berria eraikitzea helburu dugunon artean aliantza sendoak egitea eta aldaketaren bidea jorratzeko akordioak eraikitzea izango dira aldaketaren bidea jorratzeko LABen ardatzak. Borroka eta gatazka indartu behar dugu erabakiak aldatzera behartzeko, guztiz aldebakarrekoa den kudeaketa hau gainditu eta aldaketak ekarriko dituzten akordioak eraikiko baditugu.

5.2.1. Borroka eta mobilizazioa, bide bakarra aldaketa politiko eta sozialak behartzeko

(176) Aldaketa politiko eta sozialerako prozesua borroka prozesua izango da. Borroka, prozesua demokratikoa izateko; eta borroka, prozesuaren emaitza benetako aldaketak izateko. Borroka asko egin beharko dugu langileok lantokietan eta lantokietatik kanpo, gure esku dagoelako gobernuek kapitalari eman dioten erabateko botereari harresiak jartzea eta euren asmoak zapuztea. Hor dago erabakiak aldatzera behartzeko aukera eta bide bakarra momentu honetan.

(177) Gure eskubideen alde borrokatzea ez da gauza berria langileontzat, baina egoerak gure borroka estrategia berritzera behartzen gaitu. Estatuekin, instituzioekin eta enpresarekin konfrontazioa areagotzeko eta gatazka soziala indartzeko borroka estrategia berritzea da gure helburua. Berritzea geroz eta langile gehiagoko batzeko gai garelako, eta indartzea borrokarako bitarteko eta molde gehiago baliatzen ditugulako helburu honetan. Mobilizazio sozial iraunkorra eta lantokietako ekintza sindikala dira gure bitarteko nagusiak, baina konfrontazio demokratikoa indartzeko molde gehiagok baliatzeko bideak ireki behar ditugu.

(178) Borroka egiteko arrazoi asko dugu, bistakoa denez, eta bistakoa da, era berean, borrokaren balioa. Gure indarraz baliatu behar gara aldaketak behartzeko eta borroka da horretarako aukera ematen digun bakarra. Borroka gure eskubideak defendatzeko, borroka onartezina dena ez betikotzeko, eta borroka erabaki politikoak aldatzera behartzeko. Agertoki berriak sortu behar ditugu aldaketak behartzeko eta bideratzeko. Hori da gaur erronka nagusia eta borrokatzea da horretarako dagoen bide bakarra.

(179) Eta bukatzeko, borrokatzea da gure bermerik indartsuena aldaketa politiko eta sozialaren prozesua asimilazioaren eta blokeatzen bidez zapuztea ekiditeko. Asimilazioa, egungo ereduaren baitan murgiltzea aldatzeko borondatez baina aldatzeko eraginkortasunik gabe bezala ulertua. Eta, blokeatzea, aldaketa garai honetan indar harremanak mugitzeko eta birkokatze gaitasunik ez izatea eta erantzun dinamika hutsean erortzea bezala ulertua.

(180) Borrokaren bidez eta proposamen eraikitzaileen bidez erantzun behar diegu arrisku hauei. Eta azpimarratu behar dugu bereziki nazio eraikuntza estrategiaren garrantzia fase berri honetan, eraikuntza nazionala eta soziala gure borroka estrategia nagusia dela ulertuta. Egungo eredu politiko eta ekonomikoak ezartzen dituen inertiak gainditzeko iparrorratza da nazio eraikuntza. Era berean, ordea, langileok eta Euskal Herriak ditugun berehalako arazo eta premiei erantzun eraikitzailea emateko ikuspegia emango digu. Praktika sindikal eta politikoaren barnean, eta aipatu arriskuei aurre egiteko, bereziki garrantzitsua da borroka ideologikoa.

5.2.2. Akordioak, aurrera egiteko aukerak eta aldaketak sortzeko tresna

(181) Euskal Herrian adostasun eta akordio sendoak eraiki behar ditugu aldaketa politiko eta sozialaren bidea egiteko. Akordioak behar ditugu interesak konpartitzen ditugunon artean gure helburuetan aurrera egin nahi badugu. Eta akordioak behar ditugu gatazka bideratzeko, konpontzeko eta gainditzeko proiektu guztiz ezberdinak ditugunon artean.

(182) Izaera, eremu edota helburu ezberdinak izango dituzten akordioen beharra eta balioa aldarrikatzen

dugu, beraz. Adostasunetan oinarrituko direnak hainbatetan, eta behartuak izango direnak beste askotan. Aldaketa prozesua ez da kontsentsu bidez egingo, are gutxiago klase gatazka gordintasun osoz nabarmendu duen krisi honetan. Akordioak posibleak izango dira Euskal Herriaren eta jendartearen interesak nagusitzea lortzen dugun heinean, hori delako aldaketa prozesua benetakoa izateko muina.

(183) Gatazka politikoaren arrazoiak eta ondorioak aintzat hartuz konponbide demokratiko bat eraikiko duen akordio politikoa da gaur gaurkoz Euskal Herriak behar duen akordio nagusia. Aldaketa prozesua demokratikoa izateko bidea da, baita aldaketa bera demokratikoa izateko modu bakarra ere.

(184) Eta akordioak eta adostasunak behar ditugu krisiari irtenbide propio eta demokratiko bat emateko. Irtenbidea ezinbestez izan behar da propioa benetakoa izateko, gobernua inposatzen ari zaigun krisi iraunkorra alde batera utzi eta gure behar eta interesen gainean eraiki behar dugulako. Euskal Herrian eraiki behar dugu eta bertoko eragileek ekimenez egin behar dugu.

(185) Eredu berriaren inguruko adostasunak eta berau eraikitze bidean indarrak biltzeko akordioak eraikitzea da lehentasunezkoa norabide honetan. Erantzunaren beharrak batu gaituelarik azken urteetan, garaia da aurrera urrats bat egin eta alternatibaren estrategiaren gaineko batasuna eraikitze bidean. Eredu berriaren borroka konpartitzeko premia bistakoa dela azpimarratu nahi dugu inposatzen dizkiguten neurri bortitzen atzean langileak oraindik eta gehiago zatitzeko helburu argia dagoelako.

(186) Eta gaurko unilateraltasunarekin bukatu beharra dugu krisiari benetako irtenbide bat emateko. Krisiari zein irtenbide emango diogun eta gure etorkizun ekonomiko nola ziurtatuko dugun demokratikoki erabaki behar dugu eta langileok ezinbestez parte hartu behar dugu erabaki horietan. Horretarako esparru ezberdinen arteko akordioak bultzatu behar dira; esparru sindikala eta soziala, politikoa eta soziala, sindikala eta politikoa edo esparru guztiak batera. Norabide berdinean borrokarako prest gauden guztion interakzioa beharrezkoa da.

(187) Aldaketa soziala bideratzeko akordioak bilatu eta bultzatuko ditu, beraz, LABek. Borroka konpartitzen ditugun artean adostasunean oinarritutako aliantzak eraikitze bidean. Eta borroka ondorio izango diren akordioak, interes ezberdinen gainean eraikitakoak, gure eskakizunetan aurrera egiteko aukerak ematen dizkiguten kasuetan. Erabakitze bidean euskal eremua babestea eta artikulatzea, eta herri estrategia konpartitu batekin euskal gune ekonomiko eta soziala eraikitze bidean urratsak ematea izango dira akordioetarako arrazoiak. Euskal Herriak behar beharrezkoa duen alternatiba ekonomiko eta sozialak eskatzen dituen konpromisoetan oinarritu behar dira, Euskal Herriaren gehiengoa osatzen dugun langileriarekin hartzen diren konpromisoetan beraz.

(188) Akordioak lotzea ez da helburua bere horretan, baizik eta tresna bat Euskal Herriko gehiengo sozialak bere erabakiak har ditzan gai ekonomiko eta sozio-laboretan; herri moduan geure neurri propioak hartzeko espekulatuzaileen erasoan aurrean eta geure eredu sozio-produktiboa eraikitze bidean; eragile instituzional, politikoa, sozial eta sindikalen inplikazioa exijitzeko gaur egun burutzen diren politika publikoak aldatze bidean: aberastasunaren banaketa justua, pertsonak merkatuen interesen gainetik jarri, baliabide publikoak demokratikoki kudeatu eta, azken batez, euskal langileok geure lanaren fruituaren jabe izango garen Euskal Herria eraikitze bidean.



(189) Sindikatuen eta mugimendu sozialen arteko elkarlana, konpromiso politiko eta instituzionala eta herri mobilizazio dinamika oso bat izango dira beharrezkoak indar korrelazioa aldatzeko eta, hortaz, hau guztia bideragarri bilakatzeko.

5.3. LAB, aldaketa prozesuaren partaide eta eragile

(190) Herritarrok behar dugun alternatiba politiko eta sozioekonomikoek zuzendu behar dute Euskal Herriko aldaketa prozesua. Horretarako behar beharrezkoa da sindikalismoaren parte hartzea zuzena eta sendoa izatea. Beharrezkoa da langileak aldaketa prozesuaren protagonistak izateko, eta ezinbestekoa da aldaketa prozesuak langileriaren aldarrikapenei erantzuteko.

(191) Langileriaren egoerak, Euskal Herriaren etorkizun ekonomikoa arriskuan egoteak eta krisiaz baliatuz inposatzen ari diren atzerapausoei langile klasearen interesak defendatuko dituen Herri proiektu batez aurre egiteko beharrak markatuko dute LABen parte hartzea. Helburu, eskakizun eta proposamen propioz hartuko dugu parte, horixe delako eragile izatea.

(192) Euskal Herriarentzat benetako alternatiba estrategiko bat eraikitzeke gaitasuna dago mugimendu independentistan, hori da gaur erronka nagusia eta proiektu horren partaide izango da LAB. Independentziara eramango gaituen bidea eraldaketa sozialerako prozesu bat izatea da gure helburua, ezinezkoa delako independentziaren bidea ikuspegi neoliberaleratik indartzea eta kapitalari boterea borrokatu gabe eraikitzea.

(193) Gure eskakizun sozialak indartuz parte hartuko dugu aldaketa prozesuan. Aldaketa sozialak exijituz eta hauek lortzeko behar-beharrezkoak diren aldaketa politikoak borrokatuz izango gara prozesuaren eragileak. Bizi dugun krisiak eremu politikoari buruzko gogoeta sakona egitera behartzen gaitu langileoi. LABentzat funtsezkoa da langileen egoeraren aurrean konpromiso politiko sendo eta benetakoak hartzea eremu politikoetik. Konpromisoak mobilizazio eta presio sozialaz behartzea, eta lankidetzaren eremuak eraikiz bideratzea izango dira gure lanerako erreferentzia nagusiak.

(194) Eta bukatzeko, Euskal Herrian irekitzeaz dagoen eta ezinbestez ireki behar den ziklo politiko berriak eskatzen duen gogoeta sindikala bultzatuko dugu LABetik. Krisiak fase berria ireki du klase gatazkan eta klase borrokan sakoneko ondorioak dituzten aldaketak inposatzen ari zaizkigu. Langile klasearen interesak defendatzeko ezinbestekoak ditugun tresnak, bideak eta joko arauak euskal sindikatuon ekimenez finkatu eta borrokatu behar ditugu, hori delako Euskal Herria klase gatazkarako eremu autonomoa izatea ziurtatuko duena.

(195) Sindikalismo abertzaleak Euskal Herriko aldaketa prozesuan jokatu behar dugun papera aztertzeke eta definitzeko gune propio eta autonomoak eratzea bultzatuko dugu LABetik. Aldaketa prozesuari eskatzen dioguna zehaztea eta egiten ditugun eskakizunak prozesuaren baitan kokatzeko eta borrokatzeko adostasunak eraikitzea da gure helburua.

6. Borroka eraginkorretarako eskaintza argia



6.1. Borroka ardatz nagusiak aldaketarako

(196) Orain artekoari jarraituz, hauek dira LABek datozen urteetan borrokatuko dituen aldaketa politiko eta sozial nagusiak:

(197) **Marko demokratiko bat ezartzea Euskal Herriarentzat.** Erabakitze eskubidea eskuratzea, eskubide demokratikoak ziurtatzea edota eredu politiko instituzional berri bat finkatzea beharrezko urratsak dira krisiaren aurrean alternatiba oso bat eraiki ahal izateko. Gatazka politiko konpondu behar da urrats hauek guztiak egiteko; eta izatez, horrelako urratsak egin ahal izatea da gatazkek behar duen konponbide demokratikoa.

(198) LABen iritziz, gatazka konpontzeko eta marko juridiko eta politiko berria adosteko abiatu den bidean dago eredu politiko eta ekonomiko berri bat eraikitze aukera. Bistakoa da krisiak eta gatazka konpontzeko prozesuak markatzen duten agenda politikoan bakoitzak bere bidea duela, bere urratsak eskatzen dituela, eta horrela izan behar duela. Baina biek elkarlotura zuzenak dituzte, eta batak bestean eragiten du. Gatazka politikoari konponbide demokratiko eta integral bat ematea beharrezkoa da euskal langileriaren klase interesetan aurrera egiteko. Sindikatuon parte hartze zuzena aldarrikatzen dugu, beraz, eta sindikatuok erantzukizunak eta konpromisoak bereganatzeko adierazi dugun prestasuna ekimen propio eta errealetan konkretatu behar ditugula deritzogu LABen.

(199) Euskal Herriak behar duen akordio demokratikoaren aldeko lanak zuzenduko du gure ekarpena. Ziklo politiko berri batean behin betirako kokatuko gaituen akordioa eraiki behar dugulako Estatuak diotenaren gainetik eta euskal eragileon ekimenez. Autodeterminazioaren alde gauden eragile guztiok eskubide hori defendatzeko eta gure Herriarentzat ziurtatzeko bidea adostuz borrokatu behar dugu akordio politiko zabal horren alde. Baldintza politiko nahiko dago eta zailtasunak ezin dira aitzakia izan eztabaidari eta konpromisoak bereganatzeari ihes egiteko.

(200) Posiblea eta premiazkoa da gainera. Marko juridiko eta politiko aldatzen ari dira krisiaren aitzakiarekin eta prozesu horretan ez zaio Euskal Herriari autodeterminaziorako eskubiderik aitortzen. Marko demokratikoaren eraikuntzan urratsak egin behar dira beraz, aldebakarreko prozesu bat eginez Estatuarekin akordioetarako aukerarik ez badago.

(201) Marko berriaren eraikuntza autodeterminazio prozesu dinamiko eta progresibo baten emaitza izango da LABen iritziz. Estatuak egunero hartzen dituen erabakiekin ari da bere proiektu unionista indartzen eta ziurtatzen euskal lurraldeetan, eta horren aurrean ezin gara gure erabakitze eskubidea aldarrikatzera mugatu. Guk geure erabakiak hartu behar ditugu, nagusi egin behar ditugu herritarren babesarekin eta horiek izan behar dira euskal lurraldeen bilakaera eta garapena zuzentzen dutenak.

(202) **Euskal esparru ekonomiko eta sozio-laborala eraikitzea.** Euskal Herriarentzako marko demokratikoa eraikitzea ezinezkoa da gai ekonomiko eta sozio-laboraletan

daukagun erabakitzeke ahalmena ukatzen bada. Are gehiago, Euskal Herriaren eraikintza sozialetik soilik eraiki ahal izango dugu geure nazio burujabetza; hortaz, euskal esparru ekonomiko eta sozio-laborala eraikitzea gure subirautza proiektuaren materializazioa da.

(203) Zentzu honetan, eragile instituzional, politiko, sozial eta sindikalek ahalmen osoa izan behar dute gai ekonomiko eta sozio-laboraletan lege marko osoa garatzeko, honetarako betebehar bakarra Euskal Herriko gehiengo sozial, sindikal eta instituzionalen borondatea delarik.

(204) Euskal eremuan lotzen diren akordioak euskal eremutik kanpoko bestelako akordio edo erabakiei gailendu behar zaizkie. Geure garapen eredu zein lan harreman eta babes sozial eredu propioen erakuntzari bide emango dion oinarrizko konpromiso hau eragile politiko, sozial eta sindikal guztiek onartu behar dute.

(205) **Garapen eredu berri batean oinarritutako politika ekonomiko eta sozialak egitea.** LABen apostua garapen eredu propioa da, guren herriaren errealtatetik, beharizan sozialetatik eta geure ahalmen propioetatik eraikia izango dena. Garapen eredu hau eraginkorra izan beharko da bai ekonomiko eta sozialki, bai eta ingurumenari dagokionez ere, eta Euskal Herriko lurraldean egituraketa kontuan hartu beharko du. Garapen eredu honek lan zein enplegu banaketan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatu beharko du.

(206) Estrategia honetan euskal langileriaren eskubideak aitortu eta ziurtatuko dituen **Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua** eraikitzea ezinbestekoa izango da lan harremanak demokratizatzeke, aberastasunaren eta lan denboraren banaketa efektiborako eta kalitateko enplegua sortzeko.

(207) Langabezia eta prekarietatearen areagotzeak lan harreman eredu berri bat eraiki behar dugula erakusten du, bai esparru publikoan, bai eta pribatuan ere. Lan harreman eredu berri horren ezaugarri nagusienak hauek dira: langabeziari aurre egiteko neurriak jasoko dituela; soldata eta lan baldintza duinak bermatu behar dituela; emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatu behar duela; negoziazio kolektiborako euskal esparruaren aldeko eskubidea jaso behar duela; lan osasuna kontuan izango duela...

(208) Ezin da lan harreman eredu berri bat eraiki oinarrizko lan araudirik izan gabe. Euskal Herriak egun ez du lege ahalmenik ezta eskuduntzarik ere horretarako. Beraz, **Euskal Herriko lan kodearen aldeko borroka** parametro hauetan kokatuko du LABek.

(209) Helburu hauek guztiak lortzeko tresna eraginkorrak ditugu premiazkoak eta, hortaz, euskal sektore publiko berri bat eraikitzearen aldeko apustua egiten dugu. Sektore publiko berri hau inplikazio sozialekoa, demokratikoa, gardena eta herritarren ebaluaketaren menpekoa izan behar da, eta ez interes partidisten edota lobby ekonomikoen menpekoa.

(210) Euskal sektore publikoak eredu sozio-produktiboaren aldaketa lideratu behar du, politika publikoen artikulazioaren bitartez eta gure ehundura produktiboaren garapenean inbertsio zuzenak eginez. Euskal sektore publikoak politika ekonomikoaren eta lurraldearen antolaketan araugintza ahalmen osoa izan behar du. Euskal sektore publikoak, era berean, hainbat esparrutan jarduteko tresna nahikoak izan behar ditu: I+D+i, kreditu eta aurrezki publikoa, industria eta zerbitzu enpresa publikoa, elikadura burujabetza, energia, ekoizpenerako lagungarriak diren azpiegitura publikoak...

(211) **Politika publikoen errotiko aldaketa premiazkoa dugu.** Hori dela eta, politika publikoak aberastasunaren banaketara eta ez espekulatzailen kapital metaketara bideratu daitezela exijitzen dugu. Politika publikoen aldaketa hau hurrengo ardatz hauetan oinarritu behar da:

(212) Politika fiskal justu eta bidezkoa: zerga guztiak eskala progresiboaren arabera izan daitezela, errenten izaera edozein delarik ere; enpresen iruzur fiskalaren eta zerga ordainketak sahiestearen kontra egin dezala; zerga zuzenak eta ondare zergak lehenestu ditzala zeharkako zergen aurrean.

(213) Kapitalaren interesen gainera, premia sozialak asetzeari gailenduko dituen aurrekontu politika; zerbitzu publikoen garapenean oinarriturik, kalitateko enplegua sortzea helburu izango duen aurrekontu politika; eta biztanleko errenta antzekoa daukaten Europako herrialdeekin parekatuko den gastu soziala bermatzeko duen aurrekontu politika.

(214) **Bazterketa sozialaren eta pobrezia kontrako urgentziarako neurriak jasoko dituen plan estrategikoa martxan jartzea.** Krisialdi ekonomikoaren eta politika sozialen garapen faltaren ondorio larrienetako bat bazterketa soziala da. Ponentziaren hasieran azaldu bezala, bazterketa sozialak momentura arte kolektibo espezifikagoei eragiten bazien ere, fenomeno gero eta zabalago eta ohikoagoa bihurtzen ari da. Enplegua izateak pobrezia arriskutik at egotea bermatzen ez duen egoera batean are eta premiazkoagoa da honen kontra egiteko eta bizi baldintza duin minimo batzuk bermatzea ekarriko dituen urgentziarako neurrien plangintza bat martxan ipintzea instituzioen aldetik.

(215) Honela, aberastasunaren banaketa justuagoa bermatzen duten honako neurri minimoak aldarrikatuko ditu LABek:

- Zerbitzu publikoen unibertsaltasuna bermatzea, hezkuntza eta osasuna bereziki.
- Kalitateko zerbitzu sozialen sare publikoa eraikitzea, aurrekontu publikoek finantziatuta.
- Alokairu sozialeko etxebizitza sare publikoa bultzatzea, pertsona guztiek etxebizitza duin baterako eskubidea bermatua izan dezaten
- Gizarte Segurantzaren euskal sistema publikoa bermatzea, pentsio sistema publikoa bermatzeko eta hobetzeko
- Kalitateko enplegurik edota pentsio duinik ez daukaten pertsona guztiei pobrezia mugaren gainetik dagoen oinarriko errenta edota langabezi prestazioa bermatzea.

6.2. LABen egitasmo sozioekonomikoa, lantokietan eta lantokietatik kanpo gure borroka zuzentzeko

(216) LABen borroka zuzenduko duten ardatz hauetan oinarrituko da LABen egitasmo sozioekonomikoa. Euskal Herriko langileei borroka eskaintza argi eta eraginkor bat egitea da gure helburu nagusia, krisiaz baliatuz gure eskubideen kontra egiten ari diren eraso bortitz honi modu kolektibo, antolatuta eta bateratuan borrokatzeko lantokietan eta lantokietatik kanpo.

(217) Patronalaren eta instituzioen aurrean borrokatuko ditugun aldaketak jasoko dituen taula izango da beraz, momentu oro egingo ditugun aldarrikapenak eta eskaintzak zehazteko baliatuko duguna. Iniziatiba berriak hartzea eta egoerari aurre egiteko interbentzio sindikal erasokorra egiteko gai izatea dira gure asmoak.

(218) Eta aldarrikapen taula izango da aliantzak eraikitzeko eta lankidetzaren eremuak indartzeko edota zabaltzeko gure erreferentzia aurrerantzean.

(219) Aldarrikapen taula zehazterakoan kontutan hartuko ditugun elementuak honako hauek dira:

(220) Eredu sozial berri baten alde borrokatzeko taula izan behar da. Eredu berria eraikitzea bide oso baten emaitza izango denez, bide hori egiteko aukerak emango dizkiguten aldaketak zeintzuk diren zehaztu behar dugu. Bizi dugun egoera iraultzea da gure helburua, eraldaketa prozesua burutzeko taula izan behar du beraz.



(221) Langileriaren batasuna indartuko eta ahalbideratuko duen egitasmoa izan behar da. Langileen artean interes ezberdinak eta askotan kontrajariak sortzea ekartzen duten politikei aurre egingo dieten aldarrikapenak behar ditugu. Langileria batera borrokatzea eta borrokak bateratzaileak izatea ziurtatuko duen egitasmoa behar dugu. Lantokietan eta lantokietatik kanpo erreferentzia eta aldarrikapen berdinekin borrokatzeko aukerak emango dizkigun egitasmoa izan behar da.

(222) Langileriaren gaurko egoerari begiratzuz finkatu behar dugu egitasmoa. Langileriak dituen premiak sindikalismoaren lehentasunak izan behar dira eta hartzen ditugun erabaki sindikal guztietan gailendu behar dugun arrazoia dira. Gobernuen politiken ondorio diren muturreko prekarietatea, bazterketa sozialaren arriskua, pobrezia egoerak eta babes falta orokorra dira gure borroka indartzeko gaur ditugun arrazoi nagusiak. Egoera hauei aurre egitea da langileriak duen premia nagusia krisi honen erdian eta horrek hartu behar du lehentasun osoa gure borroka estrategian, egiturazko arazo hauek konpontzeko sakoneko aldaketak bultzatu eta bideratu behar ditugula jakinda.

(223) Zuzendaritza berriaren eginkizuna izango da Biltzar Nagusiak finkatzen dituen borrokarako ardatz haue-tan oinarritutako egitasmo sozioekonomiko berritua proposatzea Nazio Biltzarrak urtea bukatu baino lehen erabaki dezan.

7. Borroka eremu eta esparru ezberdin eta osagarriak helburu



7.1. Negoziazio kolektiboaren estrategia berritzeko premia

(224) Azken lan erreformak guztiz baldintzatu du negoziazio kolektiboaren balioa eta eraginkortasuna. Ez da edozein momentutan hartutako erabakia izan; lan harremanen eredia goitik behera aldatzen ari direnean egin dute, negoziazio kolektiboa zelako aldaketa hori baldintzatzeko eta aldaketa horietan enpresarien asmoei mugak jartzeko langileriari geratzen zitzaion bitarteko bakarra.

(225) Lan legeriaren jatorria enpresarien gehiegikeriak mugatzea zen batez ere, nola-baiteko oreka mantentzea langile eta enpresarien artean. Azken erreformen ondorioz, eta batez ere 2012ko azken erreformarekin, oreka hori guztiz apurtzen da kapitalaren mesedetan. Gaurko legeriaren funtsa eta helburua langileoi gure eskubideak defendatzeko aukera kentzea besterik ez da. Aldebakartasuna ez da indar harremanen ondorioa izango bakarrik, lan legeriak ziurtatzen duen egoera baizik.

(226) Lortutako akordioek balioa galtzen dute. Enpresariak deskuelge klausulak erabil ditzakete adostutako soldatak eta hitzarmeneko baldintzak ez betetzeko eta gainera derrigorrezko arbitraia inposatzen da.

(227) Azken erreformak, negoziazio kolektiboan inposatutako aldaketek, negoziazio kolektiborako eskubide errealik gabe utzi gaituzte. Orain arte, Euskal Herrian nagusi izan den negoziazio eredia, herrialdeko hitzarmenak oinarri eta ondoren lan zentro-etan hitzarmen horiek hobetzen zituen eredia, goitik behera aldatu da. Eredua hori goitik erasotua da negoziazio kolektiboaren zentralizazioa dela eta: Madrilen erabakitzen da beheko mailetan zer eta nola negoziatu daitekeen. Bestalde, enpresetako negoziazioek lehentasun osoa dute eta orain arte gutxienezko izaera zuten herrialdekoak lantokietan kaskartu daitezke.

(228) Hau guztia gutxi balitz, hitzarmenek iraungitze data dute. Ultraaktibitate printzipioa desagertu da (hitzarmen bat indarrean egotea berri bat negoziatu arte) eta bi urtetako epea besterik ez dago hitzarmena negoziatzeko. Epe horren barruan adostasunik ez badago, hitzarmen hori desagertu egiten da.

(229) Egoerak negoziazio kolektiboaren estrategia berritzea eskatzen digu, beraz. Eta bi erreferentzia nagusi hartuko ditugu horretarako: lehenengoa, lan harremanen eredu berri bat behar dugula eta hori dela gure borroka nagusia fase honetan (6. en puntuan jaso dugu borrokarako ardatz nagusi moduan). Bigarrena, negoziazio kolektiboa ezinbesteko tresna dugula gure eskubideak defendatzeko, enpresariei boterea borrokatzeko, eta lan harreman eredu berria eraikitzeko.

(230) Beraz, gure estrategiak oinarri eta ipar orratz oso argiak ditu: negoziazio kolektiborako marko eta eredu propioa defendatzea, ez dugulako erreformak inposatutako eredu hau aintzat hartzen, eta Negoziazio kolektiboa enpresariei boterea borro-

katzeko borroka esparru nagusia dela ulertzen jarraitzea.

7.1.1. Negoziazio kolektiborako marko eta eredu propioaren defentsa erreforma gainditzeko

(231) LABen ikuspegitik eta Euskal Herriko langileei ahalik eta babes zabalena emateko helburuz, hemengo negoziazio kolektiboa ezin da mugatu estatuko eta enpresetako negoziaziora. Estatuko negoziazioek bertokoek baino baldintza kaskarragoak jartzen dituzte eta milaka eta milaka langilerentzat, baldintza prekarioenak dituztenentzat, enpresetako negoziazioa ez da alternatiba erreala .

(232) Negoziazio kolektiborako euskal esparruaren defentsa egin behar da, horretarako bertoko hitzarmenak mantendu eta blindatu egin behar dira estatuko negoziazioaren aurrean.

(233) Aldebakartasunaren kontrako borroka egitea ere bada gaur negoziazio kolektiboaren estrategia zuzendu behar duena eta blindatzeko modu bat, derrigorrezko arbitrajearen kontra eginez, negociaziorik gabeko negociazio kolektibo eredu inposatu digutelako. Ikuspegi estrategiko eta ideologikoz helduko diogu LABen borroka honi.

(234) Aldebakartasunaren eta enpresarien gehiegikeriek behar duen alternatiba lan harremanetarako eredu demokratiko eta partizipatiboa ezartzea da LABen iritiz.

(235) Ez goaz, beraz, erreformak utzitako testuinguruaren arabeko negociazio estrategia definitzera, erreformaren kontra egiteko eta erreformaren ondorioei aurre egiteko estrategia bat definitzera baizik. Horretarako aukera errealak badaude borondatea baldin badago. Egun enpresariak ez duten borondatea da derrigortu behar duguna borrokaren bidez.

(236) Langileentzat ezezik, borroka hau estrategikoa da baita sindikatuontzat ere. Sindikalismoa ezinbestekoa da enpresarien gehiegikeriei aurre egiteko eta mugak jartzeko. Langileriaren eskakizunak eta parte hartzea bideratzeko bitartekoak gara, baina ezinezkoa dugu funtzio hau benetan bete, eredu guztiz antidemokratikoa bada. Sindikalismoa betirako indargabetzeko erabakia dago eredu honen atzean.

(237) Baina sindikatuak ez gara aldebakartasunaren alternatiba bere horretan. Alternatiba eraikitzeke erantzukizuna bereganatuz langileriak eredu demokratiko baten alde borroka egiteko duten bitartekoak baizik, eredu demokratiko bakarra eskubideak aitortzen dituen eta erabakiak hartzeko bide demokratikoak ziurtatzen dituen delako.

(238) Garrantzi eta dimentsio berria hartzen du, beraz, negociazio kolektiborako euskal esparruaren eta ereduaren aldeko borroka. Lan harremanen eredu demokratizatzeke eta berritzeke behar beharrezkoa den heinean, Madrilek daukan inposizio gaitasuna gainditzeko edo baldintzatzeko.

(239) Lan legeria berton erabakitzeko eta garatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, beraz, marko berri batek euskal langileei ekarri behar dien aldaketa politikorik nagusienetako dela ulertzen dugularik.

(240) Euskal eragile eta instituzioek anbizio osoz jokatu beharko genuke zentzu honetan eta hori da LABetik exijitzen duguna. Negoziazio kolektiboaren artikulazioa eta eredu berton erabakitzea hautu politikoa da, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea aldarrikatu eta defendatzen duen orok egin behar duen hautu politikoa.

7.1.2. Patronalak lapurtutako eskubideen aldeko negociazio estrategia.

(241) Langile eskubideak defendatzeaz ari garenean ez dugu gaur gure eskubideak bizi duten egoera aintzat hartzen, badagozkigun eta lapurtu dizkiguten eskubideetaz baizik. Lan eskubideen aldeko borroka ideologikoa berreskuratzea eta sektore zein lantokietan ofentsiba sindikal antolatu eta integral bat garatzea izango da gure erronka datozen urteetan. Luzera begira eta ikuspegi estrategikoaz egiten dugu. Eta galde-za harrei erantzun berrituak emateko helburuarekin egingo dugu, erresistentzia inobilismoarekin pare-

katzea baztertzen dugulako, are gehiago transformazio baten erdian gaudenean eta gure helburua eredu berri baten aldeko eraldaketa prozesuaren eragileak izatea denean.

(242) Eredu berri bat eraikitzea da gure helburua beraz, ez atzeko egoerak berreskuratzen saiatzea. Iraganak ez dira errepikatzen eta gainera ez dago langileriaren esku-bideak benetan ziurtatu eta garatu dituen garairik. Emakumeei galdetzea besterik ez dago: hazkunde garaietan langileriari, oro har, sortzen zen aberastasun guztiaren zati txikia heltzen bazitzaion ere, emakumeek hutsaren hurrengoa eskuratzen zuten, aberastasun horren sorrera emakumeen lan merkaturatze guztiz prekarioari esker izaten zelako, besteak beste.

(243) Lan harremanen eredu berria inplementatzeko bitarteko nagusia da negoziazio kolektiboa. Eta hori behar luke izan krisi honen baitan egin beharko litzatekeena. Baina eredu berriaren eztabaida egiteko inolako borondate politikorik ez dagoelarik, gaur funtzio nagusi bat du negoziazio kolektiboak: unilateraltasuna borrokatzea, bertoko hitzarmenak defendatzea eta krisiari aurre egitea enplegua babestuz eta lan munduan aberastasuna banatuko duten neurriak hartuz.

(244) Eremuei dagokionez, LABek negoziazio eremu guztiak ulertzen ditu borroka esparru moduan, sektoreartekoa, sektoreak eta enpresak. Guztietan parte hartuko du marko eta eredu propioa defendatzen.

(245) Negoziazio kolektiboa borroka esparru nagusia dela esan dugu, are gehiago testuinguru honetan. Erreformak patronalari ematen diona da lan harremanak desarautzeko aukera eta negoziazio kolektiboaren bidez lortutako akordioei balioa kentzen zaie, aldebakarrez nahi dutenean adostutakoa aldatu dezaketelako.

(246) Eredu honek negoziazio kolektibo gatazkatsu batera eramaten gaitu. Enpresariei behar duten guztia ematen zaie, ez daude derrigortuak ordea bere horretan aplikatzera eta gure borrokarako gaitasuna izango da erreformaren ondorioak saihestu ditzakeena. Testuinguru honetan gehiengoan errespetuan oinarritzen den estrategiak are garrantzia handiagoa hartzen du, ezin dugulako tresna bakar bat gehiago ere patronalaren esku utzi.

7.1.3. Borrokatu beharreko aldarrikapen nagusiak

(247) Urte luzeetako borrokaren ondorioz lortutako eskubideak egun bakar batean gal ditzakegu. Egun atzera ez egitea bere horretan borroka bat da. Edukiei dagokienez, orain arteko berdinak aldarrikatzen jarraituko dugu, jakitun izanik negoziazioak zailagoak izango direla. Eskubidea bera da lehenik eta behin defendatu behar duguna, euskal eremuan adostutako akordioek balioa izan dezaten. Hori dela eta nagusiki arreta ondorengo puntuetan jarri beharko dugu:

(248) **Enpleguaren defentsa:** krisiaren hastapenetan behin behinekoak kaleratu zituzten inolako kosturik gabe. Ondoren, enplegu finkoaren suntsiketa etorri da. Espedienteak izugarri ugari dira eta ugari tuko dira, erreformarekin erraztu egin delako. Kaleratze indibidualak ere ugari tuko dira, kaleratze librea eta ia doakoa ezarri delako. Bestalde, enpresariei malgutasun handiagoa inposatzeko aukera ematen zaie, honek ere enplegu galera ekarriko duelarik. Lantokietan espedienteak daudenean edota malgutasun gehiago inposatu nahi dutenean, enplegua defendatzeko proposamenak egin behar ditugu.



(249) Momentu honetan langileek duten beldurrik handiena enplegua galtzea da. Honek zaildu egiten du beste bide batzuetatik etor daitezkeen erasoen benetako dimentsioaz jabetzea eta baita beste eskubide batzuen alde borrokatzea ere. Honela, negoziazio kolektiboan edota enpresetan enplegua defendatzeaz gain, une honetan enpleguaren defentsari dimentsio konfederala eman behar zaio.

(250) **Soldatak:** azken urteetan, hazkunde ekonomiko urteak barne, soldaten pisua sortzen den aberastasunarekiko murrizten joan da. Krisiaren hastapenetan doikuntzak batez ere enpleguan eman ziren eta horrek langabezi tasa izugarriak ekarri ditu. Lanpostuak suntsitzen jarraitzen dute eta horrekin batera azkenaldian soldaten aurkako erasoaldian sartu gara. Soldatak KPlaren erreferentziatik aldentzeko asmo nabarmena agertzen dute enpresariet edota aldagarriak eta lortu ezinezkoak diren kontzeptuen arabera soldata igotzeko proposatzen dituzte. Gainera erreformak adostutako soldatak ez aplikatzeko bitartekoak eman dizkie.

(251) Soldaten defentsak indar berezia hartuko du testuinguru honetan eta KPla soldata igoerarako gutxieneko erreferentzia baliagarria da.

(252) **Indarraldia:** erreformarekin ultraktibitate printzipioa desagertzen da, orain arte hau izan da hitzarmen berri bat negoziatu arte aurrekoa indarrean mantentzeko bermea. Erreformak bi urtetara mugatzen du berme hau, eta hitzarmenetan negoziatu beharko dugu beste bat negoziatu arte indarrean egongo dela.

(253) Hau garrantzi handia duen gaia da, hitzarmena bere osotasunean arriskuan egoteak guztiz baldintzatzeko delako negoziazio osoa enpresariet mesedetan.

(254) **Derrigorrezko arbitrajetik ez:** enpresei hitzarmenetan jasotakoa ez betetzeko aukera ematen zaie, desadostasunak daudenean derrigorrezko arbitrajea inposatzen du erreformak. Erreformaren beste ondorio larrietako bat da. Honela sindikatu eta langileak indargabetzen dira eta enpresariet aldeakartasuna indartzen duen tresna bilatzen da arbitrajea.

(255) Ezinbestekoa da, borondatezkoa ez den arbitrajetik ez dugula ontzat ematen negoziazioetan sartzea.

(256) **Malgutasuna:** negoziazioetan adosten ez bada ere, lanaldiaren %5eko malgutasuna oparitu diete enpresariet. Enplegua suntsituko duen neurria da eta bateragarritasunarekin guztiz kontrajarria. LABek jarra argia du malgutasuna areagotzearen aurka eta legeak ematen dien ehuneko hori ez dutela erabiliko negoziatu behar dugu edo mugatu behar dugu.

(257) **Aukera berdintasuna:** Krisiarekin, berdintasunaren aldeko aitorpen politiko edo formala ere ezerezean geratzen ari da. 2007an onartu zen aukera berdintasun legea. Lege honetan ez zegoen inolako konpromiso errealik, ez zuen ezertara derrigortzen eta guztia negoziazio kolektiboaren esku uzten zuen. Lege honen baitan enpresetan negoziatu beharreko aukera berdintasun planek ezer gutxirako balio izan dute, baina orain are zailagoa izango da negoziazio kolektiboari egiten zaion erasoarekin.

7.2. Aktibazio eta mobilizazioa herritarren eta langileen protagonismoa sustatzeko

(258) Urteetako borrokarekin eskuratu ditugun eskubideak egun bakar batean lapurtu ahal dizkigutela ikusi dugu krisi honetan. Langileontzat ez da ikasgai berria, zorritzarrez. Baina urte hauetako erasoaren tamaina berria da. Krisiaren dimentsioa da arrazoietakoa bat, aztertu dugunez. Kapitalaren diru gosea asegaizta da, baina gaur gertatzen denaren azalpena ez datza kapitalaren jarreraren besterik ez. Kapitalak bere eskakizun guztiak lortzeko bere zerbitzura dituen instituzioetan eta herritarren parte hartzerik gabeko eredu politikoan dago oinarritzeko arazoa. Eta hori horrela izatea ahalbideratu duen klase politikoan bereziki.

(259) Herri ekimenei, mobilizazioei eta aktibazio sozialak garrantzi eta dimentsio berria dute testuinguru honetan. Hartzen ari diren erabakiak salatzen eta egoera berriak sortzen presio bide nagusia dira, gaur

atzo bezala. Baina are gehiago da aldaketa sozialaren bidea jorratzeko behar beharrezkoa diren bi funtzio betetzen dituztelako: aldaketa prozesuan parte hartze soziala ziurtatzea eta aliantza sozialak bideratzea hain zuzen ere.

(260) Ez gara noski manifestazioetara mugatzen den mobilizazio eta aktibazio ereduaz hitz egiten ari. Herritarren eta langileriaren protagonismoa sustatzeko eta bideratzeko helburua duen mobilizazio, ekinbide eta aktibazio sozialaz baizik. LABek norabide bikoitzean lan egingo du langileriaren protagonismo soziala sustatzeko, beraz: mobilizazioa sustatzea eta indartzea batetik; langileriaren parte hartzea bultzatzea eztabaida eta ekinbide sozialetan bestetik.

7.2.1. Lan munduko mobilizazio eta borroka eremuan sakondu beharra

(261) Mobilizazio eta borroka da lan merkatuan enpresariei boterea borrokatzeko dugun bitarteko nagusia. Borroka sustatzea eta eraginkortzea behar eta buruhauste iraunkorra da gure eredu sindikalaren bilakaeran eta hurrengo urteetan ere horrela izango da. Bi ardatzen gainean sakonduko dugu gure mobilizazio eremuan eta estrategian.

(262) **Grebak eta lanuzteak.** Errealitate bat da langileriaren gehiengoak greba eskubidea bortxatua duela eta nabarmen kamusten du horrek langileriaren borrokarako gaitasuna. Ezin dugu, beraz, grebetara mugatu lan munduan gure eskubideak defendatzeko eta gure aldarrikapenak indartzeko estrategia. Baina hori bezain argi esaten dugu ez dagoela grebak eta lanuzteak alboratuta finkatu daitekeen langile borroka eredu eraginkorrik.

(263) Greba eskubidearen defentsa bere horretan da borroka bat. Lan eskubidea da eta horrela defendatu eta aldarrikatuko dugu. Beste lan eskubideak bezala, greba ere kapitalaren jo puntuan dago momentu honetan. Patronalak greba eskubidea guztiz murriztu eta langileriaren borroka bitarteko hau zeharo desaktibatze ofentsiba zabala abiatu eta erasoak etengabekoak izaten ari dira, eraso legalak (zerbitzu minimoen erabilera gehiegizkoa, legedia aldatzeko ahaleginak...) zein ideologikoak (greba eskubidea lan eskubideari kontrajartzea, eraginkortasunari buruzko zalantza zabaltzea, egoera ekonomiko "kaltetuari" kalte are handiagoa dakarkiola sinestaraztea...).

(264) Konfliktibitatearen aldeko apustua egin duten honetan, langileen borroka ahultzeko fronte guztiak zabaldu dituzte. Eraso honek berak ematen dio balioa grebari, erasoaren tamainak argi uzten duelako min egiten diela. Beraz, greba eskubideari eusteari ere izango dugu borroka, langileriaren bitarteko beharrezko eta ordezkaria den heinean. Patronalaren aurrean ez ezik, LABek instituzioetara ere eramango du eskubide honen defentsan konpromiso politikoak har daitezten.

(265) Borrokaren eraginkortasunak, grebarekin batera borroka molde berri edo osagarrien beharri buruz hitz egitera garamatza. Sektore bakoitzaren errealitatearen arabera, kapitalari ahalik eta presio gehien eta langileei ahalik eta kostu sozial txikiena eragingo dien borroka moldeak erabili beharko dira.

(266) Eta horrekin batera, grebaren eraginkortasuna indartuko duten erabaki berriak hartu behar ditugu. Hiru izango dira gure lehentasunezko eztabaidak:

- Greba eskubidea formalismo hutsa den sektoreetan borroka egiteko aukerak ziurtatzeko bideak. Sektore atomizatuei buruz ari gara, feminizatuak gehienetan.



Azken erreformak negoziazio kolektiborako eskubidea ezerezean utzi dituen sektoreak dira gainera.

- Zerbitzu publikoetako langileen greba eskubidea bortxatzeko egiten den zerbitzu minimoen iruzurrezko erabilpena borrokatzeko bideak bilatzea, eta zerbitzu minimoen erabilpena eremu berrietara zabalatzeko asmoei aurre egitea.

- Ekoizpen eredian eta lana antolatzeko eredian izaten ari diren aldaketek greba eredian eta grebaren erabilpenean dituzten ondorioak aztertzea eta eraginkortasun bideak bilatzea.

(267) Ondorioz, LABek alboratu egiten ditu bake soziala hitzarmenen bidez ezartzeko patronalaren eskakizunak negoziatzea. Unilateralitasuna, beraz gaurko eredia, bake sozialaren guztiz kontrako hautua da. Gatazka eta konfrontazio iturri da eta izango da.

(268) **Lantokiak borroka eta mobilizazio guneak.** Lantokiak dira enpresarien aurrean gure eskubideak aldarrikatzeko eta borrokatzeko dugun gune nagusia, bai eta aldaketa prozesua langileriaren ekimenez indartzeko eta langileriaren parte hartzearekin baldintzatzeko ere. Funtsezko eremua da borroka ideologikoa egiteko eta langile mobilizazioa suspertzeko.

(269) Lantokietan, era berean, langile borroka indartzeko ditugun zailtasun eta oztopo nagusiak konkretatzen dira. Ezagunak ditugu prekarietatearen, behin behinekotasunak suposatzen duen txantai iraunkorraren, langileen arteko zatiketaren edota indibidualismoa nagusitu izanaren ondorioak norainokoak diren. Ez diegu garrantzia kendu nahi, eta ez ditugu izkutatuko erabakiak hartzeko garaian. Baina ezintasunaren inguruko eztabaidan katramilatu gabe, erabaki berriak hartzeko aukerak emango dizkigun eztabaida nagusitzea da gure asmoa.

(270) Gure eskubideak defendatzeko eta eredu berri baten alde egiteko langileen artean dagoen borrokarako prestasunari begiraturik finkatu nahi ditugu gure erronkak. Utz diezaiogun borrokatu nahi ez duenaren araberrako eztabaidak egiteari eta bilatu ditzagun borrokatzeko prest daudenei eskaintza sindikal eraginkor eta baliagarri bat egiteko bideak.

(271) Testuinguru guztiz konplikatu honetan LABen egiten dugun hautua langileriaren antolaketa eta borroka indartzea da, noski. Langileen arteko eztabaida, lankidetzeta eta elkartasuna indartzea da gure helburua, izaera kolektiboa duten ekimenak bultzatuz eta sindikatuaren aurkako ildoak direnak eta bestela onartuko ez genituzkeenak justifikatzeko erabili ohi dira. LABek ez ditu batzarrak horretarako deituko.

(272) Sail sindikal ohikoak eratzea ezinezkoa den enpresa zein sektoreetako langileak antolatzeko eta biltzeko moduak aztertu eta abiatuko ditugu. Honek berebiziko garrantzia dauka berez prekarietaterik handiena pairatzen duten eta konfrontazioari posizio ahulago batetik ekiten dioten sektore atomizatu eta feminizatuetan.

(273) Langileen batzarrak deitu beharko genituzke, beti ere borroka antolatzeko asmoz eta enpresariei espazioa irabazteko xedearekin. Azken urteotako esperientziak erakusten digu, batzuetan asanbladaren erabilpen okerra egiten dela. Gatazka indargabetzeko edota sindikatuaren aurkako ildoak direnak eta bestela onartuko ez genituzkeenak justifikatzeko erabili ohi dira. LABek ez ditu batzarrak horretarako deituko.

(274) Badakigu ez dela biderik errazena, gaur nagusi diren joera guztien kontra egitea eskatzen duelako eta emaitzak luzera ematen dituen bidea delako. Langile batasunaren eta sindikalismo eredu baten aldeko hautua da, Euskal Herriko enpresa egiturarekin lotzen duguna, enpresa gehien gehienak ertain edo txikiak direlako. Sindikatuak langileria antolatzeko bitarteko estrategikoak gara hauetan guztietan. Aktibazio eta mobilizazio ereduak langile guzikiak barne biltzea da LABen helburua.

(275) Horregatik oso garrantzitsua da lantokietan egiten diren borrokek jendartearekin konpartitu eta inplikazioa lortzea.

7.2.2. Lantokietatik kanpo ere sindikalismoa mobilizazio eta aktibazio sozialaren erreferente

(276) Gehiengo sozialaren interesak gehiengoaren indarrarekin defendatzea eta borrokatzea da aldaketa politiko eta sozialak burutzeko hartu dugun bidea. Behar beharrezkoa da elite ekonomikoaren interesak gailentzen dituzten instituzioen erabakiak aldatzera behartzeko, patronalaren eta klase politikoaren desprestigioa areagotzeko, gure izenean eta beti gure kaltetan erabaki politikoak hartzen dituztenei bizkarra emateko.

(277) Gaur nagusi den eredu politikoaren krisian sakondu behar dugu gauzak berrantaldutako baditugu. Babesa guztiz kendu behar zaie, horretarako presio soziala areagotu eta konfrontazio demokratikoa indartu behar dugu.

(278) LABek mobilizazio soziala sendotzeko eta handitzeko prestasun osoa dauka. Esan bezala, herritarren protagonismoa sustatzea indartzen duten eredu mobilizaziozailen alde egiten dugu eta aldarrikapenak eta borrokek konpartitzen ditugunon arteko lankidetzari balio berezia ematen diogu.

(279) Herritarrak aktibatzekeo aproposenak diren diseinu eta markoak lehenetsiko ditugu. Nazio manifestaldiak baliagarriak eta beharrezkoak dira borroka zehatzetan urrats berriak eragiteko eta ez ohiko salaketak egiteko; ez, ordea, herritarren aktibazio iraunkorra bideratzeko. Oihartzun mediatikoari baino garrantzi handiagoa ematen diogu aldaketa sozialaren bidea egiteko ezinbestekoa den parte hartze soziala indartzeari. Hori dela eta, eskualdeetan egiten diren plangintzek garrantzi berezia hartu behar dute sindikatuaren agendan. Bertoko errealitateen arabera borrokek bertoko eragile eta biztanleei begirako aliantza eskaintza bat egitea ahalbideratuko digu. Aldaketa politiko eta sozialerako norabidea argi izanda, edukien inguruan dispersioa ekidinez, tokiko mobilizazio soziala bultzatuko du LABek. Sindikalismoa erreferente bihurtu behar da enpleguaren eta zerbitzu publikoen defentsaren aldeko borrokan, ekintza sindikalaren bidez egiten ari garenak jendartean borrokek sustatu eta aliantzak eraikitzekeo aukerak sortu behar ditu.

(280) Eta, bukatzeko, aktibazio soziala manifestaldietara mugatzen duen eredu gainditzea guztiz beharrezkoa ikusten dugu. Aldaketa politiko eta sozialak bultzatzeko borroka geroz eta jende gehiago lotzea da gaur antolakunde eta eragileen behar nagusia. Horretarako bideak eskaini behar ditugu beraz, joera sozialak aztertu eta errealitate sozialari sakonean begiratuta. Antolaketa, aktibazio eta mobilizazio eredu zaharkituak berritzeko oinarriak finkatu behar ditugu parte hartze sozialerako zailtasun bereziak eta egiturazkoak dituzten eremuei zor diegun arreta jarritz. Emakumeei eta bazterketa soziala bereziki sufritzen duten kolektiboek buruz ari gara noski.

(281) Zentzu honetan, gogoratu nahi dugu pobrezia eta bazterketa soziala parte hartze sozialerako eskubidea urratzen duten egoerak direla. Beraz, mobilizazio eta aktibazio ereduak estrategia integrala definitzea eskatzen du: antolakundeetatik gertu dauden eremu sozialak aktibatzekeo bai, baina antolakundearen eremuetatik urrun dauden eremuei begirako eskaintza berezitatekin ere bai.

7.3. Eragile sindikal eta sozialekiko aliantza politika

(282) Elkarlan sindikal handia egon da azken urteotan euskal sindikatuon artean. Hor dago krisiari Euskal Herrian eman zaion erantzun sendo eta tinkoaren arrazoi nagusia. Mugimendu sozialetara ere hedatu dugu lankidetzaren eremua. Gure eskubideen kontra



egiten ari diren erasoak ahalik eta indar gehienak biltzea eskatzen duelako bilatu dugu elkarlana, oso argi dugulako krisiaren kontrako eragileon arteko zatiketak eta sakabanaketak gure indarrak xahutu egiten dituela.

(283) Erantzun indartsua emateak batu gaituelarik orain arte, alternatibaren bidea jorratzeko behar beharrezkoak diren adostasunak eta akordioak eraikitzea da lankidetzan aurrera egiteko batu behar gaituena. Hori izango da aurrerantzean LABen erreferentzia aliantza sendo eta egonkorra eraikitzeko.

(284) 2005ean finkatu genuen gure aliantza politika, bertan zehaztutako oinarri eta ardatzak balio osoa dute. Erabaki haiek berretsi egiten ditugu eta horiek izango dira gure erreferentziak. Ez dugu, beraz, gure aliantza politika aldatuko. Baina azken urteetan egin dugun bideak, Euskal Herriak bizi duen testuinguru historikoak eta langile klasearen interesen kontra egiten ari diren erasoaren neurriak inizatiba berriak hartzeko beharra nabarmentzen dute.

(285) Sindikalismo abertzalean momentu guztiz berezi honek eskatzen duen eztabaida estrategikoa egiteko garaia da LABen ustez. Momentuko beharrei erantzuteak duen garrantzia inolaz ere alboratu gabe, luzerako ikuspegiarekin egin behar dugun eta egiturazkoak diren gaien gainean egin behar dugun eztabaida da. Lan Harremaneterako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzeko bidea zein den, aldarrikatzen dugun eredu sozial berriaren zutabeak zeintzuk izan behar diren, edota politika instituzionalak aldatzeko konfrontazio estrategia instituzioen aurrean eta instituzioetan bertan nola eraginkortuko ditugun dira egin behar ditugun eztabaidetako batzuk.

(286) Aldarrikatzen ditugun aldaketa politiko eta sozialen borrokan aurrera egiteko aukerak eta indarrak non dauden arakatzeari, eztabaidatzeaz eta adosteari ari gara, beraz. Lau greba orokorrek erakutsi dute masa sozial nahikoa dagoela aldaketak behartu ahal izateko, beraz aldaketa horiek gauzatzeko bideak finkatzeko garaia dela pentsatzen dugu LABen.

(287) Eduki sozioekonomikoan oinarrituko dugu aliantza sendo eta egonkor bat eraikitzeko LABen eskaintza, euskal sindikatuak luzatuko dieguna akordio orokorrek eraiki ahal izateko. Akordio zehatz eta partzialak ere bilatuko ditugu, borroka zehatzak elkarlanaren bidez indartzeko asmotan.

(288) Negoziazio kolektiboa izango da lantokietan aliantzak bilatzeko eremu nagusia. Helburuak konpartitzea eta borroka estrategian bat egitea izango da elkarlana posible egingo duten arrazoiak, indarrak batzea gure negoziazio estrategiaren ardatza izango delarik. Hitzarmenez hitzarmen ikusiko dugu zeintzuk diren gauzatu daitezkeen aliantzak, elkarlana lagundu edo ezinezkoa egiten duten jarrera sindikalak daudela kontuan hartuz dena dela ere.

(289) Eragile sozialei dagokienez, eskualdeak eta herriak izango dira elkarlanerako gune nagusiak. Eta kasu honetan ere, borroka zehatzak konpartitzea eta lankidetzaren bidez indartzea izango da LABen lerroa. Ez ditugu bestelako elkarguneak baztertzen, dinamika, mobilizazio edota ekimen orokorrek aurrera ateratzeko beharrezkoak eta egokiak ikusten ditugulako. Baina eragile gehienak lokalak izanik, herriak dira elkarlanerako marko natural eta eraginkorrenak.

(290) Eskubide sozialen aldeko borrokaren gainean bultzatuko ditugu bat egiteak eragile sozialekin. Ahalegin bereziak eginez enpleguaren, babes sozialaren eta zerbitzu publikoen aldeko borroka Euskal Herriko bazter guztietara eramateko. Ez ditugu borroka hauetan gure bidailagunak jotzen ditugun guztiak zeintzuk diren zerrendatuko, baina gazte mugimenduekin eta mugimendu feministarekin aliantza sendo eta egonkorra bilatuko ditugula azpimarratu nahi dugu.

7.4. Instituzioak, politika publikoak eta eredu politikoa aldatzeko borroka esparrua

(291) Benetako aldaketak ez dira instituzioetatik etorriko, langileriaren eskutik etorriko dira edo ez dira egon-

go. Horrela hasi ginen krisi honen kontrako ibilbidea egiten eta hiru urte pasa ondoren arrazoi gehiago ditugu berdina esaten jarraitzeko.

(292) Orduko egiturazko muga berdin-berdinak dituzte gaurko instituzioek. Euskal instituzioek ez dute eredu ekonomiko eta sozial berri bat definitzeko eta erabakitzeko ahalmenik, ezta aldaketa prozesu bat bideratzeko behar-beharrezkoa den bitartekorik ere.

(293) Hiru urte hauetan hartu diren erabaki politiko eta instituzionalek egoera nabarmen okertu dute. Estatura zentralizazio prozesu ageriko batean dago eta politika propioak bertan egiteko aukerak oraindik eta gehiago mugatzen ari dira, hartu diren erabaki instituzionalek politika publikoen aukera itzel baldintzatu dutelako.

(294) Gauzak horrela, geurean berresten gara. Aldaketa sozialaren prozesua ezin da instituzioetatik garatu, instituzioetan bat edo bestea buru egonda ere. Horrek ez dizkie instituzioei gaurko egoeran dituzten erantzukizunak kentzen eta, batez ere, horrek ez du instituzioek aldaketa prozesuan jokatu beharreko papera auzitan jartzen. Eredu soziokonomiko berri bat eraikiko badugu, eredu politiko eta instituzionala aldatu behar dugu eta hori instituzioetatik egin behar da. Eta eredu berri bat eraikiko badugu, herritarrok boterea berreskuratzen dugulako izango da, eta hori erabaki eta botere gune guztietatik bideratu behar da, instituzioetatik bereziki.

(295) Borroka instituzionalak, klase eta nazio estrategiatik, aldaketa politiko eta sozialerako mobilizazioaren eta indar bilketaren parte izan behar da; borroka ideologikoa astintzeko balio behar du; eraiki nahi dugun eredu erabakitzeko dauden defizit estrukturaletaz jabetzeko balio behar dio euskal langileriarri; eta ekintza instituzionalaren balio erantsi bihurtu behar du estatuei zein botere ekonomikoetara insumisioa.

(296) Bestelako politika sozial eta ekonomikoak egiteko ezin gara egon egun zehatz baten zain. Estatuari egiten uzteak eta legediaren zirrikituak aprobetxatzen saiatzeak krisialdian are gehiago hondoratzea baino ez du ekarriko. Gauzak bestela egin zitezkeen bere momentuan horretarako borondate politikoa egon balitz, baina euskal instituzioak gobernatu dutenek eta oraindik orain gobernatzen dutenek estatuetako politikak kopiatzeari ekin zioten, horrek euren klase interesak zaintzen zituen eta.

(297) Euskal instituzioei exijitzen diegu erabakitzeko ahalmen osoa berenganatzeko behar diren inizatiba guztiak har ditzaten, hemen eta orain. Ez dago aitzakirik, eskuduntzak dauden kasuetan aldatu ditzatela burutzen ari diren politikak eta eskuduntza nahikorik ez dagoen kasuetan, aldarrikatu ditzatela eta edukiko bailuten jardun dezatela.

(298) Instituzioak borroka esparru bat dira LABentzat, beraz. Politika publikoak eta eredu politikoa aldatzeko borroka esparrua, instituzioen aurrean jarriz eta instituzioetan parte hartuz egingo dugun borroka hain zuzen ere.

(299) Borroka esparru moduan ulertzen ditugu, baina ez gaurko markoa ahalik eta modu probetxugarrienean gestionatzeko helburuz edota marko horrek uzten digun neurrian ahalik eta politika sozialenak egiteko. Instituzioetatik politiken norabidea guztiz aldatu behar da eta hori lortzea ezinezkoa da aldaketa galarazten duten gaurko instituzioen mugen kontrako borroka egiten ez bada. Beraz, horixe da instituzioei dagokienez, LABen borroka bideratuko duen helburua.



7.5. Nazio eraikuntzaren bidean, herri autogestioa

(300) Inposatzen diguten eredu kapitalistarekiko alternatiba eraikitzeke orduan, eta borroka sindikal, sozial eta instituzionalarekin batera, bada ezinbestekoa den laugarren hanka bat: herri autogestioa edo herri ekimena.

(301) Euskal Herrian, eremu askotan garatu izan den filosofiaz ari gara, bereziki euskara eta euskal kulturaren alorrean (ikastolak, euskaltegiak, komunikabideak), gazte eremuan (gazte espazioak) edota jaien antolaketan (jai batzordeak). Alor sozioekonomikoan ere esperientziak izan dira, langile etxeetara berogailua eramateko kooperatibak, birziklaia sustatzeko elkarteak edota herri azokak, besteak beste.

(302) Krisiaren eta eraso neoliberalaren aurrean, sistema elikatzeari utzi eta praktika alternatiboak burutzeko proposamenak biderkatu dira: kontsumo taldeak, atez ateko bilketa sistema, banka etikoa, denboraren bankua, elektrizitatea kudeatzeko kooperatibak, Euskal Herria ekonomikoki saretzeko ekimena, txanpon alternatiboa sortzeko lpar Euskal Herritik datorren proposamena...

(303) Egitasmo bakoitzak bere ezaugarriak baditu ere, oro har langileok, kontsumitzaile, erabiltzaile eta auzokide ere garen aldetik, dagokigun erantzukizuna geure gain hartzea eta horrek ematen digun boterea erabiltzea da gakoa.

(304) Gure eguneroko praktikaren bidez, sistema kapitalista elikatu ordez, alternatibak elikatu ditzakegu, esaterako, Marokon baldintza zehatz batean ekoiztu eta garraiobide txikitzaileak erabiliz merkatal gune erraldoi bateraino iritsi den tomatea erosi ordez, geure baserritarrek sortutakoa haiei zuzenean erosten badiegu.

(305) Eraginkorrak izateko, norbanako askoren inplikazioa eta antolaketa kolektiboa eskatzen duten egitasmoak dira hauek guztiak. Auzolanaren ideian oinarritzen dira, azken batean. Kasu batzuetan, babes instituzionala daukate, udal mailakoa edo bestelakoa.

(306) LABen asmoa ez da egitasmo bakoitzaren inguruko irizpideak ematea. Egitasmoan parte hartzen duten horiek egin behar dute bidea, akatsetatik ikasiz eta ongi egindakoekin urrats berriak emanaz. LABek herri autogestioa edo auzolanaren filosofia aldarrikatzen du eta aurrerantzean sustatuko du, nazio eraikuntzaren gaineko ikuspegi integral batetik.

(307) Hori bai, gure ustez autogestioaren bidez soilik ezin da alternatiba eraiki, alegia, ezin da sistema alternatibo oso bat eraiki sistema kapitalistaren ondoan. Era berean, autogestioaren bidez ezin da estali edo konpentsatu instituzioek egin beharko luketen eta egiten ez duten bidea. Baina era berean diogu, autogestioa edo auzolana, sistema kapitalistarekiko alternatibak eraiki eta eraldaketa prozesua bultzatzeari begira osagai garrantzitsua dela.

8. Antolakuntzan ere ireki behar dugu ziklo berri bat



(308) LAB sindikatuak estrategia politiko eta sindikalean egin behar duen dimentsio bereko berrikuntza eta aldaketa egin behar du antolakuntzaren esparruan ere. Ez da nahikoa diagnostiko egokia izatea eta norabidea asmatzea. Egin beharrekoa nola egin behar dugun zehaztea eta gauzatzea lehentasunezko afera izan behar dira guretzat. Langileria eta kapitalaren arteko konfrontazioa behar bezala ezaugarrituko badugu, ezinbestekoa da guretzat langile klasearen eta bere indarren antolaketa eremuan asmatzea.

8.1. Klase estrategiarako sortu ditugun baldintza berrietan dago antolakuntza ziklo berriaren arrazoia

8.1.1. Langileriaren antolakuntzari buruzko gogoeta estrategikoa

(309) Euskal langileria klase subjektu ekonomiko eta politiko gisa egituratzea helburua da bere horretan. Klase kontzientzia irabazteko eta ikuspegi horri indarra emateko bidea da. Subjektu gisa nortasuna eraikiz soilik lor daiteke langile klasearen interesen defentsan aurrera egitea. Langileak klase kontzientzia sendotzen duenean jendartearekiko jarrera kolektiboa hartzen du, jendarte horren kohesioa bera indartuz.

(310) LAB sindikatuaren funtsa, euskal langileriaren interesak defendatzea da. Klase kontzientzia indartu, langileak antolatu eta langileen eskubideen defentsa egitea.

(311) Antolakuntzaren balioan sinesten dugu. Kapitalari aurre egiteko modu bakarra antolatzea eta gure eskubideen defentsa egitea izan da. Antolakuntzaren nolakotasuna eztabaidagai egon daiteke, baina antolakuntzaren funtsa eta baliagarritasuna ez daude kolokan fase politiko eta ekonomiko honetan. Gure antolakuntza ereduak proiektu eta estrategia politiko baten zerbitzura egon behar du.

8.1.2. Krisi ekonomikoaren harira, sindikalismoa eragiteko baliabiderik gabe utzi nahi dute

(312) Sindikalismoa egiteko eredu klasikoa agortuta edo agortze bidean dagoela azpimarratu izan dugu eta LABek bere burua eredu berri baterantz jarri du. Sindikatuok, orokorrean, produkzio eremuan eta jendarte egituraren izan diren aldaketara egokitzen ari gara, horren erakusgarri azken greba orokorrak izan duen oihartzun sozial zabala izan da. Gainera, sindikalismoak estatu eredu batean jokatzeko klaseen arteko negoziaketaren solaskide funtzioa bertan behera utzi dute eta, kapitalaren aldeko eredu aldebakarrekoa ezarri dute.

(313) Hau guztia langile subjektuaren sakabanaketa, eta klase kontzientziaren eta prestigio sindikalaren kontrako eraso ideologikoarekin lagundu dute. Krisi ekonomiko honen testuingurua langileak babes kolektiborik eta antolakuntza eraginkorrik gabe uzteko baliatzen ari dira.

8.1.3. Gure strategiak eskatzen duen eredia

(314) LABek jendarte egituraren, ekoizpen eremuan eta sindikalismoan izan diren aldaketak kontuan izango ditu antolaketa eredia egokitzeke. Langile klasea bere oso-

tasunean subjektu gisa eraikitzea eta jendartean indar harremanak aldatzea da gure xedea. Aipatu ditugun aldaketek are eta garrantzi eta balio handiagoa ematen diote helburu estrategiko horri. Langile klasea zatitzeko eta bereizteko, langile multzo handiak baztertzeko edo aintzat ez hartzeko joerak bistakoak dira, eta horien aurrean LABek elkartasuna, borroka kolektiboa eta langileriaren batasuna lehenetsiko ditu. Horretarako LABek bere sail sindikalak indartu eta gorpuzteaz gain, sail sindikalak biderkatzeko estrategia bat martxan jarriko du. Enpresetan borroka sindikala antolatua egotea are eta garrantzitsuagoa izango da gaurtik aurrera. Sindikatuaren hedapen estrategia beraz borroka sindikala antolatzea izango du oinarri.

(315) Sindikalismo klasikoak klase subjektuan aintzat hartu ez dituen hainbat protagonista (emakumeak, langabetuak, autonomoak, pentsionistak, kooperatibistak,...) langile borrokaren partetzat jotzen ditugu. Kolektibo horiek borroka sindikaletan inplikatu behar ditugu herri eta eskualde ezberdinetan. Herri biltzarren dinamika beraz, sustatu behar dugu, borroka zehatzak dinamizatzeko garaian. Urteetan ikusi dugu sindikatuak sustatzen dituen dinamikek atxikimendu maila handia daukatela; gure helburua babes hori iraunkor eta antolatua bilakatzea izan behar da.

(316) Fase honetan, langileria bere eskubideen jabe izatea, irizpide ekonomikoen erabakietan parte hartzea eta irizpide hauen kudeaketa langileen eskuetan egon dadila bultzatuko dugu. Horregatik lantokia eta lurralde egitura sindikatuaren interbentzio eta hausnarketa gune nagusiak izango dira, langileen gune hurbilenak diren heinean. Borroka sindikala zein borroka sozialak bestelako eredu bat eraikitzeke duten balioa kontuan harturik, bietan eragiteari begirako antolakuntza sakonduko dugu.

8.2. Ziklo berri honetan gure antolakuntza ereduak izan behar dituen oinarriak

8.2.1. Gure izaera eta nortasuna

(317) Klase sindikatua da LAB bere sorreratik. Langileriak, orokorrean hartuta, dituen interesen defentsa egiteko xedez sortua. Interes korporatibo edo partikularren gainetik, herri proiektu baten aldeko eraldaketa bultzatzeko tresna izan da langileontzat LAB sindikatua. Euskal Herriko klase kontzientzian dugu oinarria.

(318) Funtzionamendu demokratikoa. LABeko praktika eta erabakiak modu partekatuan osatu behar ditugu. LAB bere militanteek egiten duten egitasmo bizia da eta egunerokoan eraikitzen da. Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko guneak ongi definituak izan behar ditugu, funtzionamendu demokratiko egokia osatze aldera, baina, batez ere, honek antolakundearekiko atxikimendua eta erantzukizuna guztiok geureganatu dezagun eskatzen du. Korporatibismoarekiko joera gaituz behar dugu, horretarako bidea proiektu osoarekiko binkulazioa eta talde lanari duen balioa ematea dira. Azkenik, funtzionamendu demokratikoa zuzendaritza egiteko filosofia zehatz batekin lotzen da. Filosofia horrek funtzioen arabeko lan banaketa eta funtzioen arteko osagarritasuna, eta kidegoaren autonomia ditu oinarri.

(319) LABek euskal jendartean funtzio politiko-sindikala du. Funtzio hau, euskal langileekiko konpromisoz, beste eragileekiko begirunez eta autonomia sindikal osoz betetzen du.

8.2.2. Gure eredia eta estrategia

(320) LAB sindikatu konfederala da, eskualdeka antolatua eta sektoreen bidez eragiten duena. Izaera konfederalarekin, klase interesari ematen diogu lehentasuna, proiektu eta praktika orokorra nagusituz. Egiturazko eskaintza baten bidez, sektore edo lan esparru zehatzak gaituz, euskal langileriaren eta Euskal Herriarentzako proiektu osoa eraiki nahi dugu.

(321) LABek Euskal Herrian osoko hedapena du, bere lan sindikala Euskal Herriaren luze zabalean garatu nahi du. Euskal Herria, errealitate ekonomiko eta politiko gisa ulertuz, eraiki nahi duen sindikatua gara. Errealitate nazional horretan, langileriak subjektu nazional gisa egituratzeko eta eragiteko ambizioa dugu. Esan gabe doa, sindikatu nazionalak antolakuntza nazionala behar duela.

(322) LAB langileen eta Euskal Herriaren zerbitzura dagoen antolakundea da. Langile klasearen interesak defendatzeko eta egikaritzeko bitartekoa da eta bere burua ez du asistentzia edo zerbitzu sindikalismo ereduaren barnean kokatzen, klase arteko konfrontazioan oinarritzen den eredia da gurea. LABek langileei emango dien babesera integrean ulertu behar dugu. Hau da, langile eskubideen defentsa kolektiboak ematen duen babes, segurtasun eta konfiantza da LABek bere eskaintza sindikalean, gure lanaren seriotasunean eta gure militanteen inplikazio eta zintotasunean emango diena. Hauek guztiak langile klasearen izaera, kontzientzia eta borroka jarrera indartzeko baliabide nagusiak dira.

8.2.3. Ereduaren bilakaeran plan estrategikoen bidez egin ditugu urratsak

(323) LABeko egiturak borroka sindikala ulertzeko modu bat bultzatzen duen bezala, LABeko egiturak eta funtzionamenduak jendartean dauden harreman sozialen eragina pairatzen du. Ez dugu eragin hori berez konponduko den zain egon nahi. Egiturazkoak diren arazoei egiturazko soluziobideak jartzeko beharraz ohartu gara. Euskal Herriaren zatiketa administratiboari eta bere ondorioei aurre egiteko neurriak zehaztu ditugu. Baina, bereziki azpimarratzekoak dira egitasmo estrategikoen bidez hizkuntza normalizazioari eta aukera berdintasunari heltzeko garatzen ari garen egitasmo estrategikoak. Aintzidariak izan gara bi borroka hauek euskal sindikalismoaren agendan kokatzen eta lan horretan jarraitzeak duen balioa azpimarratu nahi dugu.

(324) Batetik, euskararen ezagutza eta erabilera sindikatuan normalizatzeko eta ekin-tza sindikalaren bidez lan munduan garatu beharreko euskalduntze prozesuan eragile euskaltzale aktibo izateko egitasmo estrategikoa dugu indarrean. Egitasmo honekiko erantzukizuna sindikatuko kide guztiona da, modu integrean gauzatu beharreko aldatetaz ari baikara. LAB sindikatu euskalduna da eta errealitate hori egunerokotan eraiki behar dugu militanteen konpromisoaren eta ekimen sistematiko egonkor, iraunkor eta eraginkorren bidez.

(325) Bestetik, aukera berdintasunari begirakoa dugu. Sindikalismoak historikoki izan duen hutsuneari konponbidea jartzeko konpromisoa izan du LABek. Sindikatua emakumeon errealitateari aurre egiteko bitartekoa izatea bilatzen dugu, emakumeon eskubide sozioekonomikoak borrokatzeko sexuen araberako lan banaketan oinarritutako eredu kapitalista eta patriarkala eraldatuz. Halaber, egiturari eta klase borrokari emakumeon ekarpena gehitzeko konpromisoa ere badugu.

8.2.4. Helburua LAB indartzea eta hedatzea da

(326) LAB indartsua behar dugu Euskal Herri osoan fase politiko eta ekonomiko honetan. Ez da debaldeko baieztapena, LAB baita aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoa ekarri behar duen prozesuarekin bete betean bat egin duen sindikatua. Aldaketaren aurrean geldirik geratuko diren eragileak baino, langileen eskubideak nonahi defendatuko dituzten eta aldaketa prozesuetan langileen ahotsa presente izatea bermatuko duten sindikatuak behar dituzte euskal langileek. LABek horretan bere hitza ematen du.

(327) LABen eraginkortasuna prozesu horretan, aitzindaritza ideologikorako gaitasunean eta indarren aktibazioan egongo da. LABen afiliatzea prozesu honekiko atxikimendu eta aktibo politiko-sindikal bilakatu behar dugu. Euskal langileengan kontzientzia hori erein behar dugu.



8.3. LABek sustatu behar duen militantzia eredua

(328) LABeko militanteek egiten dute sindikatua egunerokoan. LABeko egitura bere militanteen zerbitzura egoteko eraiki dugun bitartekoa da. LABek eragiteko duen baliabidea bere militantzia da. Militantzia aktiboa eta kritikoa, langileak dinamizatzeko eta antolatzeko trebatua izan behar dugu.

(329) Militantzia autonomoa behar du LABek. Hau da, egoera interpretatzeko eta kolektiboki eztabaidatu eta erabaki duguna aplikatuz, borroka ideologikoa egin eta langileen borroka antolatzeko ahalmena duen militantzia.

(330) LABek langileei bere eskubideak ezagutu eta borrokatu ditzaten ahalmen eta bitarteko gehien hurbildu behar die, hala nola, formazio eskaintza, aholkularitza juridikoa, komunikazio bitartekoak eta dinamizatorako zein borroka diseinuetarako eskaintza.

(331) Egungo lan harreman eta ekoizpen eredua onartzen ez duen eta langile izatearen harrotasuna sustatu eta langile kontzientzia betikotzeko helburuz lan eta borroka egingo duen militantzia behar du LABek. Militantzia eredua, halaber, modu zabalean ulertu behar dugu, ekarpen maila ezberdinak egiteko prest dagoen eta baldintza ezberdinetan dauden langileak integratzeko. Ildo horretan, LABeko antolakuntza ereduak Euskal Herriaren alde lan egin nahi duen langile ororen topagune eta suspertzailea izan behar du.

(332) Aldaketa sakonekoa nahi badugu, sindikatuak eskaini behar duen formazio ereduan aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboa egin behar dugu, fase politiko-sindikala honek eskatzen duen formazioa eskainiz gure militantziari eta, halaber, gure proiektuarekin bat egiten duen langileei atek zabalduz.

(333) Militantzia eredua berritu behar du, beraz, LABek. Hain zuzen ere, baldintza ekonomikoak, sozialak eta politikoak aldatzen ari direlako Euskal Herrian. Eta egoera horretan borrokatu behar dugu. Aldaketa hau ez da definizioa berritzea eta horren arabera nor den militantea eta nor ez den sailkatzea. Militantzia ereduaren aldaketa eztabaida baten emaitza izango da, kontzientzia hartze bat ekarri behar duen eta langileen suspertzea ekarri behar duen eztabaida prozesu baten emaitza.

(334) Klase borrokan orain arte partaide izan ez diren kolektiboen erresistentzia eta borroka esperientziak geureganatu behar ditugu. Tradizio sindikala eta klase borrokaren transmisioa bermatu behar dugu, ikuspegi sozioekonomikoa indartuz. Sistemak apurtu duen ikuspegi globala berreskuratuko duen militantzia eredu behar dugu.

(335) Eredu berriaren eztabaida ez da, halere, airean geratzen den gogoeta. Euskarri finkoak behar ditu, sindikatuak oinarri sendoak behar baititu aurrera egiteko. Ildo honetan barne araudi berri bat behar dugu. Barne araudi horrek, militantzia ereduaren dinamizatorako lanabesa izan behar du.

Eranskinak



Nazioarteko egoera



1.- Kapitalismoa: ordena ekonomiko eta sozial bidegabea

Azken lau urteko nazioarteko egoeraren ezaugarria sistema kapitalistaren krisia izan da. Krisialdi honek, batez ere, Europar Batasuneko (EB) eta Ipar Ameriketako herriei eragin dien arren, mundu osoari ere eragin dio zuzenki.

Dena dela, azpimarratu behar da kapitalismoak, bere hastapenetik, milioika lagun krisialdi ekonomikora eta sozialera zigortu duela, ondorengo datuok (beste asko ere gehitu genitzake) adierazten duten bezala:

- Biztanleriaren %20 aberatsenak munduko diru-sarreraren hiru laurdenak dauzka, aldiz, %20 txiroenak munduko diru-sarreraren %1,5 dauka.
- Munduko txiroen kopurua 1.750 milioietakoa da (munduko biztanleriaren %25).
- Munduan gose direnak, 2009. urtean, mila milioi baino gehiago ziren, krisialdia hasi zenetik, aipatu kopurua 100 milioietan areagotu da.
- 1.000 milioi pertsonak ez dute ur-edangaririk eskuragarri (EBko biztanleriaren bikoitza).
- 2.600 milioi pertsonak ez dute saneamendurako sarrerarik.
- Gaur egun, Zambian jaiotzen diren hurrek, 30 urte betetzeko, Ingalaterran 1840. urtean jaio zirenek baino aukera txikiagoa dute. Burkina Fasoko biztanleen bizi-itxaropena, batez beste, Japoniakoa baino 35 urte txikiagoa da.
- Emakumeak dira mundu-kapitalistako txiroenak: urtero 530.000 emakume hiltzen dira haurdunaldian laguntzarik jasotzen ez dutelako; munduan dauden 870 milioi analfabetoetatik, 500 milioi emakumezkoak dira.

Gizartean suertatzen diren ezberdintasun eta bidegabekeria hauek eta beste batzuk urritu baino, areagotu dira azken urteetan. Datu ofizialeen arabera, desberdintasun sozialak duela 30 urteko mailetara atzeratu dira.

Honez gain, krisialdiak, Europar Batasuneko herrietan eta AEBetan, ekarri du, egun arte, herrialde horietan "ezezagunak" ziren fenomenoak (gosetea, osasun asistentziarik eza edota etxeak kentzea) gure gizarteetan azaldu izana.

Nabarmendu behar da aipatu krisialdiak ez diola mundu osoari modu berean eragin. Honela, honen eragina txikiagoa izan da Latinoamerikan edota BRIC¹ direlako herrialdeetako ekonomia emergenteetan.

AEBek munduko potentziarik handiena izaten diraute, eta ez diote uko egiten hegemonikoa izateko asmoari. Xede horretan, ez dute zalantzarik izaten munduko beste herriak mehatxatzeko edota erasotzeko ere. Horren harira, EBko gobernu kontserba-

doreekin aliantzak bilatzen dituzte, adibidez, frantziarrarekin, alemaniarrekin edota italiarrekin. Barack Obama Etxe Zurira iristeak batzuegan sortu zituen hoberako aldaketarako itxaropenak azkar desagertu ziren.

Egun, *yankeeak* Afganistan edota Irak bezalako herrien okupazio-buru dira. Milaka pertsona armatuek, AEBetako armadakideek edota segurtasun pribatuetako konpainietan lan egiten duten kideek, aipatu herrialdetan, ipar Ameriketako kapitala duten multinazional askoren interesak zaintzen dituzte. NATOren gidaritzapean Libiari egindako eraso inperialista horren adibide garbia da. Zitalkeriaren ikur nagusienetako batek ere, Guantanamo presoondegiak, zabalik dirau, Nazioarteko Eskubidearen printzipio guztiak urratuz.

Munduak polobakarra izateari utzi dio; azken hamarkadan, indar handiz agertu dira nazioarteko egoera ekonomiko eta politikoan lehen mailako eragileak, hala nola, Txina, India, Brasil, Hego Afrika edota Errusia (zeina azken hau Ekialdeko Europan eta Asiako erdialdean bere eragin-esparrua eusteko borrokatzen ari den). Bestalde, Latinoamerikako erregimen aurrerakoiak ere badaude, Venezuela buru dela.

Estatu hauek beren politika ekonomiko propioa garatzen ari dira eta aukerako alternatiba sortzen ari dira. Batzuetan, EBren eta AEBen "polo alternatibo" gisa eta hauen nagusitasunaren mehatxu gisa ager daitezke inbertsio eta nazioarteko harremani dagokienez. Estatu hauen politikak askotan, baina ez beti, AEBek eta EBk beste kontinenteetan dituzten hegemonia interesekin kontraesanean sartzen dira, duela gutxi arte herri aberatsenen "atzeko patioak" bailiran kudeatu diren lurraldeetan.

Horren adibide garbia, Txinak Afrika osoan darabilen hedatze eta eragite politika dugu, non petrolio eta lehen gaiak ustiatzeko eta erosteko akordioak lotzen ari den herri jakin batzuen garapenari laguntzearen truke, azpiegiturak, ospitaleak, eta abar eraikuntzen lagunduz. Baina hori, beti ere, Asiako herri horren interesak lehenestearren truke eta Afrikan nagusitasuna lortzearen.

Baina Txina bere garapen eta hazkunde ekonomikoa milioika txinatarren esplotazioaren bidez lortzen ari da. Gainera, gaur egun desberdintasun sozialak inoizko handienak dira. Horrez gain, osasun eta hezkuntza sistema unibertsalak izatetik urrun dago Txina.

Latinoamerikako kontinentearen errealitate batzuek itxaropen arrazoi eta eredu izaten jarraitzen dute mundu osoko ezkerreko pertsonentzat, duela hamarkada bat baino gehiago ekin zitzaion bidearen segida direlako. Herri bakoitzak berezitasunak eta egoera desberdinak dauzkan arren, badauzkate elementu komunak eta esan dezakegu, kontraesanak eta oztupoak gorabehera, ezkerrean egin dutela hainbat herritan, esaterako, Venezuela, Bolivia, Ekuador edota Uruguain. Eta horiek guztiak, Kubarekin eta bere 50 urteko prozesu iraultzailearekin batera, *yankeeen* inperialismoari aurre egiten diote kontinente horretan.

Latinoamerikako gobernu aurrerakoiek eta ezkertiarrek, Martík "Gure Amerika" deitzen zuenaren integratze prozesua, bigarren independentziarako prozesua sendotzea hautatu dute. Oraingoan, AEBetatik bereizi beharraz ari gara. Hortaz, bereziki interesgarriak dira ALBA edota Unasur bezalako lankidetzak esparruak edota *bolibariar pentsamenduaren* hedatze eta sendotze bera.

Ildo berean, CELAC (Estatu Latinoamerikarren eta Karibearren Komunitatea) sortu berri izana agurtzen dugu. Horren sorreran Amerika osoko 33 estatuburuk parte hartu zuten (AEB eta Kanada baztertuz) orotara 500 milioi biztanle ordezkatzeko zituztela. CELACen helburua herrialde latinoamerikarrak Ameriketako Estatu Batuen eta Europako aspaldiko zaindaritzatik askatzea da, herrien integrazioan aurrera egitea, beraien gatazkak konpontzea eta berau osatzen duten herrien garapen ekonomikoaren sustatzea. Dena dela, herri horietako sektore erreformista eta eskuindarrek euren interesen alde eragin dezakete.

Ekialde Erdiari dagokionez, bere horretan dirau Israelen apartheid sionistak, AEBen laguntza esplizituarekin eta EBko gobernuen elkar aditzearekin, herri palestinarren aurka. Negoziazio prozesuari ekin baino, Netanyahuren gobernuak bere politika hedatzaile eta kolonialistarekin dirau Zisjordanian, kolonia berriak eraikiz edota eskala handiko krimenak gauzatuz, 2009ko hasierako "Berun Urtua Operazioa" bezala, zinetan Israelek Gazako biztanleria erasotu zuen eta 1400 zibil baino gehiago hil zituen inolako zigorrik jaso gabe.

Ekialde Erdian gobernu aldaketak eman dira "arabiar udaberria" izeneko horren ondorioz. Herri hauetan guztietan ezaugarri komun batzuk badirela onartu arren (hamarkadetan agintzen ari diren agintariak, norbanako eta politikako askatasun eza, adierazpen askatasuna murriztua, etab.), sinplista litzateke, kasu guztiak berdintzea.

Alde batetik, hor ditugu Egipto, Tunisia, Bahrein edota Yemen bezalako herrien adibidea. Hauetan, gobernariak EBko estatueta eta AEBetako sostengua zuten (Bahreineko kasuan, indarrean diraute). Egiptoko, Tunisiako eta Yemengo matxinadak baketsuak ziren eta osagarri sozial argia zuten, jendea haserre zegoen egoera ekonomiko eskasagatik eta langabezia handiagatik, bereziki altua gazteen artean, presakuntza ona eduki arren etorkizunik ikusten ez zutenak. Bestalde, Bahreineko matxinada gehiengo txikiak jasandako diskriminazio politikak sortuta haserrearen ondorio izan da.

Hauetan guztietan mendebaldeko hedabideek, gutxienez, oso etorkor jokatu zuten, armarik gabe, protesta egin zuten hiritarren aurka oso errepresio handia erakutsi zuten gobernuarekin, nahiz eta azkenean, Bahreinen izan ezik, aipatu gobernuak eraitsi zituzten. Dena dela, herri horietan ez da funtsezko aldaketarik eta sistemak bere horretan dirau, militarren esku.

Libia eta Siriako adibideak, elementu komunak dituzten arren, alde nabarmenak ere badituzte. Egia da biztanleriaren artean nolabaiteko atsekabea zegoela, eta gizarte horietako alderdi batek herri bakoitzeko gobernuak babesten zituztela, baina egia bada ere, EBk (Frantziar Estatu buru izanik) eta AEBek esku hartu dutela, oposizioaren sektore jakin batzuk armatuz eta hauei estaldura politikoa eta militarra emanez.

NATOk Libiaren aurka burutu duen eraso inperialista esan dugunaren adibiderik argiena da. AEB, EB eta Israel gertaera hauez baliatu nahi dira, Ekialde Erdian asmo inperialista eta sionisten aldeko erregimenak ezarri ahal izateko (zeregin hau, lehen, Ben Alik Tunisian eta Mubarakék Egipton betetzen zuten). Dagoeneko Libian egin dute, garrantzia geostrategiko handiko gune hau kontrolatzeko eta herri hauetako baliabide energetikoez eta mineralez jabetzeko (dagoeneko kontrolatzen dituzte Persiar golko herrialdeetakoak). Honen harira, dirudienez, adierazle guztien arabera, epe ertainean, Israel, AEB eta EBko herrialde batzuk eraso berriak prestatzen ari dira Siria eta Iranen aurka. Petrolioa eta lehengaiak kontrolatzeko borrokak, bipolarra den mundu batean, iraunkorrak izango dira, nazioarte mailan, datozen hamarkadetan.

Helburu honekin batera, AEB, estalian, saiatzen ari da Txina edota India bezalako herrialdeak (hauen eragina, gaur egun, nazioarte mailan gero eta handiagoa dena) duela mende Erdiko egoerara egin dezaten atzera, eta honela, mendebaldeko inperialismoaren erabateko kontrola bermatzeko.



LABek berresten du NATOk Libiari egin eraso inperialistari azaldu diogun arbuioa, baita munduko edozein herriren aurkako atzerriko eraso militar mota oro ere. Honek ez du esan nahi Siriakoa edota Irango erregimenak kritikatzeko ez dugunik, non askatasun demokratikorik ez dagoen eta, besteak beste, betidanik, kurdak edota balutxe herriak zapaldu dituzten.

2.- Europar Batasuna eta AEB: egungo krisialdi kapitalistaren muina

Bigarren Mundu Gerra ondoren gertatu den krisialdirik handiena eta sakonena Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen, baina azkenean, mundu osora hedatu da. Krisialdi honen berritasuna ez datza soilik bere izaera espekulatiboan, mundu osora hedatu den intentsitatean eta zabaltasunean ere.

Egiaz, krisialdiaren sustrai gertuena AEBetako eta Europako higiezinaren burbuilan eta AEBetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak onartutako kreditu politika arduragabearen koka dezakegu.

Zabor-hipotekak agertu izanak (kaudimen txikiko familiei emandako kredituak), aipatu hipotekei elkartuak edo eratorriak diren arrisku handiko balore-tituluen igorpenak eta mundu osoko finantza-merkatuetan hedatu izanak finantza-erakunde garrantzitsu askoren balantzeak hondatu zituen azkenean (hauetako erakunde batzuek porrot egin dute eta beste batzuek erreskatatu edo birkapitalizatu behar izan dituzte) eta nazioarteko finantza-sistema kolapsoaren hegira eraman zuten, errentagarritasun gorena bilatzeko finantza-espekulaziorako joera duelako (sistema kapitalista zuzentzen duen diruzalekeriak bere-berekoa du).

Salatu behar da finantza-sistemaren funtzionamendua zaintzeaz eta nazioarteko finantzak gainbegiratzeaz arduratzen diren buruzagiek bete duten zeregina. Hauen geldotasunak eta konplizitateak ere lagundu diote krisialdia eratzeari, eta azkenean lortu duen dimentsioa eta sakontasuna erdiesteari ere bai.

Krisialdi hau egungo ekonomia-ereduaren funtzionamendua onura-pribatuan eta lehiakortasunean oinarritu izanaren ondorio da; honen helburua irabazirik handiena lortzeari lehentasuna ematean datza. Horrela, ezartzen den errenta banatzeko sistemak kapitalari egiten dio mesede, eta langileriaren soldatak kaltetzen ditu; ereduak are gehiago metatzen du aberastasuna eta gizarte ezberdintasun maila handiagotzen du.

Eredu hau kapitalaren espekulazio-mugimendu handiak agertzeko eta garatzeko behar diren oinarritzko baldintzak sortu izanaren arduraduna da, zeinek azkenean, egungo egoera ekarri duten eta sistema haren porrot ekonomiko eta sozialera daramaten.

Honek ez du esan nahi aipatu sistema garaitua dagoela, baina begi-bistakoa da ezin daitekeela arrakastatuztat jo ekonomia-eraginkortasunari eta justizia sozialari dagokionez. Aipatu ekonomia-ereduak irabaziak pribatizatu eta galerak sozializatzen ditu bizi-irauteko. Eredu horrek, denok dakigunez, munduko milaka milioi pertsona zigortzen ditu txirotasunera, ur-edangarririk ez izatera, analfabetismora...

Europar ezarri politika neoliberalak ere (Europar Batasunaren agintariak zein batasuna osatzen duten Estatu-tako gobernuek) aktiboki lagundu diote gure kontinentea jasaten ari den krisialdian berezko kausak sortzeari.

Krisialdia sortu duten funtsezko arrazoen artean, azpimarra ditzakegu:

- Laneko desarautze eta lan eta soldata eskubideen etengabeko murrizketa langileria diziplinatzeke eta kapitalaren onurako eta soldaten aurkako errenta banatze-eredua ezartzeko tresna gisa erabiltzen da. Honek ekarri du soldatek gero eta eragina txikiagoa izatea sortutako aberastasunean eta barne eskaria ahula izatea.
- Europako Banku Zentrale inflazioa kontrolatzeko azaltzen duen kezka obsesiboa beste ekonomia helburuak baztertu izanarekin (enpleguaren hazkundera edota finantza-merkatuen egonkortasuna) desberdintzen da.

- Ekonomian, gastu publikoa eta sektore publikoaren garrantzia ahal den gehien urritzeko xedean, zerga-politika neoliberala sustatu da. Honekin batera, pribatizazioak ekonomiaren sektore guztietan sustatu dira.
- Kapital-mugimenduen liberalizazioak eta finantza-merkatuak desarautu izanak lagundu diote espekulazio-inbertsioa xede duten eta ekoizpen-inbertsioaren kalterako egiten den finantza-produktu korapilatsuak agertzeari.
- Zerga-politika kapital-errenten eta espekulazioaren onuran egiten dira; zerga-paradisua ere babesten dira.
- Hazkunde eredu eutsiezina onartzen eta sustatzen da.
- Nabarmendu behar da, kalkuluaren arabera, munduko BPGaren %25 sistema kapitalistaren merkatu askearen "alderdi ilunean" oinarritzen dela. Zerga-paradisuetan dirua zuritzetik eratorritako irabaziez ari gara. Dirutza hori drogarren merkatutik, proxenetismotik eta gainerako jarduera kriminaletatik lortzen da. Egiaztatu ahal izan denez, neurri handi batean, "diru beltz" horren hartzaileak finantza-burbuilak eta higiezinen enpresak izan ziren.

Bitxia bada ere, AEBetan edota EB barruan erabaki dena, funtsean, finantza-sistema banku-porrotatik² erreskatatzeko izugarritzko dirutzak zuzentzean datza, ez ordea finantza-kapitalismoaren hedapena eragozteko edota geldiarazteko.

Halaber, bestelakoa izan da finantza-sistema salbatzeko, kapitala sartuz eta bankuei likidezia emanez, bideratu dituzten baliabide ugariak, alderatzen badugu hamarkadetan, enplegua babestearren, langabeziaren areagotzea borrokatzeko eta zailtasun ekonomiko handienak pairatzen dituzten sektoreei diru-sarrera maila duina bermatzearen, ekonomia-hazkundeari zuzendu diren ahalegin urriekin.

Jokabide honek egiaztatzen digu EBko erabakien atzetik talde-interesak ezkututzen direla eta ekonomia-atzeraldiaren gizarte-ondorioei aurre egiteko sentsibilitate eskasa dagoela. Hau da, kapitalismoak egungo Europako eraikuntzaren alde egin du hau-tua. Hau, gainera, politikaren *ekonomizatze* eredu arriskutsuaren adierazgarria da.

Egoera are gehiago larritzen da, kontuan hartzen badugu, Europako bankuek, haue-tako askok beren altxorrek altxor publikoarekin onbideratu ostean, Europar Batasuneko Estatuak etengabeko xantaia pean dituztela, hauen zor-publikoa interes apaletan erostean. Hots, Europako banku handiek jaso zuten laguntza-publikoen munta handia zor-publikoa erostera zuzendu zuten, hau baita, zalantza ekonomikoa dagoen garaian segurua den baloreetako bat. Egiazko ekonomian, inbertsio pribatua sustatu beharrean, berriro ekin zioten espekulatzeari.

Azpimarratu behar da, Europako Banku Zentralak (EBZ), AEBetako Erreserbak, Japoniako edota Txinako Bankuek ez bezala, ezin dezakeela zor-publikoko bonurik jaulki, ez eta haren kideak diren herrialdeetakoak erosi ere. Bere eskuduntzak, ia-ia mugatzen dira interes-tasak inflazioari egokitzen. Horrek eragiten du, bere bazkideak demokratikoki hautatu ez dituen erakunde batek (ia EBen erabakitze-organo guztietan gertatzen da) ezartzen duela EBko herrialdeetako kideen moneta-politika. EBZk "ezin die" dirurik mailatu Estaturikideei, alde aurretik banku nagusiei baldintza onuragarrietan utzi bazien.

Bizi dugun unea ulertzeko, arriskuak ebaluatzeko enpresek (rating) betetzen duten zeregina aztertu behar dugu. Enpresa hauek, teoriarik, inbertitzaileei finantza-produk-



tuen balioaren eta igorpen hauen errentagarritasunaren berri ematen diete, igorleak Estatuak nahiz enpresak izan. Esan behar da, sektore honetan, soilik, hiru enpresen³ oligopolioa dagoela eta hortaz, izugarriko boterea daukatela Estatuak baldintzatzeko eta hauei xantaia egiteko, norabide batean zein bestean jarriz inbertitzaileen merkatuak. Horrek ekarri du enpresa hauek, etengabe, beherantz baloratzea EBko Estatuetakoei ekonomiak eta, hortaz, aipatu Estatuak jaulki dituzten zor-bonuak ere bai, hauen balioa zorrozki txikiagotuz: Greziako adibidea paradigmaticoena da, baina ez da bakarra. Hortxe ditugu ere, Portugal, Irlanda, Italia, Espainiar estatua eta, berriki, Frantziar estatuaren adibideak.

Hortaz, **2008. urteko krisialdia ekarri zuen "higiezin burbuila" ondoren, finantza-erakundeek, milaka milioi euro eta dolar jaso ostean, lehengaiekin⁴ espekulatzera eta "burbuila" berria sortzera jo dute, oraingoan, EBko Estatuetakoei zor subiranoarena.**

Europar Batasuna osatzen duten ia gobernu guztiak EBko krisialdi kapitalistaren aitzakiaz baliatzen ari dira beren "kapitalismoa birsortzeko" proiektuan sakonduz, Sarkozyk esan zuen bezala.

Horrela, EBko Estatuetan, banku eta *rating* enpresetan sekulako zeregina bete izan duten teknokratek boterea eskuratzearan lekukoak gara, horratx Greziako, Italiako eta Espainiako estatuetakoei adibideak. Honek guztiak, inplementatzen ari diren eta jadanik adierazi ditugun politikekin batera, benetako "finantza-munduaren diktadura batera" eraman gaitu.

Hartzen ari diren neurriak, jada luze eta zabal azaldu ziren 2007. urtean onartu zen Lisboako Itunean; orain, krisialdian gauden aitzakia pean, poliki-poliki, inplementatzen ari dira, baita sakondu ere, aipatu ildotan. Honen ardatza defizit publikoaren kontrola da eta, hortaz, gastua gizarte⁵ alorrean ahalik eta gehien mugatzea eta, horrela egin ezean, zorraren interesak handitzearekin mehatxatzen dute.

Neurriok, oinarrian, antzekoak dira herrialde guztietan:

- Enplegatu publikoei soldatak murriztu.
- Lan merkatuan malgutasun handiagoa, egozpenak merkatu eta langileen ordu-malgutasuna handitu.
- Gizarte-zerbitzuen murrizpena eta erretiratze adina handitzea, baita kotizazio peko pentsioak eskuratzeko baldintzen gogortzea ere.
- Pribatizazioak handitu, sektore publikoaren presentzia urrituz.
- Inbertsio publikoen izoztea (6000 milioi € Espainiar Estatuan, Grezian eta Portugalen).
- Zerga igoerak. Adibidez: BEZa (Espainiar estatuan %16tik %18ra, Grezian %21-tik %23ra eta Portugalen %20-tik %21-era).
- Berdintasun edota hizkuntza normalizazioaren egitasmoak eta politikak ezabatu edota mugatu.

Neurri hauek guztiak era basati batez ezarri dituzte Espainiar estatuan, Grezian, Portugalen, Italian eta Irlandan, eta intentsitate txikiagoz, baina baita neurri batean, Frantziar estatuan, Erresuma Batuan, Belgikan, Danimarkan eta Alemanian.

Genero ikuspegitik, azpimarratu behar da gastua eta sektore publikoa ezabatzeko darabiltzaten politika hauek, dagoeneko, prestazioen eta gizarte-laguntzen, azpiegituren, eskubideen eta gizartearen ongizate kolektiboari zuzendutako zerbitzuen murrizpen handiak ekarri dituztela.

Egoera honen ageriko ondorioz, gizarte zerbitzuak desagertzen ari diren honetan, administrazio publikoak betetzen ez dituen premiak, familia-unitate berak aurre behar izaten dizkie; nagusi den sistema patriarkalaren eta horri atxiki zereginen zatiketa bidegabearen emaitzaz, azkenean, emakumeek, gehienetan, beren gain hartu behar izaten dituzte zaintza-lanak eta, honela, burutu behar ohi duten lan-zama (ordaindua ez dena) areagotzen da. Hau, bestalde, pairatzen dugun sistema patriarkalak eta burgesak berezkoa du.

Hedabide handien diskurtso ofizialak dioena ez bezala, ekonomia geratuko da, kontsumoak eta inbertsio pribatuak nabarmenki egingo dutelako atzera, eta hau estuki lotzen zaio hiritarron eros ahalmenaren galerari (dagoeneko gertatzen ari dena).

Gaur egun, funtsean, beren osaketari eta hautatzeari dagokionez, guztiz ez-demokratikoak diren erakundeek, hala nola, Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak edota Europako Banku Zentralak, darabiltzaten errezetak, joan den mendeko 70, 8 eta 90.eko hamarkadetan erabili zituzten, Erdi eta Hego Amerikako herrialdeetan. Guztiok ezagutzen ditugu aipatu politiken emaitzak: txirotasuna eta gizarte-bazterketa handitu da. Zorionez, herri horietako biztanleriaren gehiengoak bizkar eman zien aipatu politikei, azken hamarkadan, askotan, ezkerreko gobernuak hautatuz.

Honen harira, atzeraldi ekonomikoaren ondorioz, baina baita hartu diren neurrien ondorioz ere, Europako langileria kapitalaren logika anker eta bihozgabearen biktima bilakatu da; "logika" zentzugabe horrek, gaur egun, berekin dakar langabezia eta txirotasuna handitzea eta laneko eskubideak eta gizarte-laguntzak murriztea.

Kopuruak⁶ argiak dira: iaz, Europar Batasuna (27ko EB) osoko langabezia %9,8koa izatera iritsi da (eurogunean %10,3).

2010. urteak, EBn eta guztira, 23,67 milioi langabetuekin amaitu zuen; hauetako 16,37 milioi euroguneakoak ziren.

Langabetu gutxien daukaten estatuak Austria (%4), Luxenburgo (%4,9), Holanda (%4,9) eta Alemania (%5,5) dira. Aldiz, Espainiar estatuak (%22,9), Greziak (irailean %18,8), Lituaniak (%15,3 hirugarren hiruhilabetekoan) eta Letoniak (%14,8 hirugarren hiruhilabetekoan) langabezia handieneko Estaturikideak izaten dira.

Honela, Espainiako estatuak bikoizten du Europako batez bestekoa eta Austriatik, Europan tasa txikiena duen estatutik, are gehiago eta izugarri urruntzen da.

2011ko azaroan, gazteen langabezia tasa %22,3koa zen 27ko EBn eta %21,7koa Eurogunean.

Gazteen artean, langabezia tasa handieneko herrialdeak Espainiar estatua (%49,6), Grezia (2011ko irailean %46,6) eta Eslovakia (%35,1) dira; bien bitartean, gazteen artean langabezia tasarik apalenak Alemaniakoa (%8,1), Austriakoa (%8,3) eta Holandakoa (%8,6) ditugu.

Datuok ere oso adierazgarriak dira emakumeen langabezia tasari dagokionez. 27ko Europan, emakumeen langabezia, 2011ko azaroan, %10eko tasara iritsi zen, aldiz, 2010eko azaroan %9,7koa zen. Espainiar estatuari dagokionez, %20,8tik %23ra igaro zen, hots, Europako batez bestekoaren bikoitza baino gehiago.

Beti gertatu ohi da, ekonomiak atzera egin duen aldietan, gaur egun bezala, emakumeak eta laneko prekarietatea gehien pairatzen dituzten gainerako taldeak (gazteak, etorkinak, emakumeak...) izan direla beren enpleguak lehenak galtzen, langabeziari dagozkion datuek adierazi bezala.



Azpimarratu behar da badirela alternatibak errezeta neoliberalentzat. Hauek egun erabiltzen ari dira konsumoa eta hazkunde ekonomikoa susta dadin.

Halaber, ez da ulergarria krisialdi honen arduradunik erantzun ez izana egin duten kudeaketa tamalgarriaz; are gehiago, hauetako askok saritu dituzte beren herrialdeetako lehendakaritzak emanez, Greziako eta Italiako azken presidenteeekin suertatu bezala.

Benetan eskandalagarria da, krisialdi honen arduradun politikoetako eta kudeatzaileetako inork (bankariak, goi mailako exekutiboek...) EBko herrialdeetako justiziaren aurrean erantzun behar izan ez duen bitartean, orain, Espainiar estatuan, PPk agindu duen gastu publikoa, erabat mugatzeko, hauen politikari men egingo ez dien kudeatzaile publikoen aurka zigor-bidea hartzeko aukera proposatzea. Hots, krisialdi kapitalista honen arduradunak onik eta indartuak atera diren bitartean, ezarri nahi duten eredu ultraliberal honekin bat ez datorren arduradun publiko oro, politikoa izan ala ez, jazarriko dute. Hau autoritarismo politikoaren adierazgarri garbia dugu.

Arazoa gogo politikoan datza. Europan, honen adibide argia Islandiarena da: Estatu bakarra izan da, biztanleriaren gehiengoak aukera izan duena, Estatu horrek jasan zuen porrot orokorraren ondoren, hartu beharrek neurri ekonomikoez iritzia agertzeko; gehiengoak, bitan, zorra atzerriko bankuei ez ordaintzearen alde bozkatu zuen. Halaber, Islandiak zigor-neurriak hartu ditu Islandiako banku zuzendarien aurka eta lehen ministro ohiaren aurka, krisialdian azaldu zuten arduragatik.

3.- Nazio auzia:

Bestalde, esparru politikoari dagokionez, azpimarratu behar dugu, mundu mailan, burujabetzaren eskubidea indarrean dagoela, Europan barne. Horratx, Hego Sudan estatuaren sorrera 2010. urtean.

Eskoziaren adibidea ere, bereziki ereduakoa da. Britainia Handiko gobernu kontserbadoreak onartu die eskoziarrei beren etorkizuna askatasunez erabakitzeo dagokien eskubidea. Eskoziako autodeterminazio prozesua, burujabetza gauzatu nahi dugun Europako gainontzeko Nazioek geure burua ikusiko dugun ispi-lua izango da, jakina, jakitun izanik, nazio askapen prozesu bakoitzak dituen berezitasunak zeintzuk diren.

Hau, Europako egungo estatuen zilegitasun krisialdiaren eta hauek menderatzen dituzten nazioei dagokionez, gobernu hauen politiken isla ere bada, Euskal Herriaz gain, badirelako beste herrialdeak, gehiengoz eta era argi batez, beren burujabetza politikoari begirunea eskatzen dutenak: Katalunia, Groenlandia, Flandes...

4.- Mundu eta Europa mailan, eredu sindikal berriaren beharra:

Sistemaren egungo krisialdia eta honek berekin ekarri duen gizarte-babeserako sistemen eta eskubide laborral eta sindikalen aurkako eraso, sistema kapitalistaren aurka betidanik borrokatu izan den ezker kontsekuentea ahuleziagatik gauzatu ahal izan da Europar Batasunean. Sistemak masa-hedabideen bitartez egin duen borroka ideologikoak agerian utzi du ezker kontsekuenteak berrantolatu behar duela mundu eta Europa mailan, azaleko ezberdintasunak baztertuz.

Era berean, beharrezkoa da borroka sindikala birsortu eta beste modu batez karakterizatzea, eta beharrezkoa ere bada ordena kapitalista oinarrian zalantzan jarriko duen eta izaera soziopolitiko argia izango duen klase sindikalgintzaren bultzatzen jarraitzea.

Gure iritziz, **gure kontinentean, bi eredu sindikal daude jokoan:**

1.- Alde batetik, Europan nagusia den eta nazioartean, Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioak (NSK-CSI) eta gure kontinentean, Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK-CES) ordezkatzeko duen eredu nagusia

dugu. Begi-bistakoa da, konfederazio hau osatzen duten sindikatuen artean salbuespenak daudela, baina gutxiengoa da hala ere.

Sindikatu ere du hau krisialdian dago, baina nagusia izanagatik, eraginari eta gizarte-zilegitasunari dagokienez, galera nabarmena jasan du.

Sindikatu ere du horrek ez du zalantzan jartzen ordena kapitalistaren oinarria, eta hortaz, ez du proposatzen hura gainditu behar dela, "bihozberatasun handiagoaz" baino ez du nahi jantzi. Eredu sindikal horrek, ñabardurak-ñabardura, muinean, kontsumo-garapena, euro-inperialismoa bere egin ditu. Honen harira, egungo EBren eraikitze-eredua babestu du, haren aldeko botoa eskatu du ere, honi loturiko erreferendumetan eta eraso-inperialistak⁷ zuritu ditu.

Honez gain, ere du honek honako ezaugarriak ditu:

- **Gaizki deituriko elkarrizketa sozialaren** aldeko apustua. Europan, eta batik bat, Espainiar estatuan, pairatzen ari garen "eztabaida soziala" ere du hau gobernuak gizartearen aurkako eta neoliberalak diren politikei zilegitasun-sindikalaraz eta hortaz, sozialaz hornitzeko darabilten baliabidea da. Kapitalismoa legitimatzeko baliabidea da. Hala ere, ez dago benetako eztabaidarik edo negoziatorik, kaleko mobilizazioa, presionatzeko zilegi den elementu gisa, baztertzen delako, eta alferrikako bilera-dinamikan murgiltzen delako, lege-proiektuak gobernuak ezarri edukiakin itxuraldatzera mugatuz.
- **Sindikatu borroka bera zerbait isolatua bailitzan ulertzen da, bestelako borrokan eta jendarte-mugimenduetatik at.** Honek eragin du biztanleriaren alderdi garrantzitsuak (gazteak, emakumeak, etorkinak, aldi-baterako langileak, langabetuak) bat ez etortzea gizonezkoen, industriagintzako eta adinez aurrera doazenen sindikalgintza honekin, zeinak, kopuruari dagokionez, gero eta txikiagoa den biztanleria aktiboaren sektorea ordezkatzen duen.
- **Diru-sarrera publikoekiko duten menpekotasunak** eraman ditu unean uneko gobernuen politikak sostengatzera.

2.- Bestalde, klasekoa, borrokalaria eta alternatiboa den ere du sindikala daukagu.

Bigarren ere du sindikal hau oso kritikoa azaltzen da aurrenekoarekin; bestelako sindikalgintza eraldatzailea eta bestelako erreferentziak dituen sindikalgintza eratu nahi du.

Beste ere du sindikal honek, non LAB kokatzen den, funtsean (eta ez soilik), mundu mailan, Munduko Federazio Sindikalak ordezkatzen du, eta Europan mailan, Europako Sindikatu Alternatiboen Plataformak. Aldi berean, ESK-CESeke partaide diren sindikatu europar txiki batzuk hemen koka genitzake. Gureak oso sustrai ezberdineko sindikatuak diren arren, gaur egun, gutako askok, Europar Batasunari, krisialdiaren jatorriari eta honi aurre egiteko bideei dagokienez, oso antzeko diskurtsoak eta sindikalgintzaren erronei dagokienez, antzeko ikuspuntuak darabiltzagu. Talde honetako partaideak gara, Europan, gaur egungo krisialdiaren erantzuna gidatzen ari garenak.

Honen ezaugarri nagusiak liriteke:

- **Gaur egun "elkarrizketa soziala" ezagutzen dena errefusatu:** ez baitago "elkarrizketarik", eta "sozialetik", ezer gutxi duelako. Langileriaren eskubideak babesteko eta gure aldarrikapenetan aurrerapenak lortzeko modurik egokiena,



lantoki (negoziazio kolektiboaren esparrua) eta kale mailan, borroka sindikala egitea da. Borrokako eta norgehiagokako sindikalgintzaren hautua egiten du, muinean, ordena kapitalista zalantzan jartzen duen sindikalgintzaz ari gara, are gehiago, kapitalismoa krisian dagoen une honetan.

- **Sindikalgintza soziopolitiko**a babesten du. Hots, gure ustez, borroka sindikala ez da, eta ezin daiteke gainerako borroka sozialetatik isolatua dagoen borroka izan, beste borroka sozial eta politika horien eragile aktiboa izan behar du. Honela, beste gizarte eta herri mugimenduekiko aliantzak bilatzen dira (gazteria, feministak, ekologistak, internazionalistak, etab.).
- **Emakumez eta gizonez, berdintasunean, osatu sindikalgintzaren** hautua egiten du.
- **Administrazio eta erakunde publikoekiko finantza-independentzia eta autonomia.** Sindikatuaren finantza, batik bat, bere afiliazioan oinarritu behar da. Finantza-autonomiaren defentsa argia egin behar da; finantza-autonomia ezinbestekoa da berezko aldarrikapenak egin ahal izateko eta baldintza ez gaitzaten, ez eta menperatu ere, administrazio eta erakunde publikoek egin xantaiarekin.

Europako sindikalgintzak datozen urteetarako duen erronka klaseko sindikatu europarren arteko zubiak eraikitzean eta errealtatearen irakurketa bera egiten dugun sindikatuen arteko zatiketa eta gaizki-ulertua gainditzean datza, ahal den erantzun koordinatuenak emateko helburuan. Ordena kapitalistari eta egun, Europa eraikitzeke erabili eredu neoliberalari erabateko kritika egiten diogun sindikatuen arteko koordinazio egonkorra sortu behar da.

Europar Batasuneko herri askotako borroka sindikalak jasaten ari diren zailtasun objektiboez gain, azpimarratu behar da, azken urteotan, Europar borroka handiak gertatu direla, eta hauek sindikatu borrokalarienak zuzendu dituztela. Horratx, langile greziarren, italiarren, frantziarren edo portugaldarren adibidea; hauek, euskal langileriaren antzera, birritan atera dira kalera lan eskubideei eta gastu sozialari egin murrizte politikaren aurka borrokatzeko.

5.- LAB nazioartean: jardunbideak

LABek, goian aipatu bezala, aurre egingo dio eta eragile aktiboa izango da egungo globalizazioko sistema neoliberalaren aurkako borrokan, zeinak pertsonak baino, kapitala lehenesten duen. Honen harira, lan egingo du, herrien burujabetzan eta sozialismoan oinarrituz, egun nagusi den eta s Europako eta mundu osoko milioika lagun txirotasunera eta gizarte-bazterketara zigortuko dituen sistema kapitalistaren alternatiba anto-la dadin.

Pribatizazioen aurka borrokatuko gara, genero berdintasunaren alde, ingurumena suntsitzearen aurka, Herriei dagozkien Eskubideen alde eta hortaz, mundu mailan, Estaturen gobernu gehienak areagotzen ari diren ordena inperialista eta neoliberala ezartzearen aurka. Honen harira, Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua, Europar Batasuna eta berau osatzen duten Estaturen gobernuak ezartzen ari den politiken aurka agertzen gara, hauek oinarritzen direlako gizarte-gastuaren murrizketetan, osasungintza eta hezkuntza pribatizatzean, negoziatio kolektiboa desarautzean, lan harremanak banan-banan lotzean, egozpenak merkatzean, pentsioak urritzean eta erretiro adina atzeratzean.

Burujabetza lortzeko, Euskal Herriari eta munduko nazio guztiei dagokien eskubidea babesten du LABek. Estaturik gabeko langile klaseak zapalkuntza bikoitzari egin behar dio aurre: klase zapalkuntzari eta nazio-zapalkuntzari. Ildo honetan, orain arte bezala, Estaturik Gabeko Nazioen Sindikatuen Plataforman (EGNSP-PSNSE) parte hartuko dugu eta sustatuko dugu aurrerantzean ere.

Era berean, Munduko Sindikatuen Federazioarekin (MSF-FSM) dugun konpromisoan berresten gara. MSFk, 2011. urteko apirilean, Atenasen, egindako 16. Biltzarrean onartu ziren jardunbideen iritzi berekoak gara. MSFren antzera, LABek funtsezkoa irizten dio, mundu mailan, ordena kapitalistaren eta inperialismoaren aurkako borrokari.

LABek MSFko sindikatuerekin izango ditu harremanak, baina baita MSFko edota EGNP-PSNSEko kideak izan gabe, gure antzeko iritzia duten sindikatuerekin ere, alegia, mundu mailan, klaseko sindikalgintza soziopolitikoaren eta sozialismoaren alde borrokatzeko beharraz antzeko iritzia duten sindikatuerekin. Gure iritziz, funtsezkoa, eredu sindikala da; ildo horretan, borrokatuko den, soziopolitiko den, erabateko politika eta finantza autonomia duen sindikalgintza babesten dugu.

Gure ustez, justizia sozial minimoari erasotzen dion eta geratzen den ongizate estatu apurra desegin nahi duen egungo Europako eraikuntza neoliberalaren prozesua kritikatzin dugun sindikatuon arteko aliantzak ehuntzeko premia du Europako sindikalgintzak.

LABen partaidetzak, MSFren Europako bulego erregionalean eta Europa mailan beste sindikatuerekin ditugun harremanek aipatu helburua izango dute, hots, European sindikalgintza alternatiboa eta klasekoa sendotzea, EBn nagusia den eta egun langileria jasaten ari garen Europa neoliberalaren sorkuntzan eragile aktiboa gertatu den sindikalgintzari alternatiba sendoa sor dakion.

LABen aburuz, **Erdi eta Hego Amerikako** integrazio prozesuek, programa aurrerakoi eta ezkertietan oinarrituak, bere biziko garrantzia dute. Hori dela eta, datozen urteotan, ESNAren esparruan (Gure Amerika Topaketa Sindikala), Latinoamerikako sindikatu aurrerakoiekin ditugun harremanetan sakonduko dugu, zeinak urtero kontinente horretako ehunka sindikatu biltzen dituen.

Halaber, **internazionalismoa** gure sindikatuaren nortasun adierazgarria da. Urte hauetan guztietan egin dugun antzera, borroka internazionalista sustatuko dugu, mundu mailan jazo daitezkeen sindikalisten erailketak zein sindikatuari ezarri zapalkuntzak salatuz. Munduko beste nazioen burujabetzarako borrokarekin bat egiten jarraituko dugu, esaterako, Saharakoa, Palestinakoa, Kurdistangoa, Eskoziakoa edota Groenlandiakoa.

Federazioek eta sindikatuaren sektoreek bere egin beharko dute nazioarteko ekintza sindikala, beti ere, konfederazio mailan ezarri irizpideen arabera.

